

izar
iheskorren
gaueko
misterioa

M. A. MINTEGI LARRAZA



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

M. A. MINTEGI LARRAZA

Izar iheskorren gaueko misterioa

Abuztuak 9, larunbata

June igerilekuetarantz doa, lagunekin elkartzera. Pozik doa. Ikasturtea aise atera du, eta, horrez gain, ingeleseko azterketa ere gainditu du. Azken hau zailtasun handiagorekin, baina gainditu finean. Abuztua da, eta bi egun daramatza ongi irabazitako oporrez gozatzen. Beharra zuen, aurten luzatu egin baitzaio ikasturtea. Uztailean, izan ere, Ingalaterran izan da hizkuntza-eskolako azterketa prestatzen. Abuztua arte, bada, ikasliburuei lotuta egon da.

Orain Nafarroako herri batean dago gurasoekin. Etxe bat dute herri horretan eta urtero joaten dira oporrak pasatzera. Lagun-taldea du Junek herrian, jatorri ezberdinetako neska-mutilak osatua, eta urtero elkartzen dira udan. Gaur hasten dira herriko festak, eta txupinazo ikustera joan behar dute.

Igerilekuetan sartu da. Lagunak ikusi ditu bazter batean elkartuta. Haiengana doala besoaz eman dio ongietorria Alexek. Muzin egin du Junek. Lagun berria da Alex, aurten etorritakoa. Mutil katxarroa da Alex, altua eta ederra, gihartsu horietakoa. Hiru egun besterik ez daramatza lagunekin Junek, eta hiru egun horietan Alex bere inguruan dabil, arreta erakartzen saiatuz. Harroputz samarra iruditzen zaio Juneri. Mutilaren jarrerak, ordea, ez du ezer berezirik eragin Junerengan. Hobe gainera, pentsatzen du, bere burua ez baitago amodio-kontuetaarako, lagunekin ongi pasatzeko baizik. Denekin, bereizketarik egin gabe. Eta horretarako aukera aparta dira hastera doaz herriko festak.

Bera ez dela itsusia, pentsatzen du Junek, baina ezta taldeko neskarik ederrena ere. Halere, garbi dago Alexek begiz jota duela. Bere lagun mina, Leire, konturatua da.

—Alexek ez dizkizu begiak gainetik kentzen, June, ez dakit zer egin duzu baina bistan da. Nahiko nuke nik... —esan zion bart, bekaitzez, etxera zihoazela.

—Bai, konturatu naiz, eta ez pentsa oso gustura nagoenik —Junek erantzun, axolagabe.

—Bai zera! Ez dizut sinesten, planta egiten ari zara, gogorrarena egiten menpe edukitzeko.

—Oker zaude, Leire, oso oker.

—Ez didazu esango ez dagoela jateko moduan.

—Bai, ez dizut ezetz esango. Eta zer? Ez dit kili-kili egiten, hori jakin nahi baduzu.

—Ez? Orduan esaiozu denbora galtzen ari dela.

—Behar izanez gero esango diot, dudarik ez izan.

—Lehenbailehen hobe, June. Oporrak ez dira luzeak eta egunak ez daude alferrik galtzeko.

—Hara! Alexekin ligatu nahi, Leire? Tira, ba, nigatik libre duzu bidea.

—Nahiko nuke. Baina Alex zurekin tematuta badabil besteok jai dugu. Eta Irene ere hor dabil...

—Tira, Leire, jeloskor zaudela ematen du, eta ez duzu motiborik.

Hortxe bukatu zen bi lagunen arteko elkarriketa.

Giro zalapartatsua dago igerilekuetan: bozgorailuetako musika, gazteen oihuak eta murgilaldien plastak nagusienak. June eta lagunak, xukaderetan eserita, gaueko planak egin dituzte. Ondoren bainatzera joan dira. Joan orduko Alex jauzi handiak eta gustu gutxiko txantxak egiten hasi da. Atentzioa emateko, noski, ingurukoena eta Junerena bereziki.

Oilartuta dabil, June liluratzeko esperantzaz, seguru asko. June, ikuskizunaz aspertuta, uretatik atera eta igerilekuaren ertzean eseri da, Ikerren ondoan. Iker, Alexekin alderatuta, guztiz ezberdina da. Apala da, makal samarra; hala ere, fisikoan falta zaiona buruan soberan du. Lagun-taldeko intelektuala da, nolabait esateko. Baina mutil jatorra. Hankak uretan belaunetaraino sartuta dago mutila.

—Zer, ez zara bainatzen, Iker? —galdetu dio Junek.

—Ez dakit, agian geroxeago. Otitisa izan dut eta, badaezpada, ez dut nahi uretan denbora gehiegi egon.

Une horretantxe Alexek, ur azpitik atera, Iker hankatik heldu, tiratu, eta uretara bota du. Gero, burutik bultzaka, urpean eduki du segundo batzuk. Tarte horretan lagunei begira egon da, irribarretsu, haien txaloen zain. Libre utzi duenean, eskuak igerilekuaren ertzean jarri, besoekin indarra egin, eta jauzi batez Juneren aldamenean eseri da. Begira geratu zaio, balentria bat egin balu bezala, irribarre lerdoa ezpainetan. Junek ez du txintik ere esan. Lagun batzuek barre egiten dute.

Iker uretatik atera eta beste aldera joan da. Ertzean eseri da, burumakur. Ez da Alexen txantxak jasaten dituen lehenengo aldia; eta, zoritxarrez, beharbada ez da azkena izango ere. Taldeko mutilik ahulena baita, eta Alexek gozatu egiten du lagunaren aurrean barregarri uzten, haren kontura bere nagusitasuna erakusten.

—Susto galanta eman diot. Kar, kar, kar! —esaten dio Alexek Juneri.

—Ba niri ez zait batere grazia egin —Junek, serio— . Zergatik egin duzu hori? Belarriko minez egon omen da.

—Gizajoa! Oporretara etorri naizenetik beti dauka zerbait gure Iker gaixoak. Aitzakiak besterik ez ditu. Maritxu samarra da.

Junek ez du eztabaidetarako gogorik. Zutitu eta jauzi egin du uretara. Igerilekua zeharkatu du eta Ikerren ondoan eseri da. Alexek begiradarekin jarraitu dio. Irribarrea ezabatua du ezpainetatik. Urguilua minduta du, itxuraz ez zaio gustatu Junek egin diona, lagunaren aurrean hitza ahoan utzi. Marmarka zutitu da, ingurura begiratu, eta airean txilipurdi bat egiten uretan murgildu da.

Bazkalostean, etxeko portxean dago June. Etzaulki batean eroso jarrita misteriozko eleberri

bat irakurtzen ari da. Intrigaz eta ezustekoz beteta dago, azken orria arte nola bukatuko den ez dakizun horietako bat da. Halako batean, mugikorra jo eta jo hasi zaio. Begirada pantailan jarri duenean, muzin egin du. Alex da. Zalantza egin du, baina azkenean hatza lerratu du pantailatik. Alexek, kaixo esan, eta zuzenean etorri da harira.

—June, joango al gara herrira gauean? —galdetu dio.

Alarmak piztu dira Junerengan. Burura etorri zaiona izango da deiaren motiboa?

—Denok gelditu gara joatekotan. Ala ahaztu duzu? —erantzun dio, hotz.

—Ez, noski, ez dut ahaztu. Baina biok bakarrik, esan nahi nuen. Hobeto ibiliko gara.

Pikutara bidaltzea pentsatu du June. Azken unean, baina, asmoa baztertu du. Zuhurtziaz aritzea erabaki du, diplomaziaz mintzatu, baina gauzak garbi utziz.

—Hobeto ibili...? Ez dut uste, Alex. Ni ez, behintzat. Egia esango dizut, eta ez gaizki hartu, mesedez. Ez dakit zer asmotan zabilta, baina hobe duzu nirekin denbora galtzen ez ibiltzea. Lagunak gara, eta jarraituko dugu izaten, baina hor bukatuko da dena.

—Eta zergatik saiatu ez? Ez nauzu ezagutzen. Hobeto ezagutuz gero, agian ez zenuke hori esango. Ziur nago.

—Ba oker zaude.

—Ez dizut sinesten. Zatoz gaur nirekin, eta bihar ez zara hain ziur egongo.

Pazientzia galtzeaz egon da June. Baina ahalegina egin, eta burura etorria ezpainetan gelditu da jalgi gabe. Aurreko tonu lasaian jarraitu du mintzatzen.

—Berririo esango dizut, Alex, lagunak bezala ongi gaude. Ahaztu beste kontuak.

—Zuretzat kalte.

—Zer egingo dut. Gauzak argi ditut, Alex, oso argi

—Ez dut uste. Ala nahiago duzu Iker maritxu horrekin tontakerietan ibili?

—Et, et, et! Ez hasi gauzak nahasten, mesedez. Ikerrek ez du zerikusirik kontu honetan. Ez berak eta ezta beste inork ere.—June gogait eginda dago eta, jarraitzeko gogorik ez, deia etetea erabaki du—. Hara! Moztu beharra daukat, ama deika dut. Agur.

Gezurak amaiera ipini dio solasari. Deia eten eta gero, pantailari begira gelditu da, pentsakor. Ez daki zer haizek jo du Alexek. Dakiena da alferrik dabilela.

—Ba, jai duzu! —pentsatu du, ozenki.

Hori esan eta bere ingurura begiratu du, amak aditu egin ote dion. Ez dabil inguruan. Hasperen egin du. Gero, gogoetak alde batera utzi, eta berriz ere murgildu da irakurketan.

Txupinazoak jendetza handia bildu du herriko plazan. Eztandarekin zoramena hasi da. Txaranga baten aurretik jendetza su artifizialak bota behar duten alderdirantz abiatu da. Hasi da ikuskizun zalapartatsua. O!, oihuen artean kolorez jantzi da zerua. Bukatu denean, ikusleak herrigunera itzuli dira. Herriko plaza eta inguruko kaleetan barreiatu da jendea. Plazan

musika-talde bat jotzen hasi da. Ez da Juneri gustatzen zaizkion estilokoa, baina giro ona jartzen du.

Pixka bat entzuten egon ondoren, barrakak dauden aldera bideratu dira lagunak. Ez dira denak iritsi. Bidean bitan zatitu da taldea. Lagun batzuk, Alex buru, atzean gelditu dira. Begirada esanguratsuak egin dizkio Alexek Juneri, keinuren bat ere beraiekin joan dadin, baina ezikusiarena eginik beste taldekoekin gelditu da. Alex gabe gustura gainera.

Leire Alexen atzetik joan da, oiloa oilarraren atzetik bezala, pentsatu du Junekek.

Herriko gazteek jarritako txosnan elkartu dira geroago. Lagunak pasatu samarrak datozela iruditu zaio Juneri. Leire batez ere. Alexen besotik helduta dator, eta barre-algara lerroak egiten ditu. Elkartu direnean, aske utzi du mutilak. Balantza egin du Leirek, eta berriro heldu egin behar izan dio mutilari. Barre egin du Alexek. Gero isekari mintzatu.

—Hara, lurrikara bat! Kontuz, Leire, oinazpian duzu. Kar, kar, kar!

—Ez dakit zer zeukan zurrakapote horrek —Leirek mihia lodituta dauka, eta trabatu egiten zaio.

—Coca-Cola balitz bezala edan duzu eta gero kontuak —Alexek, burlaz.

—Zuk ekarri duzu. Orain lagundu, zure besoetan pasatuko zait. —Besotik heldu dio Leirek.

—Bizitzan bakarrik moldatzen ikasi beharko duzu. Ez zara ume bat, hamabost urte dituzu.

Hitzek mindu dute Leire. Juneri begiratzen dio, eta serio mintzatu da.

—Junekek eskatuko balizu ez zenuen hori esango. —Lotsa galduta eta mihia lasai ditu Leirek.

—Leire, sartu mihia zuk dakizun tokian, bale? —Junekek.

—Tira, Alex, esan egia. Nik baietz esango nuke.

Haserrea azaldu da Alexen aurpegian. Leireren iradokizunak buru-estimua mindu dio. Besotik askatu, eta bultza egin dio. Balantza egin du Leirek, eta Ikerrek eutsi diolako ez da lurrera erori. Alexek ez du aukera alferrik galdu, oraingo honetan Ikerrekin sartzeko.

—Hara, Iker ausarta etorri zaizu salbatzera, lagun-taldeko mutilik bulartsuena. Zorte ona zurea, Leire. —Txantxa bitartez hustu nahi izan du amorrazioa.

Leire zurbildu da. Amorruek, nonbait, goragalea eragin dio. Ikerrek lagunduta, pausu batzuk eman, eta burua pareta baten kontra jarri du. Sabelaren aurreneko erasoan haizea baino ez da atera bere ahotik, korrokada ozenak. June hurbildu zaio bikoteari.

—Lagunduko dizut, Iker, botaka egin behar du eta. Eraman dezagun kale ilun horretara. Sabela hustu eta gero, hobeto sentituko da.

Kale kantoian hustu du sabela Leirek. Gogotsu eta zaratsatu egin du oka. Ia-ia gibela bota arte. Barrena hustu eta gero, burua makurtuta jarraitu du. Negar-zotinka dago orain. Festa amaitu da Leirerentzat.

—Bukatu al duzu? —galdetu dio Junekek. Leirek buruarekin baietz esan—. Tira, ba, orain ahoa freskatzeko ura edo zerbait hartuko duzu, eta hobeto zaudenean, etxera lagunduko dizut.

—Zuekin noa —esan die Ikerrek.

—Ideia ona, Iker —Alex hurbildu zaie—. Baina zu bakarrik. Zu joateagatik festa ez du ezer

galduko. June, seguru asko, parranda egiteko gogoia izango du
Juneri begiratu dio Ikerrek, begiradaz zer egin galdezka, beldurra begietan. Alexen harrokeriak
sutan jarria badu ere, June eutsi egin dio haserreari, erantzun egokia prestatzen aritzeko.
Azkenean, buruarekin baiezko keinua egin dio Ikerri.

—Zoaz Leirerekin, Iker, berehalaxe elkartuko naiz zuekin.

Joan dira. Eta joan direnean Alexi mintzatu zaio.

— Alex, zu ez zara nor bestei zer egin behar dugun esateko. Ulertzen? Zu ez zara besteok
baino gehiago taldean, bestela uste baduzu ere.

Une batez hitzik gabe egon da mutila. Laster haserre mintzatu.

—Eta zu? Nor zara zu saltsa guztietan sartzeko? Zer esan diozu Leireri esan duena esateko?

—Nik esan...? Ezer ere ez, ez onik ez txarrik. Eta orain utz nazazu bakean. Agur!

Urrats batzuk besterik ez ditu eman. Alex atzetik joan zaio, eta kaleko zoko batean harrapatu
du. Aurrea hartu eta bidea oztopatu dio.

—Zer esan diozu Leireri nitaz? E!

—Esan dizudana: ezer ere ez!

—Nik baietz esango nuke. Eta kontuz ibili. Nik ez dizut ezer egin nirekin sartzen ibiltzeko. Zer
arraio gertatzen zaizu? Ez zara lesbiana izango, ezta? —Begiak diz-diz dauzka Alexek.

—Eta banintz ere, zuri zer? —Beldur da June, baina ez da kikildu—. Ni zurekin sartu... Zurea
aurpegia! Zu zara etorri naizenetik nire inguruan dabilela, eulitzarrak kaka inguruan bezala.
Utzi bakean!

June joateko keinua egin du. Ez du lortu. Mutila erne ibili da, eta besotik helduta galarazi
egin dio. Jarraian mugimendu azkar batekin hormaren kontrara eraman du. Bere besoen
artean gelditu da harrapatuta June. Alexen arnasa epela sentitzen du aurpegian. Mutilaren
begietan amorrazioa eta desira ikusi ditu islatuak. Eta estutu egin da, beldurrak dago, ezin
erreakzionatu. Alex, irribarre maltzurra ezpainetan, makurtu egin da neskaren ezpainen bila.
June burua jiratu, eta mutilaren ezpainak masailean sentitu ditu. Zorabio modukoa sentitu
du. Eta negargura. Horiek guztiek galarazi bide diote garrasi egitea. Zintzurrean geratu zaio
trabatuta. Ikerren etorrera zorionekoa izan da. Asaldatuta etorri da, urduri hitz egiten,
urrutitik mintzatzen.

—June, Leire zorabiatu egin da, eta lurrean dago... —Aho zabalik gelditu bikoteari begira—.
Oi, sentitzen dut! Nik ez nekien... —desenkusaka hasi da.

—Zoaz pikutara, maritxu sudurluze hori! —marru egin dio Alexek, gorrotoz begira.

Ikerren etorrerak ustekabeen harrapatu du Alex, eta June ez du aukera alferrik galdu.
Makurtu eta haren besoen azpitik atera da. Konturatu denerako dozena erdi metrora dago.
Alexek Ikerrengan hustu nahi izan du amorrazioa, ostiko bat medio. Gutxiagatik, baina huts
egin du. Iker, izututa, Juneren ondora joan da. Hirurak elkarri begira egon dira une batez. June
mugitu arte. Leireri laguntzera joan da. Iker atzetik. Alexek buelta hartu eta lagunak dauden
aldera joan da.

—Hitz egingo dugu beste batean —esan du abiatzerakoan. Junek ez daki berari edo Ikerri esan dion.

Leire lurrian eserita aurkitu dute, hankak soinaren kontra, besoekin besarkatuta. Burua belaunetan bermatuta dauka. Ondoan jarri zaio June.

—Leire, zer gertatzen zaizu? —galdetu dio

—Zorabiatuta nago —Leirek erantzun, hitz hari batez.

—Tira, saia zaitez altxatzen eta goazen hemendik. Etxerako bidean pasako zaizu ondoeza.

—Ezin dut, burua bueltaka daukat.

Ingurura begiratu du Junek. Etxera eraman behar dute Leire. Lagunak daude kale-kantoitik begira, baina inork ez du laguntzera joateko zirkinik ere egin. Alexek begiratu egiten die, mehatxuzko begiak.

—Iker, lagun iezadazu Leire altxatzen, eta goazen hemendik. Biok bakarrik konpondu beharko gara.

Leire altxarazi, bien artean jarri, eta abiatu egin dira. Urruntzera doazela Alexen ahotsa entzun dute. Lagunei mintzatzen ari zaie.

—Zer, ergel horiek hondatu behar al digute gaua? Doazela pikutara! Goazen txosnetara!

Esaneko joan dira denak Alexen atzetik. June eta Iker, Leire besoetatik helduta bien artean, urbanizazio aldera abiatu dira. Bidean dagoen parkean, geldialdi bat egin dute, han dagoen iturriaren ondoan. Iturriko ur hotzak eta minutu batzuetako egonaldiak eragina izan dute Leirerengan. Ez da guztiz bere onera etorri baina arestian baino hobeto dago. Abiatu dira berriro, paseotxoaren ere ez zaio gaizki etorri, eta nahiko itxuroso iritsi da etxera. Junek ahalik eta zarata gutxien eginez ireki dio atea, barruan sartzen lagundu, eta sartu bezala irten da, isil-isilik.

Ikerrengana itzuli da. Zain du, espantuzko aurpegiaz begira. Etxera joan aurretik, gauzak garbi uztea erabaki du Junek.

—Iker, kale-kantoian ikusi duzunak ez du batere zerikusirik errealitatearekin. Nahiaren kontra nindukan hormaren kontra zerrikume horrek. Eskerrak azaldu zarela. Kabroi nazkagarria! Ez da ezer larririk gertatu, eta ez dut iskanbilarik nahi. Dena dela, benetan, hau lehen aldia izan da, eta azkena izango da. Berriro pasatzen bada, ez zaio debalde aterako.

—Egia esan, harrituta gelditu naiz biok horrela ikusita. Besarkatuta zeundetela iruditu zait. Hala ere, niri ez didazu azalpenik eman behar, June.

—Badakit, baina hobe gauzak garbi eduki, gaizki-ulertuak ez izateko. Nazkante horrek pentsatzen du neska guztiok bere besoetan egoteko irrikan gaudela. Baina ez da horrela, nirekin jai du. Harroputz halakoa! Gaua hondatu digu. Tira, zer egin... Goazen etxera, Iker. Mila esker laguntzeagatik.

Abuztuak 10, igandea

June eta bere aita portxean daude irakurtzen: June eleberri bat; aita, egunkaria. Amak irakurketan murgilduta topatu du bikotea etxe barrutik irten denean. Aldizkari bat dakar besapean eta bien artean eseri da.

—Bart ondo, June? —galdetu dio.

—Bai, giro ona zegoen —June, tonu neutroan, erantzunari enfasi eman gabe.

—Ez dakit ba, hainbeste berriketak itzultzeko orduarekin eta jarritakoa baino lehenago etorri zinen etxera.

—Bai, hala da, nekatuta nengoen.

—Harritzekoa. Ez zoaz igerilekuetara?

—Liburu hau bukatutakoan joango naiz. Gutxi falta zait.

Bukatu arte ez du liburua eskuetatik uzteko asmo. Misteriozkoa da. Bukatzeko gutxi falta zaio eta oraindik gauza asko du argitzeko. Eta, jakina, argituak ikusteko irrikan dago.

—Gaur, San Lorenzo —esan du aita, halako batean.

—Bai, herriko festak, egun handia gaur —gaineratu amak.

—Ez nuen horregatik esaten —aitak, zango gainean zabaldua daukan egunkaritik begirada jaso—, gaur gauean ozar-izarrak ikusteko aukera dagoelako baizik. Egunkariaren arabera uztaila erdialdetik abuztuaren 24 arte egunero gertatzen den fenomeno da. Baina handiena eta ikusgarriena gaur ohi da, San Lorenzo gauean.

—Zer dira ozar-izar horiek? —galdetu dio June.

—Izar iheskorak, kometa baten hondarrak. Atmosferan sartzen direnean desegiten dira, eta zerua zeharkatzen dute ñirñirka. Pertseidak izenarekin ezagutzen dute astronomoek. “San Lorenzoren malkoak” ere esate diete. Eta izen gehiago ere badituzte.

—Ikuskizun polita izango da —esan du June, begiak liburutik bildu gabe.

—Horixe ari nintzen pentsatzen —aitak—. Ba, gaur gaueko hamarretatik hamaikak arte, berrehundik gora erortzen ikusteko aukera dagoela, dio egunkariak. Eta giroa ezin hobea da ondo ikusteko: zerua oskarbi dago, ilgora hasi berria, eta ekialdeko haizetxoak atmosfera garden dauka.

—Terrazatik Ikusiko ditugu —amak

—Terraza ez da behatokitik onena. Kaleko argitasunak ez digu behar bezala ikusten utziko. Hobe menditik, argi artifizialik ez dagoen toki batetik.

Juneren aita mendialdera begiratu du. June ere bai. Haren berdetasuna kontrastatu egiten du lautadako soroen horixkarekin. Aita sarri joaten da hara. June ere behin baino gehiagotan joana da berarekin. Bazter politak daude mendizerra horretan, basati samarrak.

—Arrano-haitzetik ikusiko dira ondo —aitak berriro.

—Ez duzu gauez joatea pentsatuko, ezta? —amak.

—Zergatik ez. Autoz joan gintezke meategira doan pistatik gora eta azken zatia oinez egin

dezakegu. Kopetakoa eta eskuko bi linternekin ez dugu iristeko arazorik izango.

—Ba ni ez noa. Gauez ez —andreak.

—Eta zu, June, zu ez zara animatzen? —galdetu dio aitak.

—Herriko festak dira, aita, ez dakit gaur zer egingo dugun lagunok. Hala ere, ikuskizun polita izango da, eta ez dakit... Arratsaldean esango dizut.

June ez dauzka gauzak garbi. Erakargarria da aitaren proposamena, oso, baina baita gaueko parranda ere. Bezperakoa gaizki aterata, gaur errebantxa hartzea nahiko luke. Alexek bakean uzten badu, behinik behin.

June amaitu du irakurketa. Liburua aldamenean utzi duenean aitak esandakoa etorri zaio gogora, eta pentsakor egon da. Gustatzen zaio terrazatik izarrak ikusten egotea. Behin baino gehiagotan egoten da begira. Kilika ere sentitzen du batzuetan unibertsoaren zabaltasunaz pentsatzen. Hori dela eta, aitak proposatutakoa erakargarria iruditzen zaio. Baina herriko festak ere bai, jakina. Beraz...

Liburua gelara eraman, motxila hartu, eta igerilekuetarantz abiatu da.

Sarreran gelditu egin da, zerbaitek atentzioa emanda. Zoko batean Alex eta Iker ikusi ditu. Hitz egiten ari dira. Edo, hobeto esan, itxuraz Alexek erretolika botatzen Ikerri. Hori iruditua zaio behintzat. Ezkutatu eta begira geratu da. Erretolika bukatuta, Iker zakar baztertu du Alexek, eta igerilekuetarantz abiatu da. Iker atzetik, burumakur.

Bikotea bistatik galdu arte ez da ezkutalekutik irten June.

Xukaderetan etzanda aurkitu ditu lagunak, bezperako kontuekin barre egiten. Leire umore onean dago. Bera ez zen izan neurritik pasatutako bakarra; baina, antza denez, Irenen baino zorte hobea izan zuen. Izan ere, Leireren gurasoak ez ziren ezertaz konturatu; Irenenak, aldiz, bai, eta zigortuta dago, gauean etxetik atera gabe. Alexek, ordea, ez du Irenetikik batere enpatia azaldu. Aitzitik, barregarri iruditua zaio.

—Hurrengoan Coca-Cola light edan beharko duzue —esaten die—. Edo erneago ibili etxera sartzerakoan. Dena dela, ez nuen uste hain makalak zinetenik.

Begirada hilkorra egin dio June. Beti bezala, Alex besteen lepora barre egiten ari da, eta okerrera dena, neurri batean berak arazoetan sartu eta gero. Edo sartzeko bidea zabaldu eta gero. June, hala ere, ez du ezer esan, beretzat gorde ditu burutazioak. Ez du sesiorik nahi Alexekin. Ikerri begiratu dio. Horren jarrera ez zaio normala iruditua. Bigarren mailan mantentzeko ohitura du normalean, isil samar egoteko, batik bat Alex badago; baina taldetik at dagoela ematen du, gogoan auskalo non. Junerengatik aparte mantendu da, eta, gainera, June begiratu dionetan begirada desbideratu egin du. Jarrerak, esan beharrik ez dago, gogora ekarri dio lehen ikusitakoa. Eta susmo txarrak piztu, noski.

Igerilekutik iren direnean June eta Leire etxe aldera doaz.

—June, milesker atzokoagatik —esan dio Leirek, halako batean—. Ez dut ezer gogoratzen, baina uste dut pasatu nintzela zurekin. Eta, hala ere, zuk lagundu. Barkatu!

—Lasai, Leire, baina kontuz ibili hurrengoan zer edaten duzun.

—Zakarra jarri omen nintzen...

—Bai, nahikoa.

—Ez dakit zer esan nizun, ez dut gogoratzen.

—Ba orduan nik ere ahaztu egingo dut. Zer edan zenuten? Pasatu samarra zeundeten, zu eta Irene batez ere.

—Zurrapapote. Alexek ekarri zuen, ez dakit nondik lortuta. Sekulako martxa eman zidan.

—Gasolina bukatu zitzaizun arte. Eskerrak zure gurasoak ez direla konturatu, bestela...

—Uf, eskerrak! Ez dut pentsatu ere egin nahi nolako erretolika botako zidan amak —esan dio, eta amaren ahotsa imitatuz jarraitu du, isekaz—. Hara, betikoa, Junek ondo eta zuk pena ematen duzula; Junek nota onak, zuk beti erdipurdikoak; Junek ingeles maila ona eta zuk lardaska aritzeko baino ez... Amorrueginda nauka.

—Aizu, Leire —June, gelditu, eta aurre egin dio—, ez zara niri ezer leporatzen ariko, ezta? Ez da nire errua gure amak elkarri kontu-kontari ibiltzen badira. Nik behin ere ez dut ezer esan edo egin zu gaizki uzteko, ezta burutik pasa ere, garbi izan.

—Bai, baina...

—Zer esan nahi duzu baina horrekin? Berrito esango dizut, Leire: ni ez naiz ez zureak ezta beste inoren kontuak airatzen ibiltzeko zale, ez etxean ezta kalean ere. Bale? Ba, mesedez, ni ez nahasi gure amen kontuetan.

—Bai, baina ez dakit nola esan, beti zu tartean... Eta Alexekin ere...

—Alexi dagokionez ni bazter egon nahi nuke, ongi dakizu, eta saiatzen naiz gainera. Dabilen bezala badabil ez ez da nire errua.

—Bale, ez da izango, baina zu baldin bazaude besteok soberan daudela ematen du. Eskerrak ematetik tonu zakarrean hitz egitera pasatu da Leire. Haren etxe parean daude hori esan duenean, eta Juneri erantzuteko aukerarik eman gabe, lorategiko atea zeharkatu eta bizkor joan da hartxintzarrezko bidetik etxera. Buruari eragin dio Junek, Alexek itsutua du, alferrik da esatea nolakoa den. Eta gainera, ziur asko, gaizki hartuko luke. Zer egin...

Etixerantz abiatzera zihoala Iker datorrela ikusi du. Itxaron egin dio. Elkartu direnean, deseroso bezala susmatu du mutila.

—Iker, zerbait egin al dizut? —galdetu dio.

—Niri? Ez. Zergatik esaten didazu hori? —Ikerrek, lurrari begira.

—Ez dakit ba. Ihes egiten didazula iruditzen zait. Eta, gainera, kezkatuta ikusten zaitut.

Ez dio aipatu igerilekuen sarreran ikusitakoa, nondik jotzen duen ikusi nahi du. Baina Ikerrek

ez du ezer esan, eta zuzenean aritzea erabaki du June.

—Iker, zer nahi zuen Alexek?

—Alexek? Noiz? Zergatik galdetzen didazu?

—Igerilekuetako dutxen ondoan ikusi zaituztet berriketan. Edo, Alexek zuri kontu hartzen, esango nuke.

Ikerrek gorritu ez du ezer esan. Isilune bat. June Ikerri begira-begira; Iker, burumakur, begiak apalduta.

—Tira, Iker, lagunak gara, ezta? Hitz egin dezagun argi. Eta ez izan beldurrik. Bion artean geldituko da.

Apur bat kostata ere, azkenean adoretu da mutila, eta argi mintzatu da.

—Alexek ez du ondo hartu bart egin nuena, zera, zuri lagundu Leirerekin. Kontuz ibiltzeko esan dit. Eta hobe zure inguruan ez.

—Hori esan al dizu? Nire inguruan ez ibiltzeko?

—Bai. Ez dakit burutik ondo dagoen. Zer egin diot nik, ba?

—Ezer ere ez. Nirekin ligatu nahi eta ezin dabil, eta biok nahiko ondo moldatzen garela ikusita, ba ez dakit, amorrazioa husteko edo ni mintzeko, zu aukeratu zaitu.

—Ez da jeloskor egongo, ezta? —harriduraz begiratu dio Ikerrek, aurpegia gorri-gorri.

—Ez du motiborik. Dena dela, ez nuke ezetz esango. Gutxi ezagutzen dut, baina harrokeria soberan duela, esango nuke. Beharbada, duen itxuragatik, bere burua gu baino maila bat gorago ikusten du. Horregatik izango da. Nirekin ezin du, eta zu nahi du zirikatu, ni mintzeko edo. Ez dut uste buruak gehiagorako ematen dionik.

—Hori izango da. Bestela ez dakit zergatik. Gaur gauean etxean gelditzeko, esan dit, lagunetara ez azaltzeko.

—Eta...?

—Ez noa, June. Bestela ere, atzokoa ikusita, ez nuen gogo handirik. Baina orain batere ez. Ez dut istilurik nahi.

—Ez naiz harritzen. Hala ere, ez dut uste horrekin ezer konpontzen duzunik.

—Bai, baina... Eta zuk? Joan behar al duzu? Zure atzetik badabil, utziko al zaitu bakean?

—Hortxe dago koska! Ez dakit. Baina ezetz esan diot, eta ez dakit etsia hartu duen. Buru-estimua minduta nonbait.

—Eta, horrela dabilela, gauean herrira joateko gogorik duzu?

—Ez gehiegi. Ikusiko dut. Baina garbi daukat ez naizela Alexen aurrean kikilduko.

Banandu dira. June amorratuta doa, kezkatu samarra ere bai, arazoa ez baita konponerraza.

—Zer erabaki duzu, June, joango al gara mendira gauean? —galdetu dio aitak, bazkalostean.

—Oraindik ez dakit, aita, gero esango dizut.

—Herriko festak gustukoagoak, ezta?

—Bai, noski. Baina ez pentsa, zalantzak ditut. Esango dizut.

—Nahi duzuna egin. Zurekin edo zu gabe, nik joan behar dut.

Bazkalostean zalantzak bazituen ere, arratsaldean desagerrarazi egin zaizkio. Iker ez da azaldu, eta Alex apal eta adeitsu ibili da berarekin. Azken saioa prestatzen ote? Susmo hori hartu dio Junek mutilaren jarrerari, behartua eta faltsua. Areago oraindik barkamena eske etorri zaionean.

—June —esan dio, inguruan lagunik ez zegoen une batean—, atzo apur bat pasatu nintzen zurekin. Festetan badakizu, ez dut esango normala denik, baina ezta arraroa ere. Baina ez nuen asmo txarrik.

—Ez zenuela asmo txarrik? Eskerrak, bestela ez dakit zer egingo zenukeen, bertan bortxatu edo.

—Nola jartzen zaren! Bale, pasatu nintzen pixka bat, baina ez zen ezer gertatu, ezta?

—Pixka bat? Zuretzat pixka bat izango da, baina niretzat ez, inola ere ez. Ala uste duzu edonorekin aritzen naizela musuka? Nortaz nauzu?

—Aizu, ez nazazu sartu ni edonor horien artean. Berriz ere esango dizut: barkatu. Ez da berriro gertatuko, zuk nahi ez baduzu, behintzat.

—Berriz ere lelo horrekin? Burugogorra zara, demontre! Uste dut gauzak argi utzi nizkizula atzo. Baina berriro esango dizut, ea buruan behin betiko sartzen zaizun, nirekin jai duzu. Eta barkatu esateko modua, baina temoso jartzen ari zara, arraioa!

Lagunak hurbildu zaizkie, eta hortxe amaitu da elkarrizketa. Gauean elkartzeko ordua jartzen aritu dira lagunak. Junek ez du erabakian parte hartu. Zalantzak bazituen, Alexekin izandako hizketaldiak ezabatu egin dizkio. Aitarekin joango da mendira. Baina ez die ezer esan lagunei, Leireri deituko dio azken momentuan, bere zain egon ez daitezen.

Esan dionean, aitik pozik hartu du alabaren erabakia, eta berehala ekin dio txangoa antolatzeari. Zereginean dagoela, Iker etorri zaio burura Juneri.

—Aita, inporta al zaizu gurekin lagun bat baletor —galdetu dio—. Ez diot ezer esan, baina seguru asko gustura etorriko da izar-jasa ikustera.

—Gurasoek uzten badiote, nigatik ez dago arazorik.

—Oraintxe deituko diot.

Esan eta egin. Deitu eta azaldu dio gauerako duen plana. Iker, alde batetik lotsati delako, eta, beharbada, Alexen beldurrez, zalantzan gelditu da, isilik. Junek, nola dagoen ikusita, lagundu nahi izan dio.

—Iker, zerbait berezi egiteko aukera polita dugu, gauez mendira joateaz gainera. Zure gurasoei nire aitarekin goazela esaten badiezu, ez dut uste eragozpenik jarriko dizutenik. Bestalde, aizuz, guk ez dugu egiten dugunaz inori kontu ematen ibili beharrik. Ez duzu uste? Azkenean amore eman du Ikerrek.

Autoa mendizerrara doan pista ondoan aparkatuta utzi ondoren xenda estu batetik abiatu dira mendian gora Arrano-Haitz gailurrerantz. Juneren aita ongi ezagutzen du bidea, eta, haren esanean, ordu erdi inguruko ibilaldia dute. Abiatu direnean argia motela da eta linternak piztu gabe joan dira. Tontorraren oinera iritsi direnean piztu egin behar izan dituzte. Gailurrera iristeko azken metroak oso pikoak dira eta dagoeneko ilundu du. Arazorik gabe iritsi dira gailurrera. Harrizko plataforma bat da, estu samarra, baina nahiko eroso. Arnasa lasaitu bitartean, gaugiro atseginak lagunduta, gozatu egin dute ikuspegi paregabeaz.

—Bista polita, ezta? Goitik eta behetik... Alde guztietatik! —esan die Juneren aita.

Hala da- Zerua izarrez beterik dago, gertuenak ñirñirka, urrutienak multzo argitsueta lauso. Mendia silueta ilunez beterik dago, batzuk geldi daude, bestetuk kulunkan, haize epelak jarri. Herrien argiak ikus daitezke haranean sakabanatuak, gauak zabalduko mantu beltzean orban hitsak direla.

June eta Iker, lehenengo aldia mendian gauez, alde guztietara begira-begira daude.

—Arrazoi zenuen, aita —esan du June, isiltasuna hautsiz—, gauak zerbait berezia ematen dio mendiari. Misterioa edo... Ez dakit nola esan, sorginak, iratxoak, elfok eta horrelakoak existitzen direlako sentzioa.

—Begira ezazue zerura, han dago Hartz Nagusia eta harago Hartz Txikia konstelazioak. Eta hor Iparrizarra antzina-antzinatik gizakien gaueko gidaria —esan du Ikerrek, besoa luzatuta zeru izartsurantz.

Harrituta begiratu diote aita-alabak. Iker konturatu da eta jarraian hasiera eman dio astronomia hitzaldi labur bati. Aho zabalik utzi ditu aita eta alaba. Garbi utzi du gaia gogoko duela. Eta baita nahiko jorratua ere.

—Aizu —esan dio Juneren aita—, non ikasi duzu hori guztia? Eskolan ez, ziur nago.

—Ez, eskolan jakin-mina piztu zitzaidan, natura-zientziak ikasten hasi eta berehala. Baina bestea nire kabuz ikasi dut. Askok gustatzen zait unibertsoarekin zerikusia duena, eta Internetek aukera eman dit nolakoa den ikusteko eta ikasteko.

—Ez duzu esan beharrik —June.

—Hara! Hasi dira izar iheskorak azaltzen. Han! —Juneren aita, besoa luzatuta.

Begirada zeruan kokatuta ikusi dituzte izarloak zeru-sabaia zeharkatzen. Abiada handian eta distiraka zeharkatzen dute, unibertsoan ñirñirka dauden benetako izarrei lehia egiten. Minutuak aurrera joan dira, eta ikuskizuna ez da eten, ederrago bihurtu da. Hori dela eta behin baino gehiagotan oi!, oihua atera da, hirukotearen ahotik. Horrela egon dira izar iheskorren kopurua gutxitzen hasi arte. Denbora bizkor joan zaie.

—Ikusgarriena laster bukatuko da Zuek gera zaitetze hemen ikusten. Ni beherago noa, haranari argazkiak egitera. Laster nator —esan du Juneren aita—.

Bidexkan behera joan da. Kopetari itsatsia daraman argia gailurraren behe aldeko zuhaitzen

ostean galdu denean zerua arakatzeari ekin diote berriro Junek eta Ikerrek. Izar iheskorrek zerua zeharkatzen dute oraindik, baina dezente urritu dira.

—Begira ezazu hori, June, hor behean —esan dio Ikerrek, halako batean.

Begiak zerutik bilduta, mendialdera begira dago Iker, gailurretik behealdera. Lagunak seinalatzen dion aldera begiratu du Junek. Iluntasunean sakonune beltz bat antzeman du, besterik ez.

—Begira zer? Zulo beltz handi bat ematen duen alderdi horren aldera? —galdetu dio.

—Bai. Argi bat bezalakoa ikusi dut mugitzen, urruti samar oraindik.. Edo iruditu zait, ez nago ziur. Bai, bai, hor dago! Ikusten duzu orain?

—A, bai, orain bai. Kotxe bat izango da. Geldi dator.

Iluntasunean sumendi baten kraterra ematen duenean argi bat mugitzen ikusi dute, sigi-saga, landaretza artean. Denbora gutxi barru, lurrak irentsita bezala, desagertu egin da.

—Zer izango zen?—Ikerrek.

—Esandakoa, autoren bat —Junek.

—Bai, horrelako zerbait. Baina ordu hauetan....

Horretan gelditu da kontua. Laster, ordea, zarata bat aditu dute. Motor baten zarata. Oraingoan ibilgailu baten argiak direla baieztatu ahal izan dute. Mendia zeharkatzen duen pistatik dator, zalaparta bizian. Gauez eta mendiko pista batean ibiltzeko ziztuan. Hurbiltzen ikusi dute. Argiek irudi politak egiten dituzte ilunpeetan, ezkutaketan jolastu zuhaitzekin, agertu desagertu. Motorraren zarata orroa ematen du mendiko isiltasunean. Sakonunetik gertu pasatu dira.

—Eroa izan behar da mendian horrela ibiltzeko, pista batean eta gauez —esan du Ikerrek.

—Lehen ikusitakoa polikiago zebilen behin-behin —Junek.

—Bai, baina non sartuko zen?—Ikerrek, sakonunera begira.

—Zer zen hori? —Aita azaldu da, arnasestuka.

Ikusitakoa esan diote.

—Gaur egun edozer egiteko gauza gara zorioneko adrenalina asaldatzeko —aitak.

—Nora joaten da hortik? —Jakin nahi izan du Ikerrek.

—Pista mendia zeharkatzen du ekialdetik mendebaldera, errepide sareko bi mendate lotuz. Aurrerago ermitara bat dago. Ekainean erromeria polita egiten da.

—Eta beste horren aurretik argiak mugitzen ikusi dugun pista nora doa? —Junek orain.

—Zulo horretan abandonatuta dagoen meategi batera. Aspaldi dago abandonatua. Ez nago ziur, baina berrogeita hamar urte izan daitezke. Aurrean zabalgun bat dago, garai batean handia, baina orain gehiena sastrakak janda. Izanda naiz hor. Zuloa ez bada ez dago ezer berezirik.

—Ba zerbait zebilen hor behean —Ikerrek.

—Ez harritu. Oraintsu esanda, denetarako gaude gaur egun, ero moduan mendiko pistan autoarekin ibiltzeko, izarrak ikustera mendia etortzeko, edota meazulo baten ondora

zurrutean edo auskalo zertan aritzeko.

—Bai, baina horretaraino etorri zurrutean aritzera... Ez dakit —Juneri tontakeria bat iruditu zaio.

—Nahi baduzue beste batean etorriko gara mehatzea ikustera. Orain etxera itzuli beharko dugu, ikuskizuna bukatu da-eta —Juneren aitak.

Igo bezala jaitsi dira autoraino, poliki ibiliz, argiek lagunduta. Urbanizaziora iritsi direnean, aita etxera joan da eta June eta Iker berriketan gelditu dira pixka batean.

Eta norbaitek ikusi du bikotea berriketan.

Abuztuak 11, astelehena

—Egun on June. San Lorenzoren malkoek merezi zuten parranda galtzea? —galdetu dio amak, nagiak kentzen sukaldera sartu denean.

—Bai, ikuskizun polita izan zen, gutxitan ikusten den horietakoa. Ez naiz damutzen joan izanaz. Parranda egiteko badaude egunak oraindik.

—Aita ere pozik etorri zen.

—Ba gu bakarrik ez, beste batzuk ere mendian zebiltzan, ez dakit parrandan edo. Autoz gainera. Mendi-tontorretik ikusi genituen.

—Bai, zerbait esan dit aitag, eta espero dut zu inoiz ez ibiltzea horrela. Hain txoriburu zareten batzuetan...

—Zuek ere halakoxeak izango zineten gure adinean, ezta?

—Bai zera! Gure garaian...

—Ez zenuten gaur egun guk daukaguna —moztu dio June, bai baitaki zer esan behar dion, askotan entzunda dauka—. Tira, gosez akabatzen nago, goazen gosaltzera.

Gosaldu ondoren irakurtzen egon da. Gatz gutxiko ingelesezko liburua oraingoan. Laster aspertu da. Liburua utzi eta Leireri deitu dio, lagunak non dauden jakiteko. Parkean daude. Hara bideratu da. Iritsi denean, Ikerren lepotik barre egiten aurkitu ditu. Oraingo honetan, Irene eta Alexen txantxak direla medio. Ez dira bere etorreraz ohartu eta taldearen atzealdean gelditu da, susmo txarrek hartuta.

—Izar iheskorrak ikusten. Hau da hau! —dio Alexek, Ikerri burlaz begira—. Juneren besoetan apika? Zu bai erromantikoa! Dena dela, harrituta nago, ez nizun-eta neskazaleztat hartzen.

Lagunek barre-algaraka hartu dute Alexen ateraldia. Biak bakarrik eta berandu.

Irene, aurreko gaueko mozkorra zela-eta, zigortuta zegoen etxean, amorratuta lo ezin egin. Leihotik begira zegoela, Iker eta June hizketan ikusi zituen, menditik itzuli ostean.

—Juneren aita etxera joan zelako —protestatu du Ikerrek—. Eta hizketan ari ginen, besterik ez.

—Hara, gure mutil beroa! Ez zineten zirri egiten ibiliko kale erdian, ezta? —Alexek burua Ikerrenganantz makurtu du, belarrira mintzatzeko—. Berriketak alde batera utzita, ahaztu al duzu esan nizuna? —esan dio ahapeka.

June eztabaidan sartzea erabaki du.

—Egia esaten ari da Iker —esan du, lagunak ezustean harrapatuz—. Nik deitu nion aita eta nirekin mendira joan nahi al zuen esateko. Baina bestela balitz ere, zer axola zuri, Alex? Gure joan-etorrien berri eman behar al dizugu? Eta zu, Irene, ez nekien horren kuxkuxeroa zinenik. Edo, horren maltzurra, ez dakit zer pentsatu. Ez da izango merituak egiten ari zarela Alexen aurrean? —maltzurki bukatu du June.

Juneren ziztadak ustekabeen harrapatu du Irene. Gorritu egin da, lotsaz eta amorruz, baina ez du txintik esan. Denak isilik egon dira eta June erasoaldia muturreraino eramatea erabaki

du.

—Eta zu, Alex, ez zara jeloskor egongo? —

—Jeloskor ni...? Bai zera! —Gorrotoz begiratu dio.

—A, ez? Ez dakit ba, ez nuke ezetz esango.

—Kontuz mihiarekin! —Bere onetik atera da Alex—. Mutila ez zarelako, bestela...

—Mutila ez naizelako... Gezurretan ari naiz akaso? —lagunei begira June.

—Zoaz pikutara! Harroputz mihiluze bat, horixe besterik zara, piperrik balio ez duen neska. Inork ez badizu esan, orain badakizu. Tira, ni banoa, ez dut babo horri gehiago aguantatzeko gogorik —zutitu egin da Alex—. Zer, nirekin al zatozte? —galdetu die lagunei.

Iker izan ezik, besteak bere atzetik joan dira. Urruntzera doazela begira, isilik egon dira Iker eta June. .

—Bera bai harroputza! Neure onetik ateratzen nau. Nazka-nazka eginda nauka —June eten du isiltasuna.

—Bai, baina... Ez nuke nahi nigatik zuk arazoak izatea, June.

—Ni ez naiz zure aingeru guardakoa, Iker, hori uste baduzu. Eta ez dut izateko asmorik ere. Dena dela, egun hauetan Alex begitan hartu bazaitu, neurri batean niregatik da. Gauzak ez zaizkio nahi bezala ateratzen ari nirekin eta zu aukeratu du amorrua husteko. Eta bide batez, beharbada, ni ernegatzeko. Mendeku kaskarra, noski, baina ezin gehiago eskatu buru kaskar bati.

—Bestela ere —Buruari eragin dio Ikerrek, etsipenez—, Alexek nirekin sartzea ez da kontu berria. Eta zu bezala, ni ere nazkatuta nauka. Baina ezin dut ezer egin. Horregatik, eskertzekoa bada ere, ez dakit mesede egiten didazun nire alde agertuz.

—Ez dakit. Baina zer egin dezaket? Zer egin dezakegu? Burua makurtu eta amore eman? Inola ere ez! Hori nahiko luke Alexek.

Pentsakor gelditu dira. Arazoak ez du konponbide erraza. Ikusi behar gauzak nola bideratzen diren. Ikerrek eten du isilaldia, hizpidea aldatuta.

—Atzokoa polita izan zen. Oso ondo pasatu nintzen.

—Ni ere bai, gutxitan ikusten dira horrelakoak —esan du June, eta jarraitu aurretik pentsakor egon da pixka batean—. Aizu,Iker, eta gaur arratsaldean meategi aldera joango bagina? Bizikletaz joan gintezke.

—Meategi aldera? Mendian gora bizikletaz?

—Goraino ezin badugu iritsi, bizikletak bide bazterrean utzi, eta oinez jarraitu dugu.

—Uf! Ez dakit... Eta zer pentsatuko dute lagunek? Alexi ez zaio...

Isilaldi bat egin da. Biak elkarri begira daude. June hitz egin duen arte.

—Pikutara denak! Nahi dutena pentsa dezatela. Niri bost! Lagunei erakutsiko diet ez nagoela prest Alexen aurrean burua makurtzeko, ea zerbait ikasten duten. Ez da erraza izango, baina saiatuko naiz.

—Oraintxe esan duzu, ez da erraza izango. Niretzat behintzat.

—Iker, ezin dugu amore eman, elkar lagundu behako dugu.
—Bai, baina... Beldur naiz. Bestalde, gauzak dauden bezala, ez nuke nahi..., zera, inork pentsatzea zure atzetik nabilela edo. Edo zu nire atzetik... Zeren azken egunetan...
—Tira, Iker, zeu ere ez hasi istorioak imajinatzen. Ez duzu pentsatuko zurekin ligatzeko asmotan nabilenik, ezta? Une honetan, ez zurekin ezta beste inorekin ere. Hala ere, bekatua izango litzateke zurekin gustatuta egotea? Ez zara friki bat, batzuetan ilargian zaudela ematen badu ere. Eta barkatu nire zintzotasuna.
—Barkatuta zaude. Eta eskertzen dizut niganako duzun jarrera. Hala ere...
Isilik egon dira, pentsakor biak. Oraingoan Ikerrek hautsi du isiltasuna, erabakitasunez hitz egiten.
—Pikutara Alex! Meategira joango gara —esan du.

Aldapan gora doaz Iker eta June, sigi-saga doan bidetik meategi aldera. Mihia zintzilika doaz, pedalei kostata ematen. Halako batean, Ikerrek, gehiago ezin, hankak lurlean jarri ditu. Bizikleta utzi eta pistaren bazterrean etzan da, belar gainean. June-k gauza bera egin du. Izerdi patsetan daude biak.

—Porru eginda nago —esan du Ikerrek, lurlean luze-luze etzanda—. Kirola, egia esan, ez da nire lehentasunen artean sartzen. Egiten dudana behartuta egiten dut.

—Ba orain arte ez zara hain gaizki ibili —June-k—. Ni ere nekatuta nago, eta zuri baino gehiago gustatzen zait kirola egitea, baina aldapa hau ez da txantxetako.

—Jarraitu behar al dugu?

—Behin honaino etorri gero... —Aurrealdera begira isilik egon da June. Laster hitz egin du—. Ez zaigu asko falta, Iker. Aurreraxeago bizikletak ezkutatu eta oinez jarraituko dugu bidezidor batetik. Bidea dezente laburtzen da hortik.

—Ez gara galduko, ezta?

—Ez, ezagutzen dut bidea, iaz erakutsi zidan aitak.

Ehun bat metro aurrerago, bizikletak ezkutatu, eta June-k aipatutako bidezidorretik jarraitu dute. Ordu erdi bat geroxeago pistan daude berriro, mendizerraren goialdean, meategiko sakonunea bistan dutela. Ez dago urruti. Arnasa lasaitu bitartean begira egon dira. Dauden metro batzuk harago meategira doan pista dago. Harantz bideratu dira, hartzeko asmoz. Iritsi baino lehen, ordea, ezker aldean bidexka bat ikusi dute. Estu eta sastrakatsu samarra ematen du, baina zuzenean doa meategira.

—Hortik lehenago iritsiko gara —esan du June-k.

—Seguru zaude?

—Bai, seguru nago.

—Ez dakit ba, hain estu eta sasitsu den...

—Tira, Iker, zaude lasai, minutu gutxitan iritsiko gara meategira. Eta aldapaz behera gainera.

Arazorik gabe iritsi dira. Ahoaren aurrean zabalguneko bat dago, garai batean minerala pilatzeko eta

kargatzeko erabilia, orain belar gaizto eta zuhaixken mintegia. Arnasa lasaitu bitartean, ingurua arakatzen egon dira. June batez ere. Ez dute arimarik ikusi: bele batzuk zeruan eta sugandila ugari bide bazterretan, besterik ez.

—Ez du ematen bart hemen inor ibili denik —dio Ikerrek.

—Ez, ni ere horixe ari nintzen pentsatzen —Junek.

—Baina argiak ikusi genituen, ezta?

—Bai, baina... —une batez isilik egon da June, meategiko sarbide ilunari begira—. Aizu, Iker, sartuko gara barrura? Nik, badaezpada, linterna bat ekarri dut.

—Linterna bat? Zuloa sartu? —Ikerrek, kezkaz begira, beldur aurpegiaz—. Ni ez noa barrura, June, klaustrofobia dut. Zulo eta tunel estuak itogarriak gertatzen zaizkit.

—Ba nik sartu-irten bat egin behar dut.

—Nahi duzuna egin. Ni hemen itxarongo dizut.

Zuloari begiratu dio Junek berriro. Lau bat metro ditu altueran, eta hiru bat zabaleran. Zorua harritzkoa da, garaian sartu irten zebiltzan gurditxoan zama eusteko egina. Haiek zebiltzan errailen arrastoak agerian zeuden artean.

—Zer, Iker, ez zara animatzen? —Azken ahalegina egin du Junek.

—Ezetz, June, garbi daukat. Nahiago dut itzalean eserita egon zu etorri arte. Nekatuta nago.

—Ba ni barrura noa. Laster etorriko naiz.

—Kontuz bili.

—Lasai, Iker, kontu handiz ibiliko naiz, lelokeriak egin gabe. Ez naiz oso barrura joango.

Sartu da June meazulora. Sartu eta laster linterna piztu behar izan du. Piztu orduko argi-zurrustak mamu hegalarri batzuk jarri ditu bere buruaren gainean bueltaka. Dadara batek goitik beheraino zeharkatu dio gorputza, eta oihuska bat joan zaio ihes. Lasaitu egin da mamuak saguzarrak direla konturatu denean. Aurretik ikusiak zituen, aitarekin egondako kobazulo batean.

—June, zer gertatzen da? Zer ziren atera diren horiek? Zatoz! —Ikerren silueta azaldu da zuloaren erdian, kanpoaldean.

—Saguzarrak, Iker, ez beldurtu. Linternaren argiarekin hegaka hasi dira eta ikaratu egin naiz. Hori izan da guztia. Zaude lasai.

Izualdia igaroa joan da meazuloaren barrena June. Aurrerago gelditu da. Atzera begiratu: du. Meategiaren sarrera puntu argitsu bat baino ez da. Ilunpeak nagusi dira bere inguruan. Begiraldia amaituta aurrera segitu du. Isiltasuna handia da, bere urratsena beste hotsik ez. Begiak zabal-zabalik doa argiak zabaltzen duen bide horixkaren atzetik. Meazuloa bitan banatzen den toki batera iritsi da: eskuinekoa hesi batekin dago itxita, eta bestea libre. Linternaren argipean azken horrek bihurtune bat egiten duela ikusi du. Pentsakor egon da

pixka batean, jarraitu ez jarraitu. Azkenean erabakia hartu du: bihurgune ostekoa ikusi eta itzuliko da.

Pentsatu eta egin. Bihurgunea hartu du. Hartu orduko, argipean agertu denak lurrari itsatsia utzi du June, bihotza airean, zangoak dardaraka. Linternaren argiak dar-dar egiten du eskuaren erritmoan. Begien aurrean, izan ere, auto bat ikusi du, eta auto barruan bi lagun irudi lausoak. Eternitatea iruditu zaizkion segunduetan auto barrukoei begira egon da, guztiz harrituta, dakusana ezin sinetsi. Barrukoei elkarri begiratu diotela sumatu du. Beldurrak atximur egin dio sabelean. Korrika atera nahi luke, baina ezin du, oinak lurrari itsatsiak baititu. Txundituta begira dago, begiak zabal-zabalik, agerpen baten aurrean bezala.

Auto bat meategi barruan! Eta barru samar sartuta. Begien bistakoa irudikeria bat dela pentsatu du. Edo nahi luke izan, hobeto. Baina, ez, guztiz erreala da, barruan daudenak bi gizaki direla bezalaxe.

Hilobietako isiltasuna dago meazuloan. Orain elkarri begira daude June eta autokoak, hirurak zirkinik egin gabe, guztiz harrituak. Horrela egon dira txoferraren ondokoa mugitu den arte. Atea zabaldu du. Bihotza zintzurrean trabatuta geratu zaio Juneri. Hala ere, ez da korrikan ateratzeko gauza izan, dardara egiteko bakarrik. Jaitsi da. June argia berarengana bideratu du. Argi-zurrustak mutil gazte bat jarri dio bistan. Bere adinekoa, gutxi gorabehera. Mutilak besoa jaso du eta zerbait esan dio. Ez dio ezer ulertu, baina hizkuntza ezagutu du, frantsesez hitz egin dio.

Zertxobait lasaitu da June, baina era berean areago nahasi, ezin ulertuz zer arraio dabiltza bi frantses meazuloan. Auto eta guzti, arraioa!

—Ez beldurtu —esan dio mutilak, orain ingelesez, eta June ulertu dio—. François da nire izena. Zer zabiltza hemen barruan?

—Nirea June —esan dio, eztarria garbitu eta gero, erdi totelka—. Zer nabilen... Horixe jakin nahi nuke nik, zer zabiltzate hemen barruan, automobila eta guzti. Eta gainera, ez zarete hemengoak.

Oraingo isilaldia luzeagoa izan da, eta bitarte horretan gaztearen laguna irten da autotik. Adineko gizona da, zaharregia mutilaren aita izateko. Familiakoa izatekotan aitona, pentsatu du June.

—Sebastien da, nire aitona —argitu dio mutilak.

June ez daki zer esan, zer pentsatu, surrealista iruditzen zaio egoera. Auto bat, monobolumen bat zehazki, meategi baten barruan. Sakon sartuta gainera. Eta monobolumenekoak aitona bat eta bere iloba.

Ikaragarria! Fikzio hutsa!

Mutilak aitonari begiratu dio, begiekin galdezka, eta zaharrak baiezkua egin du buruarekin.

—Ezkutatuta gaude hemen —esan dio Juneri.

—Ezkutatuta? Zergatik?

Mutilaren azalpenak lasaitu beharrean areago kezkatu du June. Aitonak, konturatuta, hitza

hartu du. Bere ingelesa mutilarena baino markatuagoa da, eta mordoiloagoa ere bai, baina ulertzeko modukoa.

—Luzea izango zen kontatzea —esan du—. Eta gainera zuhurrak izan behar dugu. Gure onerako, eta, gurekin topo egin duzunez gero, zure onerako ere bai. Atzo bi tipok François bahitu nahi izan zuten, eta txiripaz ez zuten lortu.

—Eta zergatik ez zoazte poliziara salaketa jartzera? —Junek ez daki zaharrari sinetsi edo ez.

—Ezin dugu. Guretzat arriskutsu izan zitekeen. Eta ez galdetu zergatik, arazoa korapilatsu samarra da-eta.

—Frantsesak zarete, ezta? Nolatan zabiltzate hemen, Nafarroan?

—Bordeletik gatoz. François arriskuan dago Frantzian, eta bere segurtasuna bermatzeko, atzo, muga zeharkatu genuen Behobian. Baina gu bezala, baita gure etsaiak ere, antza denez, eta gure atzetik etorri dira.

—Horrela bada... Eta zer egin behar duzue orain?

—Itxaron bihar arte, eta gero alde egiten saiatu. Penintsulako toki seguru batera gindoazen, Frantzian utzitako arazoa konponduta egon arte. Baina norbaitek gure arrastoean jarri ditu etsaiak.

—Non dago zure laguna? —Mutilak hartu du hitza.

Galderak harrituta utzi du June. Argibideak eman dizkio mutilak. Meategi barrutik zelatan zeudela, lker eta bera mendian behera ikusi dituzte. Eta barrura etorri dira ezkutatzera.

—Ez genuen uste sartuko zinetenik. Hain barrura ez, behintzat —zehaztu du aitonak.

—Zerbaiten bila sartu al zara? —mutilak.

June bezperakoa kontatu die, Arrano-haitzetik ikusitakoa. Bitxia iruditu zitzaion eta arratsalde pasa meategira etorri omen dira. Bakarrik sartzeko arrazoiaren bukatu du.

—Gure autoaren argiak ziren lehenik ikusi zenituztenak —esan dio mutilak—. Besteak gure atzetik zetozenenak. Eskerrak ez zutela honako bidea topatu. Bizkorregi zihoazelako seguruenik.

—Guk txiripaz topatu genuen —aitonak—. Horrek libratu gintuen jazarleen eskuetan erortzeaz. Baina ez dakit salbu gauden. Tipo horiek arriskutsuak eta gaiztoak dira. Gaizkile profesionalak.

Isiltasuna orain. Hirurak pentsakor. Kanpora itzuli behar du Junek, baina zerbaitek lotzen dio lurrari, garbi ez dakien zerbaitek.

—Hemengo al zara? Ezagutzen dituzu paraje hauek? —Françoisen urratu du isiltasuna.

Ezetz esan dio, ez dela nafarra, gurasoekin oporretan dagoela, haraneko herri nagusian. Harana mendialdea baino hobeto ezagutzen duela esanez bukatu du. Horrezkero, berriz ere isilik gelditu dira hirurok..

—Begira neska —oraingoan aitonak eten du isiltasuna—, zure eskuetan gaude, argi eta garbi esanda. Beharbada ez duzu ulertuko zergatik, baina hala da. Ziur asko hor kanpoan edo bailaran bueltan ibiliko dira gure atzetik dabiltzanak, batek jakin jendeari galdezka. Horregatik,

gehiegi eskatzea izango litzateke, ez duzula ezer ikusi eskatzea? Horixe besterik ez. Guretzat hil edo bizikoa izan liteke zure erantzuna.

—Hori besterik ez bada, itsua naiz, ez dut ezer ikusi zulo honetan, ezta bart ere. Nigatik lasai egon zaitezket. Eta orain joan beharra daukat, laguna zain dut kanpoan. Zorte on.

—Mila esker. Eta barkatu eragozpenak eta ikaraldiak —aitonak.

Sakon hartu du arnasa June, birikak bete-bete egin arte. Gero, eskuaz agur egin, buelta hartu, birikak hustu, eta bizkor abiatu da meazuloaren irteerarantz. Harrituta doa, une batez polizi-nobela baten parte dela sentiazioa du, nola bukatuko den ez dakiela.

Arnasestuka irten da meazulotik June. Kezkatuta aurkitu du Iker.

—June, zer ibili zara hainbeste denbora barruan? Gaizki pentsatzen hasita nengoen —esan dio zuloan agertzen ikusita, ikara begietan.

June ez dio erantzun. Ezin du. Eskuak aldaketan jarri, burua makurtu, eta lurrera begira geratu da. Arnasa berotuta dauka, bihotzak asaldatuta, biak bere onera ekarri beharrean hitz egin ahal izateko.

—Zerbait gertatu al zaizu? Zurea aurpegia!

June hitzik ez. Zalantzan dago, zer egin ez dakiela, gertatua kontatu edo ez. Azkenean ezer ez esatea erabaki du, gerorako utzi, gertatua hotzean pentsatu osterako. Hala ere, zerbait esan beharrean dago estualditik irteteko. Gezurren bat, noski.

—Gehiegi barruratu naiz, eta halako batean beldurra sentitu dut. Estutu egin naiz, eta korrika hasi. Eta hori gutxi balitz, irtetera nindoala ditzosozko saguzarrak berriz ere hegaka ibili dira nire inguruan. Eraso egingo zidatela pentsatu dut.

—Orduan ez nau harritzen horrela ikusteak. Nik kaka eginda egongo nintzateke. Aizu, bazenekien saguzarrek ebola birusa transmititzen dutela?

—Aizu, Iker, bai modu bitxia zurea animo emateko. Hori Afrikan izango da.

—Bai, baina badaezpada ere...

—Orduan goazen lehenbailehen hemendik.

Igo baino bizkorrago itzuli dira dira bizikletak utzitako tokiraino. Giltzarrapoak askatzen ari direla motor hotsa aditu dute. Foruzaingoaren 4X4 bat azaldu da pistan. Mendian behera dator. Beren parean gelditu da. Bi agente jaitsi dira.

—Kaixo gazteak. Zer, arratsaldea pasatzen mendian? —galdetu die batek.

—Meategia ikustera joan gara —esan du Ikerrek, Junerengan alertak piztuz.

—Meategia ikustera...? Ez zineten sartuko, ezta?

June are urduriago jarri da. Zorionez, Ikerri begiratu, eta honek jaso du mezu isila.

—Ez kanpotik begira egon gara.

—Hobe horrela, arriskutsua da sartzea. Aizue, zerbait arraro ikusi duzue hor behean?

—Ez, meazuloaren sarreran saguzar batzuk, besterik ez —esan du June.

Ikerri begirada esanguratsua luzatu dio, isilik egon dadin, beldur baita bezperan ikusitakoa esango ote dien. Baina oraingo honetan ere, mutilak igarri du neskak begiekin bidalitako mezua.

—Zerbait gertatzen da ala? —June berrir, ezjakin-plantarik egiten.

—Ez, ezer larririk ez, zorionez. Artzain batek kexatzera etorri da, bart ero batzuk mendian ibili direlako esanez, auto batekin ziztu bizian. Ikara oraindik guztiz pasatu gabe etorri da. Ia harrapatu egin omen zuten. Bide bazterrera salto egin behar izan zuen harrapatua ez izateko. Urratu dezente omen zeuzkan.

June, badaezpada ere, berriz ere ez dio hitz egiteko aukerarik eman Ikerri.

—Ba meategi aurrean ez dugu inor ibili den arrastorik ikusi —esan du, sendo.

—Tira, ba. Bagoaz. Agur eta ondo pasa, gazteak.

—Zergatik ez diezu esan bart zerbait ikusi genuela? Aipatu duten autoa izango zen seguru asko —esaten dio Ikerrek, foruzainak urruntzera doazela.

—Merezi al zuen? Ez zen ezer gertatu, harramazka batzuk besterik ez omen ditu nekazariak. Ganberro batzuk izango ziren.

—Horregatik.

—Bai, eta? Badakizu nolakoak diren poliziak. Harrapatzen badute, kapaz dira polizia-etxera guri deitzeko, txostenak eta horrelakoak betetzera. Gauza larri bat gertatu izan balitz, orduan bai, esango nieke, baina urratu batzuengatik...

—Bai, agian arrazoi duzu —arrazoia eman dio.

Lasaitua hartu du June. Baina ez horregatik gelditu da lasai, meategiko enkontruak nahasia baitauka, erabat, zalantzaz beteta. Foruzainengana joan liteke kontuarekin. Baina bikoteak garbi utzi dio ez duela polizia arazoan sartuta ikusi nahi. Beste alde batetik, joango balitz, foruzainak meategia arakatzera joan, eta ez balute ezer aurkituko? Orduan zer? A zer barreak egin behar zituzten bere kontura! Txoriburutzat ez ezik, zorotzat ere hartuko zuten: poliziek, gurasoek eta zer esanik ez lagunek. Alexek bereziki.

Jakinarazi dio Ikerri. Eta erabakia egokia hartu dutelakoan joan dira mendian behera.

Afalostean, bere gelara joan da June. Liburu bat hartu eta terrazara irten da irakurtzera. Eseri, liburua zabaldu gabe magalean utzi, eta mendialdera geratu da begira. Lerro ilun bat da urruntasunean.

—Gaur ez zoaz parkera lagunekin? —galdetu dio amak, beheko solairutik goraki mintzatuz.

—Ez, nekatuta nago; eta, gainera, gauza batzuk ikusi nahi ditut Interneten.

—Txateatzen ibili akaso? Kontuz norekin aritzen zaren, e! Eta, zer esanik ez, bidaltzen duzunarekin.

—Ama, ez hasi. Beti lelo berberarekin zabiltza. Ez naiz neska inozoa. Eta ez noa inorekin

txateatzera. Beraz, lasai egon zaitezke.

Kostata ezkutatzen du Juneke nahasmena. Ideiak zurrunbiloka dabilzkio buruan. Ez daki zer egin. Pentsatu du aitari kontatzea meategian gertatu zaiona, eta berak erabaki dezala zer egin. Baina ez du garbi, batere. Azkenean, alde on eta txarrekin borrokan ibili ondoren, isilik egotea erabaki du. Ez dauka bere burua nahaste-borraste batean sartuta ikusteko gogorik. Aurrerago kontatuko dio. Eta, gainera, isilik egongo zela agindu zien meazulokoei. Eta bete egingo du agindutakoa.

Afalostean sarean arakatzen aritu da, Frantziako albisteetan arakatzen, hain zuzen. Azken egunetakoak eta Akitania aldekoetan bereziki, baina ez du bat ere aurkitu meategiko bikotearekin lotzeko modukoa.

Beharbada, pentsatu du, urrutitxo joan da. Ez daki. Dakiena da, arrazoi sendo batek bultzatua ez bada, inor ez dela monobolumen batekin meategi batean sartzen. Are gutxiago aitona bat bilobarekin. Hala ere, erabakitakoa eta bikoteari agindutakoa, ez du ezer ikusi eta ezta inorekin egon.

Eta egun gutxi barru, dena ahaztuta, pentsatu du.

Abuztuak 12, asteartea

Junek gaizki egin du lo. Hamaika aldiz esnatu da eta amets-pila egin du. Txarrak gehienak. Kezkagarriak. Goizaldera nekeak lo sakonean murgilarazi du, eta lo seko dago amak iratzarri duenean..

—Ama, utzi lo egiten, mesedez —protestatu du, begiak ezin ireki.

—Bazkalondoan egingo duzu siesta. Orain jaiki, gosaldtu, eta gero gerokoak. Berri txarrak ditugu.

Tximista batek jota bezala atera da izarapetik June. Ohe ertzean eseri da, eta, bihotza bortitz taupadaka, gela arakatu du. Ez du foruzainik edo antzekorik ikusi, ama beste inor ez dago gelan, eta arindura handia hartu du. Begiak itxi eta sakon hartu du arnasa. Gero, amari musu emateko gogoa etorri zaio. Azken unean, ordea, gogoei eutsi eta itxura normala izaten ahalegindu da.

—Berri txarrak esan duzu? Zein dira berri txar horiek? —galdetu.

—Amona ospitalean dago. Goizean eraman dute, larri samar. Aita laster etorriko da, eta ospitalera joango gara.

—Ni ere bai?

—Ez, aita eta biok bakarrik. Zainketa intentsiboetako unitatean dago, eta ezin du bisitarik izan.

—Hemen gelditzen naiz, beraz.

—Gaur bai behintzat. Bihar ikusi behar. Baina hori ez da dena. Tamalez. Lan kontuak direla eta, aita Bartzelonara joango da arratsaldean, bizpahiru egunez. Beraz, zuk bakarrik moldatu beharko duzu, ni Iruñera joan-etorri ibili beharko dudana. Gaur ere ospitalean pasatu beharko dut zainketa unitatetik ateratzen bada. Zerbait pentsatu beharko dut.

—Horregatik ez kezkatu, ama, ez naiz umemoko bat.

—Badakit. Gaur ilundu arte bakarrik gelditzen zara. Beraz, zintzo ibili, eta zerbait nahi izanez gero, zoaz Leireren etxera. Telefonoz hitz egin dut haren amarekin, eta bazkaltzera joateko esan dit. Ezetz esan diot. Bazkaria prest daukat eta gaur hemen bazkalduko duzu. Bihar ikusiko dugu. Eta, ez ahaztu, zintzo ibili.

—Zoaz lasai, ama, zuk zaudenean bezalaxe ibiliko naiz.

Bazkalondoan kuadrillakoekin joan da ibaira bainatzera. Bizikletaz joan dira, eta ordu erdi bat ibili eta gero, bizikletak eskuan, bide estu batetik jaitsi dira ibai ertzera. Juneren gustukoak dira txango hauek, baina gaur zalantzan egon da, joan ala ez. Arrazoia Alex. Bakean utziko du? Azkenean, joatea erabaki du, ez da mutilagatik lagun-taldetik urrunduko, ez dio gustu hori

emango.

Zortzi lagun joan dira. Iritsi dira ibai ertzera. Xukaderak zabaldu dituzte, eta jolasean aritu dira. Alex, beti bezala, oilartu samar ibili da, baina Junerekin sartu gabe. Leirek eta Irenak, biei lerdea dariela, txalotu egin dituzte Alexen espantuak. Barregarria iruditu zaio Juneri nesken jarrera. Mutilak, berriz, pozik hartu ditu txaloak.

Eguzkia indarra galtzen hasita, herrira itzultzeko prestatu dira. Gauzak jaso, bizkar-zorroetan sartu, eta bizikletak hartu dituzte. Ikerrena ez dabil ondo. Trabatu egiten zaio katea. Begiratu du eta pieza bat lasaituta dauka, ardatzetik kanpo ia. Pedalekin indarra eginez gero, erabat askatuko da.

—Zer arraro —esan du Ikerrek—, lehen ez dut ezer nabaritu. Harritzekoa da.

Susmo batek bultzatuta Alexi begiratu dio June. Karlos eta biok elkarri begira harrapatu ditu, irribarre gaiztoa trukutzen. Alexen lagun mina da Karlos, morroi leiala, bihurrikeriatan lagundu eta tontakeriak txalotu egiten dizkiona. June, gertatu denari buruz ideia bat izan arren, ez du ezer esan. Ez du frogarik bikoteari ezer leporatzeko. Hala ere, ia ziur dago, matxura ez dela halabeharrez gertatu.

—Ba erremintarik gabe ez dago ezer egiterik. —Alex hurbildu da, laguntzera baino Ikerren kontura barre egitera—. Eta ez dakit hemen inork edukiko duenik.

Haserretu da June. Ozta-ozta eutsi dio ahoa etorritakoa esateari. Isilik egon da gauzak okerrago ez jartzeko. Ikerri batez ere.

—Bizikleta eskuan itzuli beharko duzu etxera —Alexek, ironiaz.

—Pistaraino nahikoa izango da, ezta? —Maiderek hitz egin du—. Eta hortik etxera deitu, bila etor daitezten.

Alexek begi txarrez begiratu dio. Iradokizuna ez da bere gustukoa izan. Maidar neska jatorra da, baina ez da polita, beraz Alexek ez dio kasu handirik egiten. Hala ere, Ikerrekin ez bezala, berarekin ez da sartzen.

—Hori egingo dut, bai —dio Ikerrek, etsipenez.

—Estaldura baldin badago, ezta? —Alexek, irri gaiztoaz—. Tira, ni banoa, berandutu egingo zait bestela. Ba al zatozte? —lagunei mintzatu zaie.

Batzuek zalantza egin dute. Baina azkenean, Maidar eta June izan ezik, Alexen atzetik joan dira denak, bide estutik barrena ilaran. Oiloak oilarraren atzetik berdintsu, Juneren aburuz.

—Zer zorte txarra. Niri gertatu behar! —kexatu da Iker.

—Oker ez banago zure zorte txarraren erantzuleak hor aurrean doaz —esan dio June—. Tira, goazen gu ere. Hemen ez dugu ezer egiten eta ez gaude denbora galtzen ibiltzeko.

Pistara iritsi dira. Ez dago estaldurarik telefonoz deitzeko eta kilometro bat inguru ibili behar izan dute izan arte. Dagoeneko iluntzen ari du. Ikerrek etxera deitu du. Berehala joatekotan gelditu da bere aita.

—Nik joan beharra daukat, berandu da —esan die Maiderek.

Eskerrak eman dizkio Ikerrek. Joan da. Bakarrik gelditu dira bera eta June. Pixka bat geroxeago

mugikorra hasi zaio joka. Ama da. Urduri dago. Eta haserre samar ere. Atzerapenaren arrazoia esan dio June.

—Ba Leire dagoeneko etxean dago. Bere amak esan dit.

—Ni ere egongo nintzen, berak egin duen bezala lker mendian bakarrik utzita. Laster noa, ama, lkerren aita etortzen denean.

Amak ez du ezer esan. Lasaiago gelditu da.

—Nahi baduzu zoaz zeu ere, June —esan dio lkerrek.

—Ez, ama lasai gelditu da. Zure aita etorri arte zurekin geldituko naiz.

Etorri denean etxerantz abiatu da June, pedalei indartsu emanda. Etxetik gertu, urbanizazioaren sarreran, istripua izateko zorian egon da. Gogor balaztatu eta hankak lurrean jarrita ikaratuta ikusi du bere ondotik lur orotariko bat pasatzen. Ez du stop-a egin eta ozta-ozta ez du harrapatu. Pasatzerakoan bi lagunen siluetak ikusi ditu leiho tindatuen ostean. Besoak altxatu ditu protestaka. Ibilgailukoek ez diote jaramonik egin, han egon ez balitz bezala jarraitu dute kalean behera. Garaje batean sartzen ikusi ditu, lkerren etxetik gertu.

Etxe horretan bi gizon sartu dira egongelara. Garajetik datoz. Beltzaranak dira biak, gihartsuak, ilunez jantzita biak. Jaka arinak erantzi dituzte, eta besaulki baten gainera bota. Pistola bana daramate gerriaren atzealdean. Tatuajeak dituzte besoetan. Bekozko ilunak ikusita haserre datozela ondoriozta daiteke.

—Ez dakit non arraioa sartu ziren, Roland. Gezurra dirudi monobolumen horrekin nola lortu zuten ihes egitea. Non eta mendian, gainera. Oraindik ezin dut ulertzen. Eta hori gutxi balitz bezala, gasolina-zerbitzugunean jarri genion igorgailua ez du seinalerik bidaltzen. Ez da matxuratuta egongo, ezta? Hau da hau! Eskura eduki genuen bikotea, eta orain auskalo non. Hau nazka!!

—Igorgailuaren seinalea, Marcel, nire telefonoari lotuta dago. Estaldura barruan egon behar dute biek, derrigor, batek seinalea bidaltzeko eta besteak jasotzeko. Mendialde horretan ia ez zegoen estaldurarik, eta, zegoenean, tarteka joaten zen. Ulertzen zer esan nahi dizut?

—Bai, noski. Tamalez ezin izan genuen bikotea gasolina-zerbitzugunean atzeman.

—Hala da, bai. Gure zoritxarrerako foruzainek monobolumenaren aldamenean aparkatu zuten. Arriskutsua oso izango zen ezer egitea. Nahiko zortea izan genuen igorgailua monobolumenaren toki ezkutuan eransten.

—Eta gero, eguna erabat izorratzeko, aitona konturatu atzetik gindoazkiela. Egun okerra, bai horixe!

—Zalantzarik gabe. Eta hori bakarrik ez, gero pistan, eskura geneuzkala zirudienean, arrastoa galdu. Okerrago ezin.

—Orain artekoa zuzendu beharko dugu, bestela...

—Noski, baina patxada galdu gabe. Mendialde horretan daude ezkutatuta, ziur nago, estaldura ez dagoen toki batean. Mugitzen badira, estaldura dagoen eremu batera sartu orduko jakingo dugu non dabilta, eta harrapatu egingo ditugu. Ez dira urrutira iritsiko. Alokatu dugun etxe honetara ekarriko ditugu eta Bordelen gauzak zuzendu arte bahituta eduki.

—Eta gero Marseillara joango gara.

—Poltsikoa bero-bero. Dirutza polita eskuratu behar dugu gazte horren lepotik.

—Eta lasai egingo dute lo bahitzeko kontratatu gaituztenek. Mutil horren aitak egindako ikerketa lana argitara emango balu, Pandoraren kutxa irekiko luke, tipo eredugarri batzuk kinka larrian jarritz.

—Horixe diote behintzat. Politikari eta enpresari asko ipurdia agerian utzirik.

—Zintzo eta prestuak azaletik begiratuta, baina barrena ustelekoa, itxurati hutsak.

—Halaxe da, bai. Gu ez gara eurak baina okerragoak.

Rolandek argazki bat atera du, eta mahai gainean jarri. Adineko bat eta gazte bat daude argazkian, biak irribarretsu, hondoan alderdi menditsu bat. Françoise eta bera aitona dira. Gero sukaldara joan da eta bi garagardo-pote dakartzala itzuli da.

Abuztuak 13, asteazkena

Aurreko gauean baino hobeto egin du lo June. Goizean Lizarrara joan da amarekin, erosketa batzuk egitera. Ez du aukera galdu eta misteriozko eleberri bat erosi du. Eguerdia aldera itzuli dira etxera. Itzuli eta berehala aitak deitu du Bartzelonatik. Amak hartu du deia.

—Horixe bakarrik behar genuen! —kexatu da, hitz egin eta gero.

—Zerbait gertatu zaio aitari? —June galdetu dio, kezkatua.

—Berari ez, June, laneko arazoak. Luzatu egin zaiola Bartzelonako egonaldia. Horixe besterik ez. Eta nik bihar amonarekin pasatu behar dut gaua ospitalean. Eta hurrengo egunetan ere, tarteka. Bakarrik egon beharko duzu gauean. Bihar behintzat. Bihartik aurrera zerbait pentsatuko dut.

—Zaude lasai ama, ez naiz ume txiki bat, moldatuko naiz.

—Badakit, baina ez zait gustatzen gauez zu bakarrik egon zaitezen etxean. Bihar bazkalostean joango naiz ospitalera eta etzi goizean itzuliko naiz. Zergatik ez diozu esaten lagunen bati lo egitera etortzeko. Leireri edo...

—Ikusiko dut, ama. Baina hori bihar erabakiko dut. Badakizu ongi moldatzen naizela bakarrik. Ez naiz aspertuko, ziur egon.

—Ez da hori. Baina gauez zu bakarrik... Aizu, ni ez nagoelako ez zara ordu txikitik kalean ibiliko, ezta? Atzo berandu etorri zinen afaltzera.

—Esan nizun zergatia, ama, lkerri gertatutakoa.

—Aitzakia bat ez baldin bazen...

June berriz ere kontatu dio gertatua, oraingo honetan Alexek gustuko dituen graziak aipatuz. Baina isilean gorde ditu berarekin izandako gorabeherak.

—Alex mutil jatorra ematen du, bada.

—Ez pentsa. Fanfarroi samarra da. Gehiegi batzuetan.

—Ikerrek, aldiz, motel samarra ematen du.

—Bai, baina mutil zintzoa da, ama. Taldeko ahulena da, eta horrek ez dio mesederik egiten. Eta, bera den bezala, azkarra eta ikasle ona, are gutxiago.

—Bullying egiten diote?

—Ez, ez inondik ere ez, grazia gutxiko txantxatik ez dira pasatu. Oraindik behintzat.

—Ai ene! Gazte-kontuak. Lehenengora itzulia, hemen ia denok gara ezagunak, baina gauean ateak eta leihoak itxita eduki. Eta kontuz erlojuarekin. Badakizu zer esan nahi dudana.

—Baaaaai, ama, ez izan aspergarria!

Arratsaldean irakurtzen egon da June. Gogotsu hartu du goizean erositako liburua. Igerilekura

iritsi denerako lagunek biharamunerako planak eginak dituzte. Iker ez dago. Igerilekutik datorrela, etxetik gertu topatu du. Herritik dator arrebarekin.

—Zer, konpondu al duzu bizikleta? —galdetu dio June.

—Aitak konpondu du. Egia esan, ez zuen ezer, pieza pare bat lasaituak.

—Nolatan?

—Norbaitek lasaituak, esan dit.

—Susmo hori nuen. Baina hanka sartzeko beldurrez ez nuen ezer esan.

—Nazka eginda nago, June.

—Ez naiz harritzen. Alexek kuadrillako giro ona zapuztu egiten du. Zoritxarrez ez diot konponbidea erraza ikusten arazoari.

—Zu bezalakoak gehiago egongo balira lagun-taldean...

—Hor dago koska. Oilobustiak dira batzuk, mutilak batez ere; eta neskak, Maider kenduta, antzekoak edo okerragoak. Azkena etorrita eta dagoeneko Alex taldeko nagusi bihurtua da. Biihar mendira goaz eguna pasa, arroilara. Etorriko al zara?

—Ez, Iruñera goaz, Planetarioa ikustera.

—Kontatuko didazu nolakoa den. Nik ere ikusteko gogoia dut. A! Ez ahaztu lehengo egunean esandakoa. Ez aipatu mendian ikusitakoa.

Banandu egin dira. Pauso batzuk eman dituzte, eta berriro Ikerrek ahotsa entzun du June.

—Ahaztu zait esatea, June, bizilagun berriak ditugu. Ez ditut ongi ikusi baina ez zait beren itxura gustatu.

—Ez dute 4X4 ilun bat edukiko? —Bezperako balaztada gogora etorri zaio Juneri.

—Bai. Nola dakizu?

—Ia-ia harrapatu egin ninduten atzo urbanizazioaren sarreran, zu aitarekin utzi eta gero.

Etxera joan da. Ama afaria prestatu bitartean liburua hartu eta atarira joan da irakurtzera. Hasi eta laster Leire etorri da. Aldamenean eseri zaio.

—Kaixo, June. Orain ere irakurtzen? —asperraren imintzioa egin du.

—Eta gustura, gainera. —liburua itxi eta begira geratu zaio June.

—Bihar mendira etortzeko asmoz? —galdetzen dio Leirek.

—Segur aski bai. Aizu, Leire, atzokoa ez zitzaidan ongi iruditu.

—Atzokoa?

—Bai, Ikerri egindakoa.

—Zergatik esaten didazu? Nik ez nion ezer egin.

—Tira, Leire, nirekin ez egin inozo-plantarik. Nik bezala, zuk ere, badakizu bizikletaren matxuraren atzean Alex zegoela. Bera bakarrik ez dakit, baina ziur nago ideia berarena izan zela, Ikerren kontura barre egiteko besteok.

—Batzuetan pixka bat pasatzen da, egia da. Badakizu nolakoa den!

—Konturatzen ari naiz, bai. Baina oraingo honetan ez neukan bera buruan, besteok baizik, Ez zenuten ondo jokatu Ikerrekin, Maider eta nirekin bakarrik utzita.

—Eta zer nahi zenuen nik egitea? Alexen aurrean gaizki geratzea akaso? Badakizu ezin dudala, berarekin gustatuta nago, eta zu bidea libre utzita orain da nire aukera.

—Eta, noski, puntuak irabazteko txalotu behar dituzu bere txantxa gaiztoak.

—Nire egoeran, zuk zer egingo zenuke?

—Atzo egindako bera, pentsatzen dut.

—Bai zera! Eta, gainera, Irene ere han zegoen. Bera ere Alexen atzetik dabil. Nire zoritxarrerako, noski. Lehen oztopo bakarra zu zinela pentsatzen nuen. Eta begira orain.

—Ez dakit zergatik, baina Alex ezagututa, uste dut hemendik oporrak bukatu arte, biontzako aurkituko duela denbora.

—Horrekin zer esan nahi duzu? —Leirek, asaldatuta.

—Ezer ere ez, Leire, ahaztu esana. Txantxetan nenbilen.

Ilundu berria du. Juneren txaletaren beheragoko batean, Roland eta Marcel daude egongelan, sofan luze jarriak. Telebista piztuta dute, kirol kate bat jarria. Egun guztia hara-hona ibili dira, eta ez dute bila dabilta iheslarien arrastorik aurkitu. Ernegatuta daude.

—Ez dakit zer pentsatu, Roland, kezkatuta nago —esaten du Marcelek—. Egoera honek nire onetik ateratzen nau. Hara-hona ibili gara egun guztian, eta alferrik. Etsigarria da.

—Bai, halaxe da, baina zer gehiago egin dezakegu?

—Egia esan, ez dakit.

—Pazientzia ez galdu eta itxaron, esan nizun atzo. Niri ez zait beste ezer bururatzen. Nire iritzian inguru hauetan daude ezkutatuta, une egokiaren zain alde egiteko. Zain egon behar, bada.

—Eta uhin-igorgailua ondo ez badabil? Edo aurkitu egin duten eta autotik kendu? —Marcelek, ezkor.

—Ezin da erabat baztertu, noski, baina ez dut uste, zail ikusten dut. Aitona ez dut gauza ikusten, eta ezta hamabost urtetako mutila. Esandakoa, hor nonbait egongo dira ezkutatuta, kaka eginda. Ez dut uste aitona hori neke-lan askotarako egongo denik, eta noizbait mugitu beharko dira.

—Hala bada, atzaparra botako diegu, ez dugu berriro huts egingo.

—Ez izan zalantzarik. Tira, edan dezagun garagardo bat, eta emadazu zigarreta bat. Egarritz eta nikotinaz faltan nago. Bihar, mendialdera joango gara, aurreko gauean ibilitako alderdira.

—Ez dira lautadan egongo, ezta? Zera esan nahi dut, etxe edo txalet batean, gu bezala.

—Guk detektatu gabe jaitsiak, esan nahi duzu. Ez dut uste.

—Atzo bateriarik gabe gelditu zinen, Roland, beharbada orduan...

—Hala da, bai, baina denbora gutxi. Txiripa handia izango zen tarte horretan alde egin izanak. Ezinezkoa, gainera, kargatzen hasi orduko jakingo genuen non zebiltzan. Estaldura zabala du

.

traste horrek. Horregatik inguruan dabiltzalako nire ustea. Beraz, goizez eta gauez erne egon behar dugu.

—Egongo gara, Roland, egongo gara. Garagardo bila noa sukaldera.

Marcelek altxatu eta sukaldera joan da. Bi garagardorekin itzuli da. Rolandi bat eman, eta berriz ere eroso ezarri da sofán. Horrek zigarreta bat eman dio. Sinkronizatuak baleude bezala, lehenik potoak ezpainetara eraman eta gero zigarretak piztu dituzte. Ondorenisilik gelditu dira telebistari begira.

Abuztuak 14, osteguna

Gari-landa eta mahastien artetik joan dira June eta lagunak ibaia mendi-magaletik haranera irteten den alderdiraino. Arroila batetik irteten da, eta sartzeko bide estua dago, haitzei itsatsita doana. Ibaiak putzu sakonak egiten ditu toki batzuetan, eta horietako batera doaz, arratsalde pasa. Ordu laurden bat ibili eta gero iritsi dira aukeratua duten putzura, arroilako handienara. Zabalgune batean dago, zabalgunean belardi txiki bat, harkaitzak haren hondoan. Motxilak utzi, xukaderak zabaldu, eta prestatu dira eguna pasatzera.

Uretan, xukaderetan etzanda, kartetan edo berriketan, denbora bizkor joan zaie. Ogitartekoak jan dute, eta jan eta gero, eskalatzaileek erabiltzen duten harkaitz batera hurbildu dira, nondik igotzen diren ikustera.

—Ezta erotuta ere igoko nintzen hortik! —esan du Leirek, zut altxatzen den harkaitzaren oinetik gora begira.

—Ba! Ez da horrenbestetako: lotuta doaz, ondo lotuta eta iltzeekin finkatuta —esan du Alexek, munta kentzen eskalatzaileen ausardiari.

—Bai, hala da —Leirek ez dio kontra egin nahi izan Alexi.

Xukaderetara itzuli dira eta Alex gertu dagoen erlaitz bati begira gelditu da. Halako batean desafiatzaile mintzatu da.

—Zer, inor ausartzen da nirekin horra igotzen?

Denak isilik. Inork ez du desafioa jaso.

—Oiloak! —esan die—. Eta zuk, June, zuk zer diozu?

—Toki zailagoetan ere ibilia naiz aitarekin. Baina orain ez dut ahuntzak bezala ibiltzeko gogorik.

—Ba lehen harro ibili zara esaten Ekainean aitarekin Pirinioetan ibilia zarela, ez dakit hiru mila metroko zein menditan.

—Bai, eta horra igotzea baino zailagoa izan zen hango gailurrera iristea, ez izan zalantzarik.

—Ez dakit ba... Ez dizut sinesten. Beldurra ematen dizu horra igotzea, hori da egia, gainerakoak aitzakiak dira.

Lagunak isilik begira daude. Haizearen xuxurla entzun daiteke. Junek ez du ezer esaten, erlaitz aldera begira dago. Ez du zailtasunik ikusten igotzeko. Hala ere, ez du nahi Alexen jokoan sartu, barrena berotzen hasia badu ere.

—Kakatia zara! —esan dio mutilak, burlaz—. Eta gezurtia.

Azken horrek bere onetik atera du Barrena sutan jarri dio.

—Ea, ba, ni banoa —esan du, eta bizkor abiatu da.

Alex, ezustean harrapatuta, instant bat aho zabalik egon da. Baina berehala abiatu da Juneren atzetik. Ezin izan du harrapatu, ordea, katu baten erraztasunarekin bere aurretik iritsi da erlaitzera neska.

Behin goian, elkarri begira egon dira, biak arnasestuka. Garaipena dago Juneren begietan

islatua; haserrea, Alexenetan. Isiltasuna berriro, goian eta behean ere. Lagunek Alexi begiratzten diote, nola erreakzionatuko duen zain, zerbait egingo duelako ziur. Eta egin du.

—Ezetx beste aldetik jaitsi —esan dio Juneri, oihuka, behekoek entzuteko moduan.

Alexek proposatutako jaitsiera harri soltekoa da, baino ez zaio igoerakoa baino zailagoa iruditu Juneri. Oraingo honetan, ordea, ez da erronka onartu, damututa baitago mutilaren jokoan sartu izangatik.

—Nahikoa da, Alex —esan—, ez naiz zurekin lehiatzera etorri. Ez dakit nolatan berotu naiz lehen. Baina, tira, behintzat garbi gelditu da ez naizela gezurti bat.

—Ez dakit ba... Zergatik ez duzu hortik jaitsi nahi?

—Ezer frogatu beharrik ez dudalako. Ez zuri eta ezta beste inori ere. Horregatik. Bale?

—Bai zera! Beldurrez zaudelako. Ez disimulatu.

June, aldi honetan, ez da probokazioan erori. Buelta hartu eta igotako bidetik abiatu da beherantz, poliki eta arretaz. Alex, aldiz, bere nagusitasuna erakusteko, beste aldetik abiatu da, saltoka, lagunengana June baino askoz lehenago iristeko asmoz.

Eta iritsi da. Baina ez du garaipenaz gozatzeko aukerarik izan. Lagunengandik gertu dagoela irristatu eta orkatila bihurritu zaio. Oihu egin du eta lurrean gelditu da, orkatilari helduz. Min ematen dio, eta itxuraz ez txikia, haren aurpegia ikusirik. Hortzak estutuak ditu garrasi ez egiteko. Urguiluan duena ere, nonbait, ez da txikia.

Lagunek ez dute berehala erreakzionatu. Aho zabalik daude begira. Karlos izan da erreakzionatzen lehena, eta ondora joan zaio laguntzera. Iritsi denean June ere joan da.

—Zu ospa nire ingurutik —oihu egin dio Alexek—. Zure kulpagatik izan da.

—Nire kulpagatik...? Zurea aurpegia!

—Bai, zeu zara erruduna, neska perfektu nazkagarria. Neure onetik ateratzen nauzulako.

—Tira, nahi ez baduzu, ez dizut lagunduko. Baina nola edo hala joan beharko duzu pistaraino, hemen ez dago-eta estaldurarik telefonoz deitzeko.

—Isilduko al zara! Utzi bakean!!

Ezin izan dute gauza handirik egin laguntzeko. Lotura modukoa jarri diote orkatilan. Ondoren abiatu egin dira pistarantz. Estaldura dagoenean telefonoz eskatuko dute laguntza. Alexek ezin du hanka lurrean jarri, eta bi laguneren artean eraman behar izan dute. Besaburuetatik heltzen die eta txandaka doaz. Leire eta Irene lehia bizian ibili dira denbora guztian, zein baino zein, erizain adeitsu eta txeratsuen egiten.

Pistan daude. Luze egin zaio ibilaldia Alexi, eta lurrean eserita dago. Lotura askatu du eta orkatila agerian gelditu da. Ubelduta dauka, hazita. Ukitu du eta ziztada eman dio. Minak eta amorruak begiak malkoz bete diote. Begirada zitala egin dio Juneri. Motor-hots bat aditu dute. Datorren aldera begira eta hauts-laino bat ikusi dute pistan. Ibilgailu bat dator mendialdetik.

Lur orotako bat da. Alain zutitu da geldiarazteko asmoz. Alferrik egin dizkio geratzeko keinuak. Abiada gutxitzeko seinalerik egin gabe, ziztuan pasatu da gazteen ondotik, hauts-odei baten bilduz.

—Kabroia. Ia aurretik eraman nau —oihu egin du Alaine, besoak altxatuta.

Juneri ez zaio arrotza egin ibilgailua, ez baita 4X4 beltza ikusten duen lehenengo aldia. Eta lehenengoan bezala, oraingoan ere, modu traketsean. Hautsak ez dio barrukoak ikusten utzi, baina ziur dago aurreko egunekoak zirela, stopean ia harrapatu egin zutenak.

—Eta orain zer? —Irenek.

—Etxera deitu beharko duzu, Alex, badago estaldura —esan dio Karlosek, telefonoari begira.

—Etxera deitu... Uf! Horixe bakarrik behar nuen! —Alexen begietan beldurra agertu da.

—Zer dela eta? —Leirek.

—Hemendik bi aste proba egin behar nuen Errealean, eta min hartuta ez dakit ahal izango dudana. Nola jarriko den aita! Sekulako errieta egin behar dit. Jan egingo nau!

Gogo gutxiz, batere, azkenean deitu behar izan dio aitari. Deiaren arrazoiak esan orduko haren oihuak lagunak belarrietaraino iritsi dira. Alexi begiratu diote, errukiz.

—Oraintxe datorrela —esan die Alexek, deia eten eta gero, eta burumakur gelditu da.

Isilik daude pista ertzean Alexen aitaren etorreraren zain. Motor-hotsak aditu dituzte berriro. Mendiko motozikletenak oraingo honetan. Hautsa harrotuz ondotik pasa eta herrirantz joan dira. Zalaparta ostean berriz ere isiltasuna pistan. Minutu gutxiren buruan Alexen aita etorri da. Horrek ere bizkor, hautsa arrotzen. Zakar frenatu du autoa, are zakarrago jarri du esku-frenoak, eta jauzi batez irten da kanpora. Oinak lurrean jarri orduko, kaixo esan gabe, hasi zaio agiraka semeari. Ez dio galdetu minik duen ere. Oihuka hitz egin dio

—Ederra egin duzu, kaiku arraioa! Esan nizun, ba, kontuz ibiltzeko. Eta, orain zer? Zer egin behar dugu? Bi aste besterik ez ditugu orkatila sendatzeko.

—Nahi gabe izan da, aita —Alexek, ia ahapeka.

—Hara bestea! Nahita ez zenuen egingo! Ergela zara, gero. Lepoa bihurritzeko gogoak ematen dit. Nola egin duzu?

Alex zalantzan egon da une batez. Aurpegia piper gorria baino gorriagoa dauka. Azkenean, besoa Junerenganantz luzatuta hitz egin du.

—Harritza batean. Horrek zirikatu nau-eta —esan dio.

June aho zabalik gelditu da, haluzinatzen, Alexen gaiztakeria ezin sinetsi. Bere aitaren begirada makurra gainean sentitzen du.

—Egia da hori? —galdetu dio, orroka.

—Mina nola hartu duen bai. Bestea ez —pixka bat kostatu zaio erreakzionatzea Juneri —. Alex gezurretan dabil, berak zirikatu nau ni, eta ez nik bera.

—Zu hasi zara mendiko kontuak aipatzen, Edurne Pasaban bat bazina bezala. Zure harrokeria amorrarazi egin nau. Horregatik...

—Hiru metroko mendi batera igo nintzela besterik ez dut esan. Eta harrokeriarik gabe gainera.

Hauek ondo dakite. Zuk atera duzu gero kontua, niri desafio eginez, gezurtia naizela esanez. Mainerrek baiezkua egin du buruaz, baina beste lagunek ez dute txintik ere esan, gizonaren eta Juneren begiradak saihestuz.

—Eta zuk amua irentsi. Ez duzu Alex ezagutzen ala? Ezin duzu bakean utzi? —haserre mintzatu da gizona.

—Nahiko nuke berak ni uztea —ihes egin zaio Juneri.

Gizonak, amorru bizian, besoa altxatu eta pauso bat eman du Junerenganantz. Honek, bat atzera, besoak aurpegi aurrean jarririk. Ez da ezer gertatu. Azken mementoan, amorruari eutsi eta besoa jaitsi du gizonak. Destainaz mintzatu, gero.

—Harroputz alaena! Nire semearen parean hutsaren hurrengo zara, ezdeus bat, garbi izan. Gauzak dauden baino larriagoak ez jartzeko, Junek ez dio esan gogora etorririkoa. Isiltasuna. Denak ahoa itxita. Begiradak apalduta. Nazka sentitu du Junek.

—Junek ez du ezer egin. Zorte txarra izan da —Mainerrek hitz egin du azkenean, ahots mehe batez.

Gizona pentsakor egon da pixka batean. Gero putz egin du eta semeari mintzatu zaio. Ez du ematen semearen minak axola dionik, bihurturaren ondorioek baizik.

—Kaka zaharra!! —ostiko eman dio bide ertzeko zuhaixka bati—. Etorkizuna jokoan eta zu burua auskalo non. Zer uste duzu, zure zain egongo direla Errealeko teknikoak? Ergel halakoa! Orkatila sendatzen ez bazaizu, beste urtebete pasako behar duzu herriko taldean, balio gutxiko jokalariren artean. Eta batek daki datorren urtean berriro deituko dizuten proba egitera.

—Ahaleginduko naiz, aita, aurten ezin bada datorren urtean. Dena emango dut txapelketan.

—Beharko. Gainean izango nauzu eta. Baina nik bezala, zuk ere, gauzak garbi eduki behar dituzu, zera, buruan sartuta etorkizuna futbolean duzula. Dohainak dituzu, arraioa! Eta ez txikiak. Tira, goazen autora, Lizarrara eramango zaitut larrialdietara.

Aitak lagunduta herrenka joan da autora Alex, ahaleginak egiten intziriei eusteko. Sartzen lagundu ostean, aita bolantean jarri, eta zalapartan abiatu da herrirantz. Etorri bezala ez die agur xume bat ere esan.

Enbor bereko ezpalak direla, pentsatu du Junek, Alexek maisu ona duela etxean. Ez daki zenbaterainokoak izango diren futbolerako duen dohainak, baina ziur dago proba egin aurretik aitak Errealean ikusten duela semea. Eta denborarekin Bartzelonan edo Munich-eko Bayen-en, izar bihurtuta. Auskalo, Eta, esan gabe doa, bankuko kontua diruz beteta.

—Tipo sinpatikoa Alexen aita —esan du, ironiaz, isiltasuna eteten.

—Urduri zegoen, eta ez naiz harritzen, zeren Errealean jokatzeko aukera galtzea... —Irenek, nahigabetua, batek daki futbolari ospetsu baten neska bihurtuta imajinatzen.

—Hain ona bada, agian aurrerago deituko diote, sendatutakoan —Leirek, jeloskor, laguna baino gutxiago ez.

—Bai, baina... Mutil asko joaten dira proba egitera, eta Messi bat ez bazara... —Alainek ez

ditu gauzak hain garbi ikusten.

—Baina Alex herriko taldearen onena da —Leirek, futbol-zelaian ikusi ez badu ere.

—Alde handiz —Irenek, gutxiago ez.

—Hala ematen du. Baina aukerak ez dira urtero sortzen, eta bat sortzen denean galtzen baduzu... Tira, ez dakigu zenbaterainokoa den hartu duen mina, beharbada bi aste barru sendatuta edukiko du —amaiera jarri dio Alainek gaiari.

—Zer zorte txarra. Gizajoa! —Irenek eta Leirek, aho batez.

Motxilak hartu eta herrirantz abiatu dira.

Abuztuak 15, ostirala

June nagiak kentzen sartu da sukaldean. Gosaltzera dator. Ama hara hona dabil.

—Egon on, ama. Amonari buruz, zer berri? —galdetu dio.

—Ezer berezirik ez. Larri dago oraindik. Okerrera ez du egin, behintzat. Itxaron behar.

—Sendatuko al da? —Junek galdetu, larri samar.

—Ez dakit, laztana, ez dakit. Jarri dioten tratamenduari erantzuten ote dion ikusi arte hobe dugu ilusiorik ez egitea.

Une horretan joka hasi da amaren telefonoa. Gelatik irten da hitz egitera. Beti egiten du horrela, axolarik ez nork deitzen duen. Gazte garaietako ohitura ote? Horixe pentsatzen du Junek, berak ere gauza bera egiten baitu. Batzuetan arrazoi guztiz, lagunen arteko kontuak ezkutuan edukitzeko, baina bestetan ohitura hutsagatik.

—Aita zen. —Kopetilun itzuli da sukaldera—. Lan-arazoak ezin zuzendu omen dabilta, eta Bartzelonako egonaldia luzatu egingo zaio. Hau amorrua! Hau ere unerik txarreanean gertatu behar!

—Moldatuko gara gu biok, ama.

—Beharko! Baina zu hemen bakarrik... Gauetz batez ere...

—Ez hasi berriro, ez duzu kezkatuta egoteko motiborik, ea buruan sartzen zaizun.

—Bai, badakit, hala ere...

—Nahi baduzu, lagunduko dizut ospitaleko kontuekin, ni joango naiz gaua pasatzera.

—Aurrerago ikusi behar. Oraingoz ez, behintzat. Ospitalea ez da toki atsegina, June, are gutxiago zu bezalako gazte batentzat. Baina behar handia ez badago, oraingoz hobeto zaude etxean bakarrik ospitalean baino. Dena dela, eskertzekoa da zure prestutasuna.

—Ez naiz umemoko bat, ama, hamabost urte ditut. Ingalaterrara ez naiz zuekin joan —protestatu du Junek.

—Badakit, horregatik uzten zaitut bakarrik etxean. Hala ere, badakizu, zerbait nahi izanez gero, deitu Leireren amari. Eta txorakeriarik ez. Bale?

—Ama, berriz ere...!

Eguerdian azaldu da igerilekuetan Alex. Orkatila bendaz lotu diote eta bi makuluk lagunduta dabil, oina lurrean jarri gabe. Irenekin etorri da. Leire berehala zutitu da, laguntzera joateko. Lehian ibili dira bi neskak mutilaren xukadera nork zabalduko. Etzaten lagundu ostean, bere aldamenean eseri dira. Begiratu makurra egin dio Juneri. Lagunak orkatilaren egoeraz interesatu dira. Bihurdura duela, eta gutxienez hilabete pasa beharko duela baloia ukitu gabe, esan die. Beraz, errearekin egiteko zuen proba ez du egiterik izango.

Erreta dago, oso erreta, aurpegian nabaritzen zaio. Mendeku gosez, pentsatu du Junek. Beraz,

kontuz ibili beharko du egiten eta esaten duenarekin. Horregatik, hain zuzen, egon da isilik lagunak galdezka eta Alex argibideak eman bitartean. Eta geroago ere ez ditu kontuan hartu, pare bat aldiz, eta asmo txarrez, Alexek bota dizkion zirikadak.

Halako batean Iker iritsi da. Gertutakoaren berri ez du eta begira-begira geratu zaio Alexi. Adeitsu zer gertatu zaion galdetu dio. Galdetu eta berehala damutu da bere asmo onaz.

—Zu bezalako maritxuei sekula gertatuko ez zaiena —erantzun baitio Alexek, beste azalpenik eman gabe.

Hitzik gabe gelditu da Iker, musu-huts eta barregarri geratua, batek baino gehiagok barrez hartu baitu Alexen ateraldiak. Juneri begiratu dio Ikerrek. Senezko erreakzioa izan da, baina Alexi ez zaio oharkabe pasatu, eta ez du aukera alferrik galdu.

—Horrek esango dizu, bai, gustura gainera. Baina orain ez. Hobe gero, bakarka, goxo-goxo. Egia esan ez nekien zuri neskak gustatzen zitzaizkizunik. —Lagun batzuek barre egin dute berriro.

Juneri ez dio batere grazia egin. Hala ere, kostata, jan egin ditu ahora etorririko hitzak. Horrezkero, eta bazkalordura arte, gauzak aparteko gorabeherarik gabe joan dira.

Eguerdian, etxerantz doazela, bere etxe aurrean, Leirek itxaroteko eskatu dio.

—Pozik egongo zara, ezta? —bota dio, besterik gabe.

—Pozik nik? Ez dakit zergatik? —Harrituta begiratu dio June.

—Alex min hartuta dagoelako. Zergatik bestela?

—Tira, Leire, benetan ari zara? Ez naiz poztan, ezta damutzen ere, hori jakin nahi baduzu. Bestalde, zuk ongi dakizu zer gertatu zen. Ala itsututa zaude?

—Ez zenuen haren desafioa onartu behar.

—Eta ez nuen asmorik. Baina gauza guztiek dute neurri bat, eta nire pazientzia ere bai, jakina.

—Badakizu nolakoa den.

—Egunetik egunera hobeto gainera. Baina ahozabalei aurre egin behar zaie noizbehinka.

—Horregatik ez zenuen haren desafioa onartu behar. Eta gehiago ere esango dizut, Alexekiko duzun jarrerak ez digu batere mesederik egiten lagunoi.

—Ai ene! Hori ere entzun behar! Eta ez da lehenengo aldia, gainera. Itsututa zaude, Leire, barka baina...

June ez du jarraitzerik izan. Leire, etsipen-keinua egin, eta laguna hitza ahoan utzita, etxe aurreko lorategian sartu da.

Arratsaldean, ama ospitalera joan arte, etxean egon da June. Kaleratzeko apaintzen ari dela Leirek esan diona du gogoan. Pentsakor egon da. Lortuko du Alexek lagunak bere kontra jartzea? Ezetz espero du. Denak behintzat. Saiatuko da, jakina, eta Leire bezala auskalo dagoeneko Irene ere... Eta Karlos seguru asko. Alain ez daki. Dena dela, panorama iluna du,

nahiko iluna. Leire lagun ona da, edo izan da, baina maitasunak itsututa dauka. Eta Irene antzera dabil. Bi nesken jarrera patetiko samarra iruditzen zaio. Baina, ez daki, bera oraindik ez da horren maiteminduta egon, eta ez daki zer pentsatu.

—Ordu laurden barru ospitalera joango naiz. Afaria hozkailuan duzu —amak hitz egin dio bere gelatik, gogoetak eteten.

—Zurekin joango naiz herriraino. Lagunak han daude eta.

Herrirantz doazela, iparraldetik laino-mataza lodiak datoz, haize zakarrak bultzaka.

—Hobe berandu gabe etxera itzultzen bazara, June —esan dio amak, zeru beltzari begira—. Ekaitza dator. Badakizu horrelakoetan zer egin: leiho eta ateak itxita eduki. Eta beldur bazara, badakizu, zoaz Leireren etxera.

—Bai, ama, kontuan izango dut. Baina ez dut uste joango naizenik, ez behintzat ekaitza batengatik.

—Bada nik ez nuke nahi ni bidean harrapatzea, ez zait batere gustatzen tximista eta zaparraden artean gidatzea. Eta kazkabarra botako balu, are gutxiago, jakina.

Kanpinetik gertu daude. Poliki doaz eta autokarabana batek aurrea hartu die. Aurreratu eta ezkerrera jo du, kanpinera sartzeko. Bikote bat zihoan barruan. Gidaria, gizonezko bat, telefonoz mintzatzen, eta, bere aldamenean, emakume bat, oinak luze aginte-mahaian jarriak. Juneren ama balazta zapaldu behar izan du.

—Hara bestea! Beti presaka jendea, oporretan ere. Ezin zuen itxaron aurreratu gabe? Eta gainera telefonoz mintzatzen! —kexatu da.

Andrearen kexa alferrikakoa izan da, ez da autokarabanakoen belarrietara iritsi, noski. Eta iritsia ere, ziurrenik, ez zioten jaramonik egingo. Gizonak telefonoz hitz egiten sartu da herri irteeran dagoen kanpinera. Gizonaren hizkuntza arrotza da.

—Arratsalde on jauna —esaten ari zaio hizketakideari—. Emazkiozu eskerrak informatzaileari, zuzen zebilen, aurkitu ditugu morroi marseillarrak.

—Bikain, Igor. Eta....? —beste aldekoak.

—Esan bezala bi dira, eta esango nuke urduri dabiltzala, galduta bezala. Hara eta hona dabilta Jeep Grand Cherokee batekin, mendian eta lautadan.

—Kanpinen al daude?

—Ez, urbanizazio batean, kanpinetik kilometro eskasera.

—Hobe horrela. Ez itzazue bistatik galdu, baina ipurdia agerian jarri gabe.

—Lasai jauna. Mendiko motozikletekin zelatatu genituen, urruti samarretik.

Isilaldi bat egin da. Beste aldekoa, antza, pentsakor dago. Laster hitz egin du berriro.

—Zelatatu besterik ez duzue egin behar, argi? Lana euren esku utzi.

—Horretan ari gara. Arrastoa galdua dutela ematen du. Gora eta behar dabilta inguruak arakatzen.

—Ongi. Bestalde, jendearen aurrean goxo aritu Nadiarekin, oporretan dabilta bikote maitemindua bazinete bezala. Ez zaizu zaila izango, ezta? Kar-kar-kar.

—Dudarik ez izan. Aditu diozu, Nadia? —galdetu dio bere aldamenean dagoen neska ilehori ederrari.

—Jendearen bistan bai, halaxe ibiliko gara, baina autokarabanaren barruan ez egin ilusiorik —erantzun dio emakumeak, irribarretsu.

—Txantxak utzita, erne eta zuhur ibil zaitezte. Gauzak okertuz gero, inork ez dizue lagunduko. Garbi izan ezazue —beste aldekoak.

—Ongi, jauna, ea zortea dugun.

—Hala izan bedi. Gazte horrek urrearen balioa du. Eta horrez gainera, gaztea atzematen, bide batez, bi mandatu egingo ditugu, marseillar horiekin garbitzeko kontuak ditugu eta.

Ekaitza hurbiltzen ari da. Hodei beltzak datoz iparraldetik, haize zakarrak bultzaka. Tximistek zeharkatzen dute zerua mendialdean. Trumoi en oi hartzunak ere datorrenaren mezulariak dira. June etxera doa, bizkor, ez du nahi ekaitzak kalean harrapa dezan. Aire zabalean tximistek eta trumoi en ez tande k beldurra ematen diote, baina beste kontua da babesean badago. Orduan gustuko du zeruan izaten den ikuskizuna. Eragiten dion gozamen eta beldur nahasketa kitzikagarri suertatzen zaio.

—Kaixo, June, etxera al zoaz? —aditu du.

Atzera begiratu du. Leireren ama da.

—Bai, ez nuke nahi ekaitza kalean harrapatzea.

—Bakarrik zaude etxean, ezta? Zatoz gurera afaltzera. Eta nahi izanez gero, gelditu bihar arte —esan dio andreak.

—Eskertzen dizut, baina nire etxera noa. Amak afaria prest utzi dit eta afalostean pelikula bat ikusi nahi dut, ingeles bertsioan, belarria hizkuntzari egiteko —esan dio gonbitari emandako ezezkoa justifikatzeko, afalosterako plan zehatzik ez baitu, leiho atzetik ekaitza ikustea ez bada—. Behar izanez gero, deituko dizuet.

—Nahi duzun bezala. Baina badakizu non gauden.

Banandu dira. Etxetik gertu dagoela, gero hurbila antolatzen aritu da June. Telebista aurrean afalduko du. Aspaldiko partez, gainera, amak gutxitan uzten baitio. Bere kontutan sartuta doala bere izena entzun du trumoi-hots baten burrunban nahasia. Gelditu da. Irudipena

izango zela pentsatu du. Baina ez:

—June, June... Hori da zure izena, ezta? —orain garbi aditu du.

Ahotsa ezagutu du. Meategiko mutilarena da. Zer arraio dabil herrian? Ahotsa etorri den aldera begiratu du. Hesi baten atzean ikusi du Françoise. Instintuz alde guztietara begiratu du, beldurrez, jende susmagarriren bila. Inor ez bistara. Ekaitzaren hurbiltasunak hustuta dauka kalea. Lasaitua hesira hurbildu da.

—Zer zabiltza hemen? Atera zarete meategitik? Eta aitona? —galdetu dio.

—Ez, meategian gaude oraindik. Aitona han gelditu da. Ez dago inora joateko moduan eta laguntza eske bidali nau.

Zalantzan gelditu da June. Ez daki zer egin. Ez du nahi, bestalde, inork ikustea mutilarekin mintzatzen. Batez ere, egia bada esan ziotena, balizko jazarleek. Bada, zer egin... Erabakia hartu du, bat batekoa.

—Zoaz txaleten atzealdetik, eta bi beherago itxaron ni azaldu arte. Ezkutatuta, noski —esan dio, eta abiatu egin da.

Ettxera sartu eta zuzenean bideratu da garajera. Txaletaren atzealdea ematen duen ate bat dauka garajeak. Morroiloa kendu, eta zabaldu egin du. Zuhaixka batzuen atzetik atera da mutila.

—Sar zaitez barrura, bizkor! —esan dio June.

Urduri dago June. Ez luke pentsatu nahi zer esango zion amak, bakarrik etxean, mutil ezezagun bat sartzen utzi duela jakingo balu. Gauez eta ezkutuan gainera. Hobe ez pentsatu. Ziztuan sartu da mutila, eta atea itxi eta gero elkarri begira geratu dira.

—Eta? —galdetu dio June—. Nolatan zaudete hemen alde egin gabe?

—Aitona ez dago ondo, eta ondo jarri arte ezin dugu alde egin. Eta, gainera, susmoa dugu etsaiak oraindik gure bila dabiltzala inguru hauetan.

—4X4 ilunekoak baldin badira, bai. Atzo, behintzat.

Isilik egon dira une batez, elkarri begira. June hautsi du isiltasuna.

—Zatoz barrura eta hitz egingo dugu. Arazoaren jakinaren gainean jarri eta gero pentsatuko dut zer egin. Ezer egiterik baldin badut, noski.

Egongelara joan dira. Sukaldera joan eta bi Coca-Colaekin itzuli da June. Eseri egin dira. Mutila zurrutada luzea eman dio freskagarriari.

—Egarritz zeunden, e! Aizu, ezer baino lehen, zer gertatzen zaio zure aitonari? —galdetu dio June.

—Zorabioak ditu, eta etzanda egon beharra dauka. Horregatik bidali nau zure bila.

—Nire bila? Nik zer egin dezaket?

—Sendagaiak lortu. Mugimendu batzuekin burua joan egiten zaio, dena bueltaka hasi, eta egoera horretan ezin du gidatu. Ez omen da lehenengo aldia dituenik. Bere ustean, botika hartuta bizpahiru egunetan hobeto egongo da, eta orduan erabakiko dugu zer egin. Arratsaldean atera naiz zure bila etortzeko, baina bidea gaizki hartu eta denbora puska batean

galduta ibili naiz. Gero, hona iritsi naizenean, kosta egin zait zu topatzea.

—Badakizu botikaren izena?

Orri batean idatzita ekarri du. Eman egin dio Juneri.

—Ez dakit ba... —Pentsakor egon da une batez, zer egin ez dakiela—. Goseak nago. Eta zu ere, pentsatzen dut. Sabela beteta agian neuronak bizkortuko zaizkit.

Afaldu bitartean, Françoisek azken egunetako gorabeherak kontatu dizkio. Asteartea meategian igaro eta asteazken arratsean joatea pentsatua zuten. Aitonaren ustez, gauzak normal joanez gero, ostegun goizean toki seguruan egongo ziren. Asteazken goizean, ordea, meazulo barrenetik zelatan zeudela, 4X4 beltza pistan behera zetorrela ikusi zuten. Denbora galdu gabe, barrura sartu ziren.

—Bihotza airean egon ginen, sartu eta gureganaino etorriko ote ziren beldurrez. Baina ez, ez dakit sartu egingo ziren, baina sartu baziren ere, gureganaino ez ziren iritsi.

Horrezkero, seguruago ibiltzeko, ostegun arte atzeratu zuen irteera aitona. Urduri omen zegoen, eta meategitik irteteko ordua gerturatuz joan ahala, are urduriago. Ez zuen ezer esaten, baina François konturatzen zen. Alde egiteko ordua iritsi zen. Ilunabarra aldera irten ziren aire libreria eta pistan gora abiatu. Baina abiatu eta laster aitona autoa gelditu eta burua bolante gainean erortzen utzi zuen. François, larrituta, bihotzekoa eman ziola, pentsatu zuen. Zer zuen, galdetu omen zion, hiltorian egon zitekeela pentsatuz.

Lasai egon zedin, erantzun omen zion aitona, beren asmoetarako txarra zela zeukana, baina ez hilkorra. Ez omen zen lehenengo aldia honelako zorabioak izaten zituela, bertigoak sendagileen esanean. Baina aspaldi ez zituen izan eta, zoritxarrez, ez zuen kontrako sendagaia botika-kutxan. Zorabioak gutxitu arte egon omen ziren pista erdian, aitona ez baitzen gai autoa mugitzeko. Geroago, poliki-poliki, kontu handiz eta geldialdiak egiten itzuli ziren zulora. Ezkutalekura iritsiak aitona monobolumenaren atzealdean etzan zen, etzanda ez baitzuen zorabiorik.

—Gaur goizean haren egoera berbera edo antzekoa zen, eta zuregana bidali nau. Ura, zerbait jateko, eta ahal izanez gero, bertigoen aurkako pilulen bila. Sekretu handienez, jakina.

—Nor dira zuen atzetik dabiltzan tipoak? —hizpidea aldatu zuen Junek.

—Gaizkile profesionalak. Marseillarrak. Bertako mafiako morroiak. Gaizto eta arriskutsuak. Aitona dioenez, ez dute erraz amore emango.

Isiltasun larri bat zabaldu da sukaldean. June kezkatuta dago. Nahi luke bikotea lagundu, baina ez zaio ezer bururatzen.

—Ba ez dakit zer egin beharko dut botika lortzeko —esan du, azkenean—. Botika itxita egongo da. Eta, gainera, errezetarik gabe zaila ikusten dut lortzea.

Biok isilik. Biok pentsakor. Junek eten du isiltasuna.

—Laster gautuko du. Eta ekaitza dator. Zer egiteko asmo duzu?

—Ez dakit. Joan beharko dut, zure gurasoak etorri aurretik —etsipena hartuta mintzatu da mutila.

—Alde horretatik zorte izan duzu, bakarrik nago —Amonarena kontatu dio June
Berriz ere isiltasuna nagusi. Biak gogoetei emanak. June neuronak jo eta su jarriak, baina ezin
ezer asmatu. Berriz ere berak hautsi du luzatzen ari zen isiltasuna. Erabakitasunez mintzatu
da.

—Tira, ba! Lagunduko dizut. Nola ez dakit, baina zerbait bururatuko zait. Nahi baduzu hemen
egin dezakezu lo, eta egunsentian meategira itzuli. Nik lagunduko dizut. Gerokoa nire esku
utzi, saiatuko naiz botika lortzen, eta lortzen badut, eramango dizuet meategira. Hala ere,
lagundu behar badizut, jakin nahi dut tipo horiek zuen atzetik ibiltzeko zergatia. Zehatz-
mehatz.

Françoisek arrazoia esan dio. Bere aitak ustelkeriaren aurkako departamenduko nagusia da
Bordelen. Aitonaren esanean, ikerketa garrantzitsu bat bukatzeaz du, eta bat baino gehiagok
ez du nahi argia ikus dezan. Jende inportantea politikan eta finantzetan.

—Saiatu omen dira, baina ez dute lortu nire aita diruz erostea. Ni naiz, ordea, aitak duen
alderdi ahula. Ama urtebete pasatxo hil zen, ni naiz seme bakarra, eta ama hil zenetik oso
lotuta bizi gara aita eta biok.

Mutilen hitzek hunkitu egin dute June. Harrituta utzi. Eta beldurtuta ere bai. Arazoa ez da
makala. Ez horixe! Liburuetan irakurriak eta filmetan ikusiak ditu antzekoak. Baina oraingo
honetan bikoteak ez du filmetan bezala polizia ausarta bat laguntzeko, bera bezalako
hamabost urteko neskatoa bakarrik. Pentsatzen soilak oilo-ipurdia jartzen dio. Baina erabakia
hartua du, eta ez daki nola, baino lagundu behar die. Saltsan sartu, argi eta garbi esanda.
Hotzikara batek astindu dio gorputza.

—Horregatik —jarraitu du mutilak—, balizko xantaiaren bat saihesteko edo, erabaki du aitak
ni Frantziatik bidaltzea, toki seguru batera aitonarekin. Aitonak bakarrik daki nora. Baina
zerbait ez da atera aitak uste zuen bezala, eta kinka larrian gaude, mafiosoak atzetik.

—Harrituta utzi nauzu. Oso harrituta! Eta, egia esaten badizut, kaka eginda ere.

—Eta... atzera egingo duzu? Ez diguzu lagunduko? —mutilak, larrituta.

—Lagunduko dizuet, bai, baina gauzak ongi pentsatuta —esan dio June, isilaldi labur baten
ostean.

Afalduta bitartean ez dute asko hitz egin. June ez daki nola beteko duen eman dion hitza.
Janariekin ez du arazorik ikusten. Botikarena iruditzen zaio zailena. Ez du uste errezetarik gabe
emango diotenik. Pertsona heldua izango balitz, agian... Eta orduan ere... Beste zerbait
pentsatu beharko du. Zer, ordea...?

—Iker! —oihu egin du bat-batean.

Harrituta begiratu dio Françoisek. Harridura aurpegian begira geratu zaio Juneri.

—Lasai, ez da ezer gertatzen —June konturatu da—. Nire lagun bat da Iker. Lagun ona. Eta

azkarra gainera. Inor laguntzekotan bera izango da. Bestela... Ikerren aita sendagilea da, eta Iker konbentzituz gero, nola edo hala moldatuko da botika lortzen.

Telefonoa eskuan, deitu aurretik zalantzaz egon da June, ez baitu Iker saltsan sartu nahi. Beraz, nola... Ez daki. Dakiena da arazoan nahastu gabe lortu behar duela haren laguntza. Deitu dio. Berehala aditu du lagunaren ahotsa.

—Kaixo, June, nolatan ordu hauetan deitzen? Berriren bat kontatzeko duzu? —galdetu dio.

—Berririk ez. Edo bai. Ez dakit nola esan... —etenaldi bat egin du Junek. Laburra—. Mesede bat eskatzeko deitu dizut, Iker.

—Esan, eta nire esku badago, gustura egingo dizut.

—Bai, baina... Arraro irudituko zaizu eskatu behar dizudana, eta ez naiz harrituko Junek ez du jarraitu. Isilaldi bat egin da. Segundo gutxikoa. Ikerrek eten du.

—Tira, June, esan zer nahi duzun —iker konturatu da Juneren urduritasunaz—. Hain larria al da eskaria?

—Zure aita sendagilea da, ezta?

—Bai, hori badakizu. —Ikerren tonua serioago bihurtu da, susmoak hartuta edo.

Hori ikusita zuzenean aritzea erabaki du Junek.

—Arazo bat daukat, Iker, bertigoen kontrako pilulak behar ditut, eta ez dakit nola lortu. Errezetarik gabe esan nahi dut. Edo, bestela esanda, nola lortu errezeta bat.

—Bertigoak sendatzeko pilulak...Zuretzat? —harrituta gelditu da Iker.

—Ez, ez dira niretzat. Urduri samar baina ondo nago. Begira, Iker, beranduenean bihar goizerako beharko nituzke pilulak, edo errezeta bat, ireki bezain pronto botikara joateko. Baina, mesedez, ez galdetu zergatik edo norentzat diren. Egun gutxi barru esango dizut, dena argituko dizut. Orain, baina, hobe kontu hau bion artean geratzen bada. Eskuratzerik ez duen agure batentzat dira, ez dago larri baina behar ditu, oraingoz horixe besterik ezin dizut esan.

—Zer esango dizut... Harrituta utzi nauzu. Bertigoak sendatzeko pilulak...

—Normala iruditzen zait zu harrituta egotea, baina arrazoia jakindakoan dena ulertuko duzu. Hauek dira. —François emandako botikaren izena esan dio— Saiatuko zara hauek bezalako edo antzekoak lortzen? Ez dakit nola, baina ziur nago kapaz zarela. Hemendik egun gutxitara esango dizut arrazoia.

—Ikaragarria zara, June, ikaragarria bezain zintzoa. Nirekin eta edonorekin ere. Horregatik, nire esku dagoena egiten saiatu naiz. Baina ez dizut ezer agintzen.

—Ongi, Iker, eta biziki eskertuko dizut. Orain moztu beharrean nago. Badakizu, ahal izanez gero, bihar goizerako beharko nuke botika.

Ekaitza herriaren gain-gainean dago. François eta June azken honen gelan daude, leiho atzetik

zeruko ikuskizuna ikusten. Mendialdera ematen du leihoa eta behatoki aparta da naturaren haserrea ikusteko. Begiak zabal-zabalik daude begira, isil-isilik, une batez gogoetak eta arazoak ahaztuak. Oheratu aurretik Ikerrek deituko diolako itxaropena du June. Ezagutzen du, eta ziur da jadanik jo eta ke ari dela eskatutakoa nola bete.

Bat-batean zerua sutan jarri da. Naturak antolatutako su-festa punturik gorenean dago. Tximistek zero beltza urratzen dute, eta trumoiak lurra dardarka jarri. Halako batean argindarra joan da. Gela ilunpetan, ikuskizuna are ederrago bihurtu da. Haize-zurrumbilo batek bortitz astindu du guztiz jaso gabe dagoen terrazako toldoa. June ikaratu da.

—Jaso beharko dut toldoa, haizeak txikituko du bestela. —Terrazara atera da.

François atzetik joan zaio. Lagundu dio toldoa biltzen eta terrazako aulkiak bazter batera eramaten. Gero gelara itzuli dira su-festa ikusten jarraitzera. Eta horrela egon dira ekaitza urrundu arte.

—Orain, lotara joan beharko dugu —esan du June, gauak lasaitasuna berreskuratu duenean—. Zuk behean egingo duzu, egongelan. Sofan eroso egongo zara manta baten azpian. Saiatu dena bere tokian uzten. Nire amak zerbait sumatzen badu, arazoak izango ditut. Egunsentiarekin jaikiko gara.

Mutila behean utzirik, bere gelara itzuli da June. Ohean sartuta pentsakor egon da, kezkatu samarra. Deituko al dio Ikerrek?

Halako batean, whatsapp bat sartu da mugikorrean. Arestian tximistak zerua zeharkatzen zuten abiaduran luzatu du besoa June. Telefonoa hartu du. Ikerrek bidalitakoa da. Urduri ireki du, eta mezua leitu duenean, urduritasuna poz bihurtu da. Lortu omen ditu pilulak. Goizean eramango dizkio. Arindura handia sentitu du eta beheara joatea pentsatu du, François-eri esatera. Azkenean, ideia baztertuta, ohera sartu da. Nekatuta dago. Laster loaren mundu magikoaren muga zeharkatu du.

Ekaitza lehertu denean Leire sofan dago, luze, esamesa eta trapezu zaharrak gai nagusiak diren telesaio bat ikusten. Leireri, Juneri ez bezala, ez zaizkio fenomeno atmosferikoak batere interesatzen. Hortaz, argindarra joan denean, purrustada bota du.

—Kaka zaharra! —esan du, ernegatuta—. Unerik interesgarrienean argia joan behar.

—Ez duzu gauza handirik galduko, egunero lelo berberekin dabilta-eta —esan dio aita, egunkaria aldamenean utzita.

—Zuk bezala futbolarekin. —Leire ez da isilik geratu.

—Leire, lotsagabekeriarik ez, e! —amak—. Zalea bada ere, berarena ez da zurea bezalakoa, eguneroko kontua. Hobe June bezala egingo bazenu —ingelesezko filmarena esan dio—. Ziur nago ez zaizkiola zuri bezainbeste gustatzen horrelako telesaioak.

—Berak ere ikusten ditu. Lagun guztiok ikusten ditugu. Eta baita zuk ere —aurpegiratu dio..

—Berriz ere! Lotsagabea halakoa!

Argiaren etorrerak amaia eman dio eztabaidari. Baina emanaldia bukatuta dago.

—Leire, zergatik ez diozu Juneri deitzen, nola dagoen jakiteko? —esan dio amak, iragarki andana pantailatik pasatzen hasiak direla.

—Berandu da. Telefonoa hoska hasten bazaio beldurtuko da.

—Bai, berandu da, arrazoi duzu.

Leire sukaldera joan da ur edatera. Itzuli denean telebistakoa ez da bere gustukoa. Zer egin ez dakiela egon da une batez. Azkenean eskaileratan gora joan da, lotara joateko asmoz. Terraza paretik pasatzerakoan haizeak lurrera bota du han dagoen arropa zabaltzeko esekigailua. Jasotzera irten denean June etorri zaio gogora. Jakin nahiko luke zertan dabilen bera bakarrik etxean. Ingelesa praktikatzen dio amak...

Bai zera!

Haren etxe aldera begiratu du. Terrazak banantzen duen manpararen atzean sartzen ikusi du oinaztargi baten argipean. Baina argitasunak iraun duen istantean terrazaren horman itzal bat ikusi uste du mugitzen. Juneren aurretik gelan sartu den norbaitena iruditu zaio. Iker akaso? Irudipena ote? Ez daki, ez dago ziur, den begi itxi ireki batean gertatu da eta. Beste oinaztargi bat argitu du gaua. Terraza hutsik dago. Pentsakor egon da Leire. Ikusi uste duena aldarte txarrak eragindako irudikeria izan ote da? Ez zen harritzekoa izango, June erreta baitauka bere kontuekin, lagunaren artean eta baita etxean ere. Hala ere, zalantzak ditu, zerbait ikusi duelakoan baitago. Ez dago ezer baieztatzeko, baina ezta ezeztatzeko ere. Iker datorkio burura. Bera izango zen? Buelta hartu eta etxera sartu da.

Beherago, beste txaleta batean bi gizon daude egongelan, hankak zabal-zabalik, izerditan.

—Gaur ere alferrik, Roland —dio batek—. Eta lau egun dira alderdi honetan gora eta behar gabiltzala. Ez dakit zer pentsatu.

—Nik ere ez, Marcel, baina zer esango dizut, sinetsita nago inguruan daudela —lagunak.

Kanpoan trumoien hotsak entzuten dira. Barruan esatari baten oihuak. Bikotea futbol partida bat ikusten ari da telebistan, garagardo-poto bata bestearen atzetik edaten eta zigarretak erretzen. Kea, izerdi, eta tabako gorriaren usaina zabaldua daude gelan. Ke-laino urdinxka bat sabaiari itsatsita.

—Urruti ez daudelako sentsazioa dut —Rolandek errepikatu.

—Ba hau ez da Paris ezkutatuta egoteko —Marcelek, erneguz.

—Parisen honezkero lokalizatuta edukiko genituzke. Ahaztu al duzu autoan jarri genien uhin-igorgailua?

—Ez, baina jadanik ez dakit zer pentsatu. Ondo ote dabilen, esan nahi dut.

—Ez da ezinezkoa, baina ez dut uste. Estalduraren kontua da arazoa, nik uste.

.

—Izan daiteke. Baina mendia arakatu dugu, eta ez dugu monobolumenaren arrastorik aurkitu. Eta meategi hartan ere ibili ginen.

Marcelek trago bat garagardo edan du. Zigarreta bat hautsontzian zanpatu eta berehala beste bat piztu du. Gauza bera egin du Rolandek. Isilik egon dira pixka batean.

—Ikusi ez dugun txabola edo bordaren batean ez baldin badaude... —Boz goraz pentsatu du Rolandek—. Bihar, goizetik hasita, berriro miatuko ditugu inguruak.

—Eta ez badugu ezer lortzen?

—Jende artean galdezka ibili beharko dugu. Ez genuen asmorik baina ez zait beste ezer bururatzen.

Abuztuak 16, larunbata

June lo nahasia egin du. Tarteka lo, tarteka esna egon da. Loaldietan amesgaiztoak egin ditu, eta esna egon den aldietan gogoeta ilunek ez diote bakean utzi. Goizaldean, azkenean, lo seko dagoela, hots batek itzarri du. Zonbi bat bezala telefonoaren bila aritu da mesanotxean. Hartu duenean konturatu da isilik dagoela. Ordua ikusi du pantailan: zazpiak eta hogeita bostak dira. Ideiak koordinatzen ari dela, berriz ere hotsa aditu du, eta orain ezagutu du: ateko txirrinarena da.

—Iker! —oihu egin du, eta jauzi batez jaiki da.

Kirol-jertse bat eta praka motzak jantzi ditu pijamaren gainean. Gero, saltoka jaitsi da atea zabaltzera.

—Zoaz gora, nire gelara, bizkor! —esan dio Françoisi, ondotik pasatzerakoan.

Atea ireki du. Uste bezala, Iker azaldu da ate ostean. Poltsatxo bat dakar eskuan. Ikusita, poztu egin da June, eta poztu batera harritu laguna hain goiz ikusita.

—Egun on, June, lehenago ezin izan naiz etorri —esan dio Ikerrek.

—Ezta ni espero ere, Iker, lasai, lo harrapatu nauzu. Nolatan hain goiz?

—Ama eta aita freskurarekin ibiltzera atera dira, eta ni botikinean arakatzeko probestu dut. Pilulak aurkitu eta etorri naiz.

Bizkarrera begiratu du June disimuluz, eta gero baztertu egin da, laguna sar dadin. Iker barrura sartu da.

—Hona hemen pilulak. Ez dira zuk esandako markakoak, baina berdinak edo antzekoak —esan dio, eta kaxatxo bat eman.

—Mila esker, Iker, lagun ona eta zintzoa zara. Benetan esaten dizut, eta ez egin behar didazun mesedegatik bakarrik.

—Zeu ere jator portatzen zara nirekin. Kito gaude.

—Bai, baina lagun onen artean ez dira sekretuak izaten, eta nik ezin dizut esan eskaeraren arrazoa. Eta ez da zugar fidatzen ez naizelako. Halere, bart esan nizun bezala, bi edo hiru egun barru dena argituko dizut, eta orduan ulertuko duzu zergatia.

—Horixe espero dut. Egia esan ez zait oso normala iruditut botika arrunt bat hain modu misteriotsuan eskatzea.

—Ez naiz harritzen, Iker, baina agindutakoa, itxaron egun batzuk eta jakingo duzu zergatia. Nola lortu dituzu?

Ikerren amarenak omen dira. Afaltzen ari zirela bertigoak zer diren galdetu zion aitari, bestela bezala, berea jakin-mina hutsa balitz bezala. Amak aditu orduko, aitari aurrea hartu, eta hasi zitzaion argibideak ematen, iaz berak eduki baitzituen. Hiru egun txarrak pastu omen zituen hobera egin arte, aurreneko bietan ahoz gora etzanda, mugitu orduko zorabiatu egiten baitzen. Baina botika hartuta laster hasi zen hobera egiten. Hori esan eta gero, Ikerren

pozerako, artean botikinen sobera geratutakoak zituela, gehitu zuen.

—Lan handiena botikinean pilulak aurkitzea izan zen, erabil-orriak irakurri egin izan baintuen, zein zen jakiteko. Hemen dituzu. Eta, orain, zer egin behar duzu?

—Behar dituenari eman. Eta laster gainera. Beraz prestatzera joan behar dut. Gero egongo gara. Mila esker berriro.

Iker begira geratu zaio, mesfidati, beldurrez bezala.

—Ez dakit zertan zabiltzan, baina zorte on, June. Gero arte.

June ate ondoraino lagundu dio Ikerri, eta bistatik galdu arte begira egon zaio ate ondotik.

Iker espaloira irteteko unean automobil bat pasa da kaletik. Irene doa barruan, gurasoekin. Ikerrek ez du neska ikusi baina horrek bai mutila. Irribarre gaiztoa azaldu zaio ezpainetan. Ordua begiratu du. Zortziak laurden gutxi. Irudimenak lanean hasi zaio.

Bien bitartean June gelara itzuli eta beheko solairura bidali du François. Jantzi da. Gero sukaldara joan da eta bi katilukada Cola-Cao prestatu ditu. Gaileta batzuekin lagunduta hartu eta mendialdera joateko prestatu dira.

—Beste zerbait behar al duzue? —galdetu dio mutilari June, abiatu aurretik.

—Ura eta esnea batez ere. Eta ahal baldin bada zerbait jateko ere. Dagoeneko ezer gutxi geratzen zaigu, eta irteera atzeratzen bada...

—Ura, esnea eta atzo sobratutako ogia emango dizut. Lata batzuk ere. Horrekin moldatu beharko duzue.

June poltsa baten bila joan da janariak han sartzeko. Tximeletak dantzan dabilzkio sabelaldean eta beldurrak arnasa estutzen dio. Nahi du mutila joan dadin, bakarrik gelditu, ea lasaitzen den. Baina ez daki meategira galduta ibili gabe itzultzeko gauza izango den.

—Itzulerako bidea ezagutzen duzu? —galdetu dio.

—Oso ongi ez. Bart galdu egin nintzen.

Isiltasuna egin da bien artean. Elkarri begira daude, mugitu gabe, June poltsa eskuan, zalantzaz betea, beldurrak airean. Ez daki zer egin. Azkenean erabakia hartu du.

—Tira, erakutsiko dizut nik. Zatoz!

June garajetik motxila zahar bat hartu du eta poltsa sartu du barruan. Itxaroteko keinua egin dio mutilari, bizikleta hartu, eta kanpora irten da. Alde guztietara begiratu eta gero irteteko keinua egin dio mutilari. Urbanizazioaren atzealdean dauden soro eta mahastietan zehar doan bidetik abiatu dira. Lanetarako ez bada, oso jende gutxi erabiltzen du.

—Bide honetatik pistaraino joango gara, eta handik meategira.

Ordu erdi bat geroago, gutxi gora behera, meategi aldera doan pistara iritsi dira. June bizikleta bultzaka, François aldamenear, joan dira pistan gora. Goraxeago bidexka batera iritsi dira. Marra gorri-zuriz markatuta dago, GR bideetan egoten direnak, mendizaleak erabiltzeko. June

haren parean gelditu da.

—Hemendik aurrera bakarrik joan beharko duzu. Nire ama ospitaletik itzultzen denerako etxean egon behar dut. Ez zara galduko, marra zuri-gorriak jarraituz mendilerroaren bizkarrera iritsiko zara, bidegurutze batera. Hor, pistaren adar bat behera doa, meategira. Baina hobe duzu, badaezpada, hortik ez joatea. Jo ezkerrera, eta hogeit bat metrora-edo, bidezidor bat ikusiko duzu. Hortik zuzenean iritsiko zara meategira, pistatik baino dezente lehenago eta gordean.

—Oraingoan ez naiz galduko, atzo bezala. Eta bizkar-zorroa? Ez dizut itzultzerik izango.

—Ez du axolarik. Eraman ezazu, traste zaharren artean neukan baztertuta.

—Nola eskertuko dizut egiten ari zaren guztia?

—Ezagutzen nauzun ahaztuta, zer gerta ere.

Eskerrak eman dizkio mutilak, hitzez eta bihotzez, eta joaterakoan bi musu masailetan. Gero, June lotsaz gorrituta utzirik, bidexkatik barrena joan da.

Aurpegia sutan begiradarekin jarraitu dio bistatik galdu arte. Galdutakoan bizkor abiatu da pistan behera, bihurtuneetan hautsa harrotzen. Lautadara iritsi da. Pistek bat egiten duten tokian gelditu egin da, inor datorren ikusteko.

Eta ikusi duenak dardara eragin dio: jeep beltza bide erdian dago geldituta, eta aldamenean bi gizon beltzaranak nekazari batekin hizketan. Zangoak dardarka, pedaletan kokatu, eta abiatu da. Ondotik pasatzerakoan nekazariak begiratu eta gelditzeko keinua egin dio.

—Itxaron momentu bat neska —esan dio—. Gazte udatiar hauek hara-hona ibiltzen dira bazter guztietan sudurra sartzen. Beharbada zerbait jakin dezake —gizonezkoei jarraian.

Gelditu da June. Hanka bat lurrean jarri, eta bihotza danba-danba bularrean, begira geratu zaio bikoteari. Itxura beldurgarria dute gizonak. Biek begiratu diote, baina nekazariak hitz egin du berriro.

—Jaun hauek, gaizki ulertu ez badiet, bikote baten bila dabilta, gizon zahar bat eta mutil gazte bat. Monobolumen urdin batean omen dabilta. Ez duzu ezer ikusiko mendian? —galdetu dio.

—Ez naiz oso urrutira joan. Goraka hasi, eta laster buelta hartu dut. Aldapa gogorra da niretzat. Zuek izan ezik ez dut inork ikusi —kaka eginda dago, baina saiatuta tonu nahiko sendoan esan du.

—Ez da preseski gaur izan behar —esan du bietako batek, ozta-ozta ulertzeko moduan—. Azken egunotan ere ez? Eta ez hemen, herrian edo... Monobolumenak matrikula frantsesa du.

—Nik behintzat ez. Zerbait gertatzen da, ala? —June ez daki nola atera zaion galdera.

Gizonak elkarri begiratu diote. Beharbada ezustean harrapatu ditu Juneren galderak.

—Ez, ezer berezirik ez, ez du garrantzi handirik —esan du gizonak, une bat geroago—. Dena dela, herrian gaude, txalet batean, eta agian berriro topatuko gara. Orduan, zerbait jakin edo aditu izan bazenu...

—Esango nizueke. Orain banoa. Agur —esan die, eta abiatu da, indartsu ematen pedalei, lehenbailehen urruntzeko.
Bikoteak begiradaz jarraitu dio.

Arnasestuka sartu da garajera June. Sartzeko unean telefonoa hasi da hoska. Ama da. Arnasa berotuta dauka eta ez du deia hartu. Geroxeago deituko dio, arnasa bere onera etortzen zaionean.

—Non zeunden? Ez zinen ohean egongo, ezta? —galdetu dio amak, deitu dionean.

Ordua begiratu du: hamaikak eta hogeia dira. Estutu egin da June. Azken orduetako gorabeherekin ahaztua zuen amona. Larri jarraituko du? Okerrago? Lehenik eta behin bere burua zuritu du eta ondoren amonaren osasunaz galdetu dio.

—Kanpoan nengoen irakurtzen eta ez nuen telefonoa ondoan. Barruan kargatzen neukan. Zer moduz dago amona?

—Horrela bada... Amonak hobeto dago. Baina izeba Kontxik ez du etortzerik izan eta ospitalean geldituko naiz iluntzera arte. Bederatzia aldera iritsiko naiz etxera. Pizza bat eramango dut, eta elkarrekin afalduko dugu. Leireren etxean bazkalduko duzu.

—Ama, nahiago dut hemen bazkaldu, prestatuko dut zerbait.

—Ez, amona nola dagoen galdezka deitu dit Leireren amak, eta horretan gelditu gara. Leire ez zegoen etxean, baina pozik jarriko dela esan dit.

Buruari eragin dio June. Ez du uste. Baina ez du ezer esan, noski. Zorioneko Alex dela medio, bien arteko adiskidetasuna ez dago unerik onenetan. Eta horretaz gainera, motibatu beharrean, alaba gutxiesteko ohitura dauka Leireren amak. Behin baino gehiagotan, gainera, haren lagunen edo beren gurasoen aurrean. Eta, horrez gainera, behin baino gehiagotan eredutzat jarri du June Leireren aurrean. Eta amorrazio ematen dio. Handia. Berak, izan ere, ez du inoren eredu izan nahi. Tira, ez du beste aukerarik eta joan egingo da bazkaltzera.

Deia eten eta gero François eta bere aitona etorri zaizkio burura. Egunak daramatzate meazuloan sartuta. Eta kanpoan, putreak sarraski bila bezala, mafiakoak euren bila. Aitona gaixorik eta jateko eta edateko gutxi dute. A zer egoera! Pena sentitu du. Bere esku balego zerbait egitea... Pentsakor orain. Bai, egin lezake: jateko eta edateko zerbait gehiago eraman. Bai, baina... Ama ez dator, beraz arratsaldean dauka eramateko aukera. Zalantzak. Eta gehiago nahastu arazoan? Beldurra orain. Isilune bat. Luze samarra. Azkenean, beldur eta guzti, ez du ideia erabat baztertu, nahi ala ez nahastuta baitago dagoeneko.

Goseak dago. Sukaldera joa eta sagar batekin itzuli da. Sagarra jan bitartean lehian ibili dira aldekoak eta kontrakoak bere buruan, beldurra eta adorea, alegia. Ez daki zer egin, ez dauka garbi, batere. Azkenean, aldekoak atera dira garaile, arratsaldean joango da meategira eta ogi, txorizo eta urdaiazpikoa eramango dizkie. Eta fruta pixka bat ere. Ez du pisu gehiegi hartuko,

joan-etorria ahalik eta azkarren egiteko.

Sagarra jandakoan, bizikleta hartu eta herrira joan da erosketak egitera.

Erosketak egin ostean igerilekura joan da June. Xukaderetan etzanda topatu ditu lagunak. Berea zabaldu eta etzan egin da. Urduri dago, baina lasai itxura egiten saiatzen aro da. Itxuraz lortu egiten du, inork ez baitu ezer esan. Berriketan ari dira lagunak, bezperako ekaitza hizpide.

—Niri beldurgarria iruditu zitzaidan —dio Irenek—. Etxe barruan egon nintzen, beldurrez.

—A zer neska ausarta! —Alexek, isekaz—. Eta zu zer? —galdetu dio gero Ikerri, burlati begira—. Ohe azpian sartuta, ziur nago.

—Ba ez —Ikerrek, zalantzatxo baten ostean—, argazkiak egiten leiho ostetik. Ekaitz egunetan arriskutsua da kanpoan flasha erabiltzea. Baina politak atera nituen.

—Balentria handia zurea! Harrituta uzten nauzu. Eta zu, June, zeu ere beldurtuta? —galdetu dio.

—Ez, baina ni ere gelatik begira egon nintzen —esan dio—. Gustura gainera. Su artifizialak bezain ikusgarriak iruditzen zaizkit ekaitzak. Leku babesetik ikusita, noski.

—Ez zinen terrazara atera? —Leireren galderak ezustean harrapatu du June. Gaitzustean egin diola iruditu zaio.

—Bai, atera behar izan nuen, toldoa jasotzera.

—Zu bakarrik? —aurreko tonua markatuagoa.

—Beharko, bakarrik nengoen eta —erantzun dio June, sendo eta lehor, urduritasuna ezkututzen—. Zergatik galdetzen didazu?

—Ezergatik ez. Edo, bai. Terrazatik begira nengoela ikusi zintudan. Zu garbi, baina iruditu zitzaidan ez zeundela bakarrik.

—Irudipena izango zen zurea. Zer ikusi zenuen ba? —galdetu dio, larri samar.

—Ezer garbirik ez, pertsona baten itzala edo.

Françoisena, pentsatu du June, litekeena zen. Urduritasuna ezkutatzaz erantzunaren bila hasi da. Eta berehala topatu.

—Leire, atmosfera zegoen bezala, argitasun bizitik itzalera pasatzen, ez harritu itzalak eta horrelakoak ikustea. Niri, behintzat, nahiko normala iruditzen zait —esan dio.

Hori esan eta Alexek berreskuratu du hitza, burlati mintzoz, aldi honetan, harritzekoa!, June estualditik ateratzen lagunduz.

—Zeu ere, Leire, ez zinen kaka eginda egongo, itzaletan mamuak ikusten. A ze kuadrilla! —esan du, isekari.

Leirek amorru-keinua egin du. Muturra okertu du. June barre agin du bere artean, Alexek estualditik ateratzen lagundu baitio, edo, zehatza izate aldera, besteen kontura barre egiteko duen ohiturak. Nahi gabe, jakina, baina aldi honetan unerik egokionean. Izan ere, horretan

gelditu dira ekaitzaren nondik norakoak, Juneren lasaitasunerako.

Igerilekuetatik etxera bazkaltzera doazela, oraindik muturtuta doa Leire. June, ohartuta, lasaitu nahi izan du, gertatutakoari garrantzia kentzen.

—Leire —esan dio—, gauzak ez dira hain estu hartu behar. Alexen txantxaz ari naiz. Badakizu nolakoa den, zuk esandakoa da hori. Gaur, gainera, ez dakit ezkerretik jaikia ez ote zen. Horrelakoetan ez entzunarena egin, eta kito.

—Zuri gustura emateko egin duela iruditut zait.

—Niri...? Bai zera! Tira, Leire, jeloskor orain? Ai ene! Nire esku balego, edabe magiko bat banu, eman eta zurekin txora-txora egongo litzateke Alex. Benetan esaten dizut.

—Ez dakit ba... Erreta nago. Zu gertu bazaude Alex ez da normal egoten, bera ere erreta bezala egoten da, eta besteok ordaindu behar izaten dugu bere haserrea.

—Eta zer nahi duzu nik egitea? Etxean gelditu? Lagun-taldea utzi? Hori akaso? Ba, ez, beharbada hori nahiko luke Alexek, baino ez diot poz hori emango.

—Ez, baina... Istripu izan zuenean ere zu zeunden tartean. Eta orain besteok ordaindu behar bion arteko ika-mikak.

Alain hurbildu zaie eta bukatutzat eman dute berriketaldia.

Leireren etxean dago bazkaltzen June. Gorabehera handirik gabe doa bazkaria. June espero baino hobeto. Izan ere, haren amak ez baititu gazteen kontuak aipatu, ohi duen bezala. Postreetarako gordeta zituen, nonbait, eta gazte guztienak aipatzen hasi bada ere, laster alabarenak ekarri ditu mahaigainera. Hasi orduko, ordea, senarrak moztu dio.

—Elene, oporretan gaude, bakea behar dugu —esan dio.

Andreak aintzat hartu du senarraren nahia. Poztu da June, baina pozak ez du asko iraun. Postrea jan eta gero, arroz-esne zapoetsua, kafea eta egunkaria harturik gizona portxera joan baita irakurtzera.

—Ni ere banoa —esan du June, eta altxatzekoa egin du, baina Leireren amak gerarazi du.

—Ba al zoaz? Gelditu hemen, nahi baduzu.

—Gustura nago, baina lantxo bat egin nahi dut —gezurra esan du June.

Zerbait esate aldera esan du, eta esan orduko konturatu da hanka sartu duela, senarra kanpoan emakumeak ez du alabarekin sartzeko aukera pasatzen utzi.

—Ikusten duzu, Leire? Oporretan ere June ez du zu bezala egun guztia txoritegian egoten. Noiz ikasiko duzu...

Leirek ez du ezer esan, baina begirada esanguratsua bota dio Juneri. Ondoren muzin egin eta kopetilun jarri da. Hori ikusirik, esandakoari munta kentzen saiatu da June.

—Ez da ezer garrantzitsua. Ez du zerikusirik eskolako lanekin.

—Axola ez niri. —Andreak ez du aintzat hartu Juneren azalpena—. Zu behintzat ez zara hau

bezala egoten, egun guztia alferkeriari emana, telebista aurrean edo telefonoarekin. Hori eta parranda egiteko gogoa, besterik ez du buruan.

—Denok bezala. Oporretan gaude eta normala da —Junek, Leireren alde hitz egiten.

—Ez dizut ezetz esango, baina ziur nago zuk Leirek baino hobeto aprobetxatzen duzula denbora.

—Ez dut uste, denok ibiltzen gara antzera. —Junek ez du leloarekin jarraitzeko gogorik, eta zutitu egin da—. Sentitzen dut, baina joan beharra dut. Milesker bazkariagatik, gozoa zegoen. Leireri begiratu dio joan aurretik. Keinu adierazgarria egin dio, sentitzen duela adieraziz. Lagunak ez du ezer esan. Erreta dago.

Etxera joan da June. Zalantzak erasota, beldurak gehiago, motxila prestatu eta puska bat egon da telebistari begira, pantailakoari jaramonik egin gabe. Azkenik, hamaika aldiz zuhur ibiliko dela, bere buruari esan eta gero, bostak aldera bizikleta hartu eta abiatu da. Motxilan, ogi, fruta, txorizo, urdaiazpiko eta ur darama. Oraingo honetan ere txaletaren atzealdetik joan da pistaraino. Bero da eta ez du inorekin topo egin bidean. Iritsi da goizean François eta bera banandu diren tokira. Bizikleta ezkutatu eta bidezidorrean gora joan da. Goialdera iritsia, pista zeharkatu eta beste bidezidorra hartu du, zuzenean meategira doana. Inor ez mendian. Sugandilak soilik. Sartu da meazuloan. Atseginez hartu du barruko freskura. Zuloan barrena joan da. Bikotea ezkutatuta dagoen tokitik gertu, bihurgunea egiten duen alderdian, gelditu eta oihuka hitz egin du.

—June naiz, ez zaitezte beldurtu —esan die.

Zain gelditu da. Laster argi bat azaldu da bihurgunean, eta argiaren atzean François. Begira-begira gelditu zaio mutila, harrituta.

—Nolatan zu hemen? Zerbait gertatu da? —galdetu dio mutilak.

—Ez, ura eta jateko zerbait ekartzera etorri naiz. Eta zerbait esateko ere badut. Tipo batzuek zuei buruz galdezka dabilta —goizekoa kontatu dio.

—Zatoz, aitonari esango diogu.

Joan dira monobolumena dagoen tokira. Aitona atzeko ezarlekuan dago etzanda. Burua mugitu du, poliki-poliki, June ate ondoan ikusi duenean. Hari ere bi gizionekoena kontatu dio, eta ondoren haien ezaugarriak eman.

—Horiek dira, ziur, gure atzetik dabilzanak. Marseillako mafiako morroiak. —Pentsakor egon da une batez—. Ez dute erraz etsiko. Baina nagoen bezala ezin inora joan, itxaron beste erremediorik ez dugu. Oraindik bi pilula besterik ez ditut hartu, baina eragina nabaritzen hasia naiz, hobeto nago. Hala ere, onenean ere, beste bi egun itxaron beharko ditugu hemen.

—Hemen egon ziren, ezta? Meategi barruan esan nahi dut —esan du Junek, Françoisen esan ziola gogoratuta—. Horregatik, beharbada, ez dira berriro sartuko.

—Ez dakit ba... —aitonak—. Ez dakit nola lokalizatu gintuzten muga zeharkatu eta gero. Kezkatuta nauka horrek. Gure telefonoen bitartez edo... Ez dakit zulo honetatik irten eta gero zer gerta daitekeen. Baina garbi dago noizbait irten egin beharko dugula. Gero gerokoa!

—Nire esku balego zer edo zer egitea... —behin saltsan sartuta, beldur eta guzti, leporaino sartzea, pentsatu du June.

—Dagoeneko nahikoa eta sobera egin duzu. Egiten ari zarena eskertzekoa da, baina arriskutsua, eta ez nuke nahi zuri ezer gertatzea. Hobe bazter gelditzen bazara.

—Zorionez edo zoritxarrez, nahita ere ezin dut. Gehiegi dakit.

—Hala da, bai, zuk beste inork ez baitaki non gauden. Zeren... ez diozu inori esan, ezta?

—Ez, ezta burutik pasatu ere.

—Ongi, bada. Baina oraintxe esandakoa, zoaz eta ahaztu ezagutzen gaituzula. Hemendik aurrera nola edo hala moldatuko gara François eta biok. Erosketena ordainduko dizugu. — Berrogeita hamar euroko billete bat luzatu dio.

—Baina nik ez dut horrenbeste gastatu —esan du June, billetea hartu gabe.

—Egin duzunak hori eta gehiago balio du, askoz gehiago. Har ezazu. Mila esker eta ondo izan, gure esker ona betiko izango da. Neska zintzoa eta adoretua zara, bai horixe.

Azkenean hartu du billetea. Meazuloaren irteeraraino lagundu dio François-ek. Hunkituta mintzatu zaio mutila.

—Eskerrik asko, June, zuretzat agian ez, baina guretzat zorte handia izan da zurekin topo egitea. Dena ondo ateratzen bada, ez dakit nola, baina gustatuko litzaidake egiten ari zarena merezi duen bezala eskertzea.

—Dena ondo ateratzen bazaizue sentituko dudan pozarekin ordainduta sentituko naiz. Tira, banoa, agurrak triste dira beti. Zorte on bioi.

Bidezidorrean gora arnasestuka joan da, eta saltoka eta korrika bizikleta ezkutatuta utzi duen tokiraino jaitsi. Gero, dena emanda, pistan behera abiatu da. Ama iritsi baino lehen nahi du etxean egon, dutxatuta eta arnasa lasaituta.

Herritik gertu lkerrekin topo egin du.

—Hara! Zer zabilta zu hemen? —galdetu dio mutilari.

—Buelta bat ematen. Baina lasai, ez zu bezala. Itota zaude. Izerditan blai. Nondik zatoz?

—Hor nonbaitetik, baina ez naiz konturatu eta berandutu egin zait, horregatik nator ziztu bizian. Eta zu, nola ez zara lagunengana joan?

—Ez nuen Alexen txantxak berriro jasateko gogorik. Gaur behintzat. Telebista ikusten egon naiz, eta, pixka bat freskatu duenean bizikleta hartu dut.

—Zorioneko Alex... Nazkante horrek oporrak hondatu nahi dizkigu. Baina ez du lortuko, ez horixe!. Ez naiz ibiliko sesio bila, baina ezta bere aurrean kikilduko. Garbi daukat.

—Batzuetan, beldurra ematen dit. Zu neska zara, eta neurri batean horrek laguntzen zaitu, beti horrela ez bada ere. Baina nire kasuan ez da berdina, edo hori iruditzen zait niri, behintzat.

—Eta txarrena da taldeko gehienak berari begira dabiltzala, aho zabalik zer esaten eta egiten

duen, taldearen burua balitz bezala. Nazkatuta naukate. Morroi hutsak baino ez dira. Eta Leire eta Irene txora-txora eginda dauzka, hari begira baba dariela. Ikaragarri! Mokoka bukatzen ez badute...

June joan eta gero telebista ikusten egon da Leire. Bostak aldera, lagunekin elkartzeko etxetik atera denean, bultzada batek Juneren etxera eramane du. Lorategi txikia zeharkatu, eta ateko txirrina sakatu du. Itxaron gelditu da. Itxaronaldia luzatuz joan da. Hotsik ez etxe barrutik. Berriz ere sakatu du txirrina. Alferrik orain ere. Jakingura hozkaka hasi zaio, burua galderaz bete. Ez da etxean egongo? Egongo da eta ez dio atea zabaltu nahi? Baldin badago, bakarrik? Ikerrekin ote? Eta ez badago, nora joan da? Zein izango zen egin asmo zuen lana?

Galdera gehiegi erantzuna bakarrik bila aritzeko. Alexi kontatu behar dio.

Pentsa eta egin. Zortea alde izan du gainera. Lagunak igerilekuetara joan dira eta Alexek ez zuen joateko gogorik. Eta, gainera, Irene Iruñean omen dago. Leirek ez du aukera galdu Alexekin bakarka gelditzeko. Parkean gelditu dira biak.

—Kristoren beroa eta ezin bainatu. —Kexatu da Alex—. Ditzosozko orkatila honek nazka-nazka eginda nauka. Eta hori bahikoa ez, aita haserre dago oraindik. Dena June nazkante horrengatik. Gertu dagoenean itsutu egiten naiz batzuetan, neure onetik ateratzen nau. Ez dakit non dabilen, eta hobe.

—Ezta Iker ere —Leirek iradoki, maleziatsu.

—Egia da. Arrebaren panpinekin jolasten egongo da.

—Agian ez. Eta Junerekin balego...

—Zergatik diozu hori.

Ekaitza gauean terrazatik ustez ikusi zuena kontatu dio berriro, jarraian bazkalondoan bere etxetik alde egiteko Juneren presak, eta, azkenean, alferrik egon zaiola deika.

—Ez dakit zer dabilen. Dakidana da bakarrik dagoela etxean ez dela kuadrillan azaldu. Ez eta Iker ere. Ez dizu zer pentsatu ematen?

Oraingo honetan adi entzun dio lagunak, txantxarik egin gabe. Gero pentsakor egon da.

—Hori horrela bada... Ez du ematen oso normala denik Juneren portaerak. Hala ere, elkarrekin badaude, ez dakit zer arraio ikusi duen Ikerrengan —haserre samar bukatu du, urguilua minduta.

Ez baitu ulertzen Juneren jarrera. Berari ezetz esan eta orain Ikerrekin? Ezinezkoa iruditzen zaio. Eta iraingarria. Bera amorrarazteko pentsatua, bestela ezin.

—Eta guk uste baino buru bihurriagoa badu June? Ez dakit, agian gustatzen zaio jendea menpe edukitzea. Eta hala bada, nor Iker baino egokiagoa? —Leirek irudimena zoro dauka—. Pisu samarra da, jakintsu horietakoa, baina ez da munstro bat.

—Bai, baina lagun-taldeko besteon aldean... Beste zerbait izan behar, Leire. Baina zer?

.

Pixka batean isilik egon dira. Alex begirada parkean galduta, pentsakor. Halako batean, irribarre gaiztoa azaldu da haren ezpainetan, eta begiak diz-diz, tinko begiratu dio Leireri.

—Zerbait bururatu zait, Leire. Baina hanka honekin... Zure laguntza beharko nuke.

—Eta izango duzu. Esan zer egin behar dut eta gustura egingo dut.

—Ez da aparteko ezer: June zelatatu. Taldeko neska zintzoa ipurdi bistan uzten lagundu. Horixe besterik ez.

—Arazorik ez, Alex, lepotik gorago nauka nire amak bere Junerekin. Ez diot begirik kenduko.

—Bikain! Ondo ateratzen bazaigu ospatu egingo dugu.

—Ez zalantzarik izan. Elkarrekin eta handiro.

Geroago, lagunak igerilekutik etorri direnean, Irene ere etorri da. Horrek pixka bat hondatu dio arratsaldea Leireri. Azkenik, eguzkia behera doala, Alain elkartu zaie.

—Hona natorrela Iker eta June ikusi ditut, bizikletaz zetozen, June motxila batekin. Mendialdetik etorriko ziren —esan die lagunei.

—Ez da izango! —Leirek, irribarre maltzurra ezpainetan, Alexi begiratu dio.

Eta mutilaren esandakoaren haritik Irenek berria osatu egin du Alex eta Leireren pozerako.

—Ba, gaur goizean, Iruñera goazela —esan du—, Iker ikusi dut Juneren etxetik ateratzen. Oraindik ez ziren zortziak izango

Leireren eta Alexen begiradek bat egin dute. Ez dute elkarri ezer esan beharrik izan, begiradek hitz egin dute euren partez.

Ama etorri da ospitaletik. June atarian dago irakurtzen. Planta egiten hobeto, denbora gutxi baita duxatik atera dela.

—Hara, June, ez zara lagunekin joan? —galdetu dio.

—Ez, arratsaldean ez. Leirekin bazkaldu eta gero, etxera etorri eta telebista ikusten eta irakurtzen egon naiz. Gero bizikletan buelta bat eman dut. Ikerrekin bidean topatu, eta orain gutxi etorri gara. Nola dago amona?

—Aspaldiko partez berri onak dakartzat. Eguerdian atera dute zainketa intentsiboko unitatetik gela arrunt batera. Hutsunerekin baina burua nahiko argia dauka. Zutaz galdetu dit.

—Ikustera joan beharko dut.

—Bai, eskertuko dizu, beti izan zara-eta bere begikoa. Nahi baduzu, bihar goizean. Nirekin joan zaitezke, eta Autobusez itzuli bazkalondoan. Ospitalean ordu asko egotea aspergarria da. Eta, gainera, ez da komeni amona gehiegi nekatzea. Iluntzean itzuliko naiz ni, eta elkarrekin afalduko dugu.

June ontzat eman du amaren plana. Sukaldera joan dira afaltzera. Gose da eta gustura jan du amak ekarritako pizza. Afalondoan zalantzan egon da, lagunekin atera edo ez. Herriko festetako azken eguna da, eta ateratzea erabaki du. Ez dauka gogo handirik, baina ez du nahi

lagunak pentsa dezatela Alexengatik dela, mutila garaile atera dela bien arteko lehian. Horretaz gainera, arazoak bazter utzita, ez zaio gaizki etorriko buruari bake pixka ematea. Ez dira lagun guztiak elkartu. Leire eta Irene Alexekin gelditu dira urbanizazioan. Junek ez du haien falta nabaritu, noski, ezta atera izanaz damutu. Alex gabe beste giroa izan da kuadrillan, lasaiagoa, eta aspaldiko partez festaz gozatzeko aukera izan du.

Abuztuak 17, igandea

Goizean ospitalera joan da amarekin June. Amona hobera doa. Sendagileek uste baino bizkorrago gainera. Burua ere argiagoa du, eta poztu da June ikusi duenean. Zazpiak aldera itzuli da herrira. Pentsatuta zuen baino beranduago. Etixerantz doala, auto bat gelditu da metro batzuk aurrerago. Ikerren gurasoena da. Igo nahi duen galdetu diote, eta beraiekin joan da urbanizatoraino. Iker eta bera bertan gelditu dira berriketan. Gurasoek aurrera jarraitu dute. Zerbait hartzera doaz kilometro pare bat beheiago dagoen ostatura.

—Ez zoaz lagunengana? —galdetu dio Ikerrek.

—Ez, gaur ez, nekatuta nago, eta etxera noa.

—Nahi baduzu, joan aurretik Coca-Cola bat hartuko dugu. —proposatu dio Ikerrek.

—Nigatik ondo, egarri naiz.

Makina batetik bi poto hartu eta banku batean eseri dira, parketik beheiago.

—Eman al zenizkion pilulak gaixoari? —galdetu dio Ikerrek.

—Bai, eta zuri eskerrak emateko esan zidan.

—On egin al diote?

—Ez dakit, eman eta gero ez dut berarekin egon.

—Hobe bihar medikura joaten bada.

—Joango dela pentsatzen dut. Baina ez dakit zer egingo duen. Nik mesedea egin nion, eta hortik aurrera berak ikusiko du zer egin. Egon al zara gaur lagunekin? —gaia aldatu du June, nahita.

—Ez, eguna pasa joan gara etxekoak, Xabierrera.

—Ni ere ez, ospitalean egon naiz. Orain ordu laurden bat etorri naiz.

Etxera joan arte, honetaz eta hartaz mintzatzen aritu dira.

—Bihar arte, June, ea noiz kontatzen didazun pilulen sekretua —esan dio Ikerrek, banantzera doazela.

—Oraindik itxaron beharko duzu. Zorte pixka batekin, asteartean edo asteazkenean kontatuko dizut, lasai egon —esan dio, irribarre bortxatua ezpainenetan.

Ez dakiela ondo zer saltsatan dagoela sartuta, pentsatu du June, Iker urruntzera doala. Eta nola bukatuko den ikusteko dago oraindik. Zoritxarrez!

Beldurra sentitu du June.

June eta Iker elkartu diren ordu berean Leire parkean dago Alex, Alain eta Irenekin, belarrean eserita. Gainerako lagunak herrira joan dira arratsalde pasa. Alaini begiratzeko dio Leirek. Irenekin gustatuta dagoela, esango luke, horregatik gelditu da beraiekin. Zoritxarrez Irenek begiak Alexentzat bakarrik ditu. Bat-batean, brast!, zerbait ikusi du eta zutitu egin da. Egiazkoa

izango da ikusi uste duena? Txirrista batek galarazi dio ondo ikustea, baina oker ez badago, June eta Iker kalean behera pasatzen ikusi du.

—Zer gertatzen da? —galdetu dio Alexek, harrituta begira.

—Itxaron apur bat eta esango dizut. —Bizkor abiatu da parkeko sarrerarantz.

Bueltan datorrela, irribarre zabala dakar ezpainenetan, maltzurra.

—Tira, esan zer ikusi duzun horren irribarretsu itzultzeko —galdetu dio Alexek.

—Iker eta June elkarrekin kalean behera ikusi ditut —esan dio.

—Eta atzo goizean nik Iker Juneren etxetik ateratzen goizean goiz —Irenek, Leire baino gutxiago ez izateko—. Uste nuen esan nizuela. Zerbait gertatzen da ala?

Begirada esanguratsua egin dio Leirek, zer axola dio berari, begiez esanez. Ondoren Alexi begiratu dio, garaile. Honek Leireren eskari isila jaso du.

—Irene, zuri ez zaizu inporta, Leire eta bion arteko kontua da.

Alexen hitzek mindu dute Irene. Leireri begiratu dio, amorrutik, baina ez du txintik ere esan. Begirada iluna ez zaio oharkabea pasa Leireri, eta irribarre batekin erantzun dio. Lagunaren amorruta pozgarria gertatu zaio, garaile sentiarazi du. Garaipena gerturatzen sumatzen du.

—Batzuetan, ez dut jendea ulertzen. Beste aukera izan, askoz hobe, eta Iker aukeratu... Ez zait buruan sartzen —esan du Alaine.

—Alain, neurtu hitzak, ez nago txantxetarako. —Alaine esandakoa ez da Alexen gustu-gustukoa izan.

Mutilak ez du ezer esan. Pixka batean isilik egon da. Azkenean, aspertuta edo, altxatu da alde egiteko asmoz.

—Herrira noa, oraindik zerbait egongo da, festei amaiera emateko.

—Ongi. Ni hanka honekin... Irene, zoaz zu ere, nigatik ez gelditu. Moldatuko naiz Leirekin —esan baino agindu egin dio Alexek.

Irene, muturtuta baina esaneko, egin du mutilak esandakoa. Bakarrik gelditu dira Alex eta Leire. Pozez beteta Leire. Pentsakor Alex.

—Aizu, Leire —esan dio, halako batean—, zergatik ez zoaz Juneren etxera bakarrik dagoen ikustera?

—Ez da ideia txarra, seguru asko bere ama ez da oraindik etorri ospitaletik. Goazen behe aldera, bada.

Hautsontzia zigarro-puntaz beteta dago. Mahaian garagardo-poto batzuk. Roland eta Marcel sofan eserita daude, hankak luze-luze, orpoak mahai gainean. Kamiseta iluna biak jantzita. Besapean izerdi-orban zabalak dituzte. Marcel galtzontzilotan dago. Telebista piztuta dago, baina ez diote jaramonik egiten. Erdi lo daudela dirudi

—Bero dago gaur, alajaina! —Isiltasuna hautsi du Marcelek.

Nagiki mugitu da. Potoa mahai gainetik hartu eta tragoa egin dio. Zigarreta bat piztu du jarraian, auskalo zenbatgarrena. Beste bat eskaini dio lagunari. Hartu egin dio. Pizgailua ezpainetara hurbildu ondoren.

—Bai, sargori dago, eta egun guztian kanpoan batera bestera ibiliak... —Zupada luzea eman dio zigarretari Rolandek. Limurki egotzi du kea.

—Eta gaur ere alferrik. Etsigarria, benetan! Inork ez du ikusi bikotea, ezta monobolumen urdin bat Frantziako plakekin. Aizu, Mercel, noiz arte egon behar dugu herri aspergarri honetan? Zementua zapaltzeko irrikan nago.

—Oraindik itxaron behar, Roland, ez dugu beste erremediorik. Badakizu nolakoak diren kontu hauek. Geroxeago, giroa freskatzen duenean, irtengo gara. Ez zegoen nire planetan sartzen, baina aukera badugu, inguruan dabiltzan gazte udatiarrei autoa ikusi ote duten galdetuko diegu.

—Ez da ideia txarra, auzo honetan dezente daude, eta hara eta hona dabiltza egun guztian. Dena dela, hau herri aspergarria! —kexatu da Marcel—. Udatiar-familiak eta nekazariak, besterik ez daude. Eta kristoren beroa!

—Dena ongi ateratzen bada, eta aterako dela sinetsita nago, bapo ospatuko dugu. Ez izan zalantzarik. Jasoko dugun ordainak denetarako emango digu.

Isildu dira. Erretzen eta edaten jarraitu dute txaletetik irten arte. Behin espaloian norabide zehatzik gabe abiatu dira.

Alex eta Leire Juneren etxerantz doaz. Irudimena lanean darama neskak: Ikerrekin imajinatzen du June, terrazan goxo-goxo toldo azpian. Ez dio inbidiarik ematen, noski, batere! Egia da Iker ez dela itsusia, baina ez du gatzik, eta hain maneratsu eta lixto da, ezen batzuetan nazka ematen baitio. Hala ere, zorte apur batekin, lagundu behar dio June ipurdi agerian uzten. Eta, garrantzitsuena, Alexen besoetara botatzen.

—Nik hemen gelditzen naiz zain —esan dio Alexek, jarleku baten eseriz. Etxe bat beherago dago Junerena—. Ea berri onekin itzultzen zaren.

—Horixe espero dut. Guretzat, noski; eta txarrak Junerentzat, jakina.

Abiatu da kolean behera.

June gelan dago musika entzuten kanpoko atearen txirrina aditu duenean. Harritu da, ama garajetik sartzen ohi da-eta. Nor izan daiteke? Behera doala, pentsamendu txarrek eraso diote. Ez du gaizki pentsatu nahi, baina atea zabaldu aurretik behatxulotik begiratu du. Leire ikusi du beste aldean. Lasaitu bada ere, susmo txarra hartu dio bisitari. Zer nahiko du? Bere amak bidalita ote? Litekeena da. Atea zabaldu du, erdiraino bakarrik.

—Kaixo, Leire. Zer nahi duzu? Amak bidali zaitu? —galdetu dio, mesfidati begira.

—Ez, etxera nindoan eta zurekin egoteko gogoia sartu zait. Azken egunetan ez zara asko azaldu.

Utziko nauzu sartzen?

—Leire, ospitalean egon naiz arratsaldean. Neka-neka eginda nago eta burua astun daukat. Ama etorri arte denbora egiten harrapatu nauzu, musika entzuten.

—Ez naiz luzatuko, June. Erreta nago eta norbaitekin hitz gin beharra daukat.

—Nahi baduzu bihar hitz egingo dugu, lasai eta luze. Zatoz gosaltzera.

—Barrena husten ez badut, ez dut lorik egingo. Tira, utz nazazu sartzen. —Pauso bat eman du aurrera. June alboratu behar izan da, pasatzen uzteko.

Egongela erdian gelditu da Leire, bazter guztietara begira. Aurrean jarri zaio June, bidea oztopatuz.

—Tira, Leire, zer da esateko duzuna? Eta ez luzatu, mesedez —esan dio, susmoak hartzen hasita, zer ote dabilen.

—Ez naiz luzatuko, lasai. Baina goazen terrazara, airea behar dut eta. Arazoek itota naukate, buruan jira eta bira dabilzkit, batez ere ohean.

—Orduan goazen kalera, terraza baino gertuago dugu.

—Nahiago terrazan. Ez nuke nahi Alexek zurekin egon naizela jakitea.

Hori esan eta, Juneren harridurarako, iskin egin eta eskaileratan gora joan da goiko solairurantz, batere lotsarik gabe, bere etxean egon balitz bezala. Mailak binaka igoz atzetik joan zaio June. Harrituta dauka lagunaren lotsagabekeriak. Eta amorrarazia, noski. Ez daki zer demontre dabilkion buruan. Zerbait bai, ziur dago, eta oso zuzena ez. Gelaren ate parean harrapatu du, barrura begira.

—Zer ari zara begira? —galdetu dio.

—Ezer berezirik ez. Gela polita duzula pentsatzen, horixe besterik ez —esan du, eta terrazara joan da.

June haserre dago. Ozta-ozta ez dio ezer esan. Ez du eguna liskar batekin amaitzeko gogorik. Hala ere, biharamunean edo, une egokia iristen denean, kontuak eskatuko dizkio. Hori garbi dauka.

—Tira, Leire, zer da lorik egiten uzten ez dizuna? —galdetu dio, serio mintzatzen.

—Alex. Zer bestela? Hor dabil, ez atzera ez aurrera, eta oporrak aurrera doaz. Eta Irene txaplata horrek ez du amore ematen. Erreta nago.

—Eta hori esateko etorri zara niregana? Ez dut ulertzen. Ondo al zaude? Sinistu behar al dizut?

—Susmoak areagotu egin zaizkio Juneri.

—Zurekin ez bada, norekin hustuko dut barrena? Alexekin txora-txora eginda nago. —Minduta egoteko planta egin du.

—Eta zer nahi duzu nik egitea. Nire esku balego, zera, makilatxo magiko bat edukiko banu, konpondu egingo nuke zure arazoa. Gustura gainera. A ze bakea! Baina ez da horrela, eta ni tartean sartzen banaiz, gauzak zailago jarri besterik ez dizut egingo. Eta hori badakizu zuk, ongi jakin ere. Horregatik nire zalantzak, zertarako etorri zaren niregana.

Leire isilik egon da pixka batean. Bitarte horretan azken begiratua eman dio terrazari.

Hutsik dago, ez du goxo egoteko hamaka edo antzekorik ikusi, uste zuen bezala. Eta gelan dena dago txukun, bere tokian. Ez du ematen etxean inor dagoenik. Irudimenak ziria sartu bide dio, desengainua hartu du, eta desengainuak amorrarazi. Amorrua tonuan nabaria hitz egin du.

—Bada, hori izan da, sinetsi nahi ez baduzu ere. Badakit ezin duzula nire arazoa konpondu, baina batzuetan barrua hustu beharra dago, eta kasu pixka bat egitea besterik ez dizut eskatu. Eta zuk susmo txarrak hartu, zure bizitzan sudurra sartzera etorria banintz bezala. Nire laguna zinela uste nuen.

—Eta naiz, Leire. Nahiz eta azkenaldi honetan... Baina hobe da berriketekin ez hastea. Nekatuta nago, esan dizut, eta baita zeu ere, esango nuke. Beraz, bioi ondo etorriko zaigu afaldu eta ohera joatea. Nire ama laster etorriko da.

—Hori iruditzen bazaizu... Bihar arte —Leirek, zakar.
Buelta hartu, eta bizkor joan da. Juneke begiradarekin lagundu dio lorategiko bidetik doala. Arnasa sakon hartu du. Ez daki laguna burutik oso ondo dabilen. Baina ez da horregatik lasai gelditu, susmoek ez diote bakean uzten. Zerbait sumatu ote du? Gogora etorri zaio ekaitz-gauekoa, ziur baitago Leirek ikusi uste zuena Françoise zela, edo haren itzala bederen. Eta ez zen inondik ere irudipen optiko bat, igerilekuetan sinestarazi nahi izan zion bezala. Atea itxi eta gelara itzuli da.

Alexekin elkartu da Leire. Neskaren aurpegia ikusita garbi dago gauzak ez zaizkiola nahi bezala atera. Hala ere, galdetu egin dio.

—Zer, ez zegoen lkerrekin?

—Bakarrik zegoen. Hala ere, ni nintzela ikusita urduri jarri dela iruditu zait, eta oraindik gehiago etxera sartu naizenean.

—Ez zen ezkutatuta egongo.

—Ez dakit. Ohe azpian edo. Terrazara ere irten naiz, eta hutsik zegoen.

—Bainugelan, armairu baten... Auskalo non! Zeren bakarrik bazegoen, zergatik jarri den urduri?

—Hori pentsatzen dut nik, baina...

Isilik gelditu dira, begirada galduta, balizko garaipena porrot bihurtua. Horrela daudela, norbaitek hitz egin die atzealdetik.

—Arratsalde on, bikote, hemengoak zarete, ezta? —galdetu die norbaitek, arrotz tonu markatua ahotsean.

Burua jiratu eta bi gizon ikusi dituzte, biak praka bakeroak jantzita eta elastiko beltzak, hauen gainean udako jaka arinak. Ustekabeen harrapatuak, lehenik bikoteari eta gero elkarri begiratu diote. Alexek erantzun die.

—Bai. Bueno, ez, hemen bizi gara, baina ez gara hemengoak. Oporretan gaude hemen.

—Hori gutxienekoa da. Baina seguru asko inguruak ezagutzen dituzue, ezta? Hara-hona ibiliko zarete.

—Bai, batzuetan bai. Zer dela eta?

—Bikote frantses baten bila gabiltza. Aitona eta biloba. Monobolumen batekin dabilta, Renault markakoa, urdin iluna. Matrikula frantsesa du. Txiripaz ez zenituen ikusiko? —gizonak.

—Frantses gutxi dabilta hemen —esan die Alexek—. Nik behintzat ez dut ikusi. Zuk Leire?

Buruari eragin dio Leire, ezker-eskuin.

—Azken aldian mendialdean ikusi zuten, gauez, ez dakit izarrak ikustera joanda edo. Aitona xeblebre horrekin ez naiz harritzen. Eta horrezkero ez dakigu non egon daitezkeen.

—Eta ez dute telefonorik? —galdetu dio Leirek.

—Bai, baina deitzen diegu eta ez dute hartzen. Bateriarik gabe edo itzalita dute. Jakizu! Aitona ezagututa, ez harritu. Gazte garaietan bezala ibiltzea gustatzen zaio.

—Galdetu al diezue foruzainei?

—Ez, oraingoz ez behintzat, kontua ez da hain larria.

—Orain egun batzuk, mendialde horretan omen zebiltzan —zehaztu du beste gizonak.

Isilaldi bat. Leirek eta Alexek elkarri begiratu diote. Neskak eten du isilaldia.

—Aizu, Alex —esan dio lagunari—, gau batean ez ziren Iker eta June mendian izar iheskorrak ikusten egon?

—Bai. Baina ez ziguten inor ikusi zutenik esan. Dena dela, beraiekin hitz egin nahi baduzue...

—Ez, ez dugu jendea molestatzen ibiltzeko asmorik. Hala ere, ez dakit, zuek prest egongo bazinete lagun horiekin hitz egiteko...

Alex eta Leireren begiradek bat egin dute. Leirek sorbaldak jaso ditu, axolagabe, eta Alexek hitza hartu du.

—Galdetuko diegu —esan du.

—Eskertuko dizuegu. Eta ondo saritu. Baina bihar izango beharko luke, zer egin erabakitzeko.

—Bihar goizean jakingo dugu —Alexek.

—Oso ondo. Eguerdian, urbanizazioko tabernan egongo gara. Orain, eskupeko emango dizuet, zuen adeitasuna eskertzeko. —Hamar euroko billete bat luzatu die.

Zalantzan gelditu dira gazteak. Gizonak billetea astindu du, eta, zalantzak ezabatuak, Alexek hartu du.

Gorago dagoen bikote batek, hauek ere atzerritarrak, arretaz jarraitu du bikotea eta gazteen arteko topaketa. Igor eta Nadia dira. Maitasunaz eta gaugiroaz gozatzen ari den bikotearen planta egiten ari dira. Igorrek besaburutik heltzen dio Nadiari eta honek gerritik lagunari.

—Zer dela-eta ibiliko dira gazteekin berriketan? —dio Nadiak, zeharka begira, susmo txarrez.

—Ez dakit, baina gu bezala, ez dut uste gauaren freskotasunaz goatzera atera direnik —
Igorrek.

—Lepoa egingo nuke arrastoren baten atzetik dabiltzala.

—Ez harritu. Ez zortetik duten. Aizu, Nadia, kontu hau interesgarri bihurtzen ari delako
sentsazioa dut.

—Eta, zer egin behar dugu?

—Orain artekoa, zer bestela? Erne ibili bikotea bistatik galdu gabe. Harrapariak bezala jauzi
egiteko unearen zain egon, beste modu batean esanda.

Ospitaletik etorri da ama. June telebista ikusten ari da, sofan etzanda.

—Eroso zaude, neska —esan dio amak, agurtu eta gero. Nekea aurpegian islatua badu ere,
irribarretsu dator—. Berri ezin hobeak dakartzat, June. Biharkoa izango da ospitalean pasako
dudan azken gaua. Amona hobera doa, eta laster bidaliko dute etxera. Eta, gainera, aita etzi
dator Bartzelonatik, lan-arazoak konponduta. Banuen gogoa! Ea bolada txarra amaitu eta
oporrez gozatzerik dugun!

—Nik ere bai, ama, nik ere badut bizimodu normalari itzultzeko gogoa —bihotzetik atera zaio
Juneri, amak zergatia ez badaki ere.

—Bakarrik egon zara, bai, baina zu behintzat lasai.

Lasai egon... Irribarre bortxatua azaldu da Juneren ezpainetan. Ez daki ondo... Eta oraindik
ere...Hotzikara bat sentitu du.

Abuztuak 18, astelehena

Ikaretan esnatu da June. Bart kosta egin zaio loak hartzea eta hartu eta gero amesgaiztoak egin ditu. Azkena, eta beldurgarriena, esnarazi du. Bihotza bularrean jauzika oroitu du arestiko ametsa. Gela huts batean zegoen lurrean eserita, bizkarra horma biluzi baten kontra, hezea eta zikina. Ez daki non dagoen, noren esku, susmo izan arren. Halako batean oihu batzuk aditu ditu. Aldameneko gelatik datoz. Françoisen aitona da. Oihuka hitz egiten du.

—Utz ezazue bakean gaztea, berak ez du zerikusirik auzi honetan —esaten du.

—Ez diogu ezer egingo bere aita zentzudun baldin bada —esaten diote—. Bere esku dago semearen zoria.

—Errai txarrekoak zarete, alajaina! —zaharrek, haserre bizian.

—Ez gara aingerutxoak, ezta nahi ere, baina jendearen aurrean hiritar eredugarri gisa agertzen diren asko gu baino okerragoak dira. Gu haien lan zikina besterik ez dugu egiten.

Hor bukatu da ametsa. Bere gelan dagoela ziurtatu duenean lasaitzen hasi da. Baina ez da erabat lasaitu. Hasperen egin eta ordua begiratu du: zazpiak eta hogeita bost minutu. Jaikitzeke goiz da oraindik. Buelt hartu eta izarapean sartu da, loalditxo bat egiteko asmoz. Kosta egin zaio loak hartzea, eta amak gosaltzera jaisteko deitu dionean lozorroan zegoen.

—June, zatoz gosaltzera —oihu egin dio beheko solairutik.

—Geroago ama, logura naiz —June.

—Gero egingo duzu lo, June, orain presaka nabil, eta hitz egin behar dugu. Bost minutu barru sukaldean nahi zaitut.

Nagiak kentzen pixka bat egon eta gero jaitsi da. Amak gosaria mahaian du dagoeneko. Eseri da eta katilukoari begira gelditu da, geroa kafesnean isaltua ikusi nahi balu bezala.

—Aizu, June. —Amak atera du gogoetetatik—. Hamaika eta erdiak aldera herrira joan beharko duzu, oihal-dendatik mandatu bat jasotzera.

—Ezin duzu zuk hartu, ospitalera zoazela? —kexatu da.

—Ez. Berandu samar nabil, eta, gainera, hamaikak aldera iritsiko dela eskatutakoa, esan dit dendariak. Ordurako ospitalean egon nahi nuke. A, eta ez utzi arratsalderako, denda itxita dago-eta. Eta bihar ere bai.

—Beste erremediorik ez badago... —etsia hartu du June.

—Aizu, ez dut uste beste munduko ezer eskatu dizudanik, ezta? Hainbeste kostatzen zaizu bizikletaz joan-etorri bat egitea herrira?

—Bale, ama, joango naiz. Ez jarri horrela.

—Ai ene! Ezkerretik jaiki zarela ematen du.

—Horrelako zerbait. Baina lasai, egingo dut mandatua.

Presaka ibili da ama, gora eta beheara, alde egin arte. Joan denean pentsakor gelditu da June. Meategiko lagunak zoriaz kezkatuta dago, eta neurri batean bereaz ere. Ez du ezer egiteko

gogorik. Ez daki lagunekin elkartzera joango den. Mandatua ekarri arte ez behintzat. Horrela dagoela telefonoa hoska hasi da. Ama da. Zer nahiko du oraingoan?

—Nire buru hau! Lehen ahaztu zait esatea, June, gaur ere Leireren etxean bazkalduko duzu. Horretan gelditu gara. Poztuko da Leire —esan dio.

—Aizu, ama —Junek, egonezina ezin ezkutatzuz—, nahiago dut etxean bazkaldu. Badakizu bakarrik ondo moldatzen naizela, eta gustura gainera. Eman eskerrak Leireren amari eta ez noala esaiozu.

—Ezta pentsatu ere! Baietz esan eta gero, ez naiz Elene nahasten ibiliko. Ez da lehenengo eguna bere etxera zoazela.

—Bai, baina...

—Alferrik zaude, June, joango zara eta kito. Bazkaldu eta gero nahi duzuna egin. Baina han bazkaldu! Egun okerra duzu, alajaina!

Nahikoa bai. Amak esan bezala ezkerretik jaiki delako sentsazioa du, eta bere aldartea ez dago Leireren lotsagabekeriak eta bere amaren erretolirik entzuteko moduan.

Hamaiketan herrian dago June, mandatua egitera joana. Denda parean dagoela telefonoz deitu diote. Iker da. Aparatua belarrira eramateko ia astirik eman gabe mintzatzen hasi zaio laguna. Aztoratuta dago.

—June, serio hitz egin behar dugu. Uste nuen lagunak ginela —esan dio.

Lagunaren aztoramenak hitzik gabe utzi du June. Zer gertatzen zaio? Behin ere ez du horrela ikusi.

—Eta gara, Iker, ez izan zalantzarik. Zergatik esaten didazu hori? —esan dio, uneko harridura gaindituta.

—Orduan esadazu zer gertatzen ari den. —Ikerrek ez du aintzat hartu galdera.

Isiltasuna. Lagunaren arnasaren zurrumurrua entzuten du Junek. Ez du ulertzen haren jarrera. Zer haizek jo du horrela jartzeko? Ez da pilulekin bueltan ibiliko, ezta? Nahasia dago.

—Iker, benetan, ez dakit zergatik esaten didazun hori.

Esan zio zergatia. Goizean, Leire eta Alexekin topo egin omen du bere etxetik gertu. Bestela bezala topo egin dutela itxura egin omen du bikoteak eta hizketan hasi dira. Hasi eta berehala Iker konturatu da bere zain zeudela, etxetik noiz irtengo. Izan ere, bat-batean, Alex aurrez aurre jarri eta kopeta ilunduta galdezka hasi omen zaio. Kontu eske.

—Galdetu dit mendira joan ginen gauean monobolumen bat ikusi ote genuen. Gero zertan gabiltza gu biok. Larunbat goizean Irenek ikusi ninduen zure etxetik irten nintzenean. Eta arratsaldean Alainek, zu menditik bueltan zentozela topo egin eta gero herrira etorri ginenean. Erasokorra zegoen eta beldurra pasatu dut.

—Eta zuk, zuk zer egin duzu?

—Nekiena esan. Zer egin nezakeen bestela?

—Pilulena ere bai?

—Baita. Ahoa itxita edukitzeko esan dit Alexek. Baina nazka-nazka eginda nago, eta zuri kontatzea erabaki dut. Horregatik nahi nuke jakin zer gertatzen ari den, zer arraio egiten du orain monobolumen batek zu eta Alexen arteko arazoan.

June ez dio berehala erantzun, harrituta dago, nahastuta. Eta kezkatuta, noski. Zeren nondik ateratu du Alexek monobolumenarena? Bestalde, Ikerri zerbait esan beharrean dago, lasai gera dadin. Baina egia inondik ere ez.

—Iker —esan dio azkenean—, arazo batean sartuta nago, nahi gabe sartuta, eta ez dut zuk nahasteko asmorik. Laster konpondu da, eta konpondutakoan zehatz-mehatz kontatuko dizut dena. Harrituta geldituko zara. Baina oraingoz hobe duzu zer den ez jakitea. Dakizuna esan diezu Leire eta Alexi eta bakean utziko zaituzte. Nire lagunak onena zarelako esaten dizut hau, Iker, sinets nazazu.

Ikerrek ez du ezer esan, Juneren hitz ilunak hausnartzen egon da, nonbait. Hitz egin duenean kezkatuta egin du.

—Aizu, June, egiatan esaten dizut, beldurra ematen didazu. Ez dute arazoarekin zerikusia izango San Lorenzo gauean ikusitako argiek, ezta?

—Ez —gezurra esan dio—. Ez dakit zertan dabilta Alex eta Leire. Dakidana da Alexek mendeku hartu nahian dabilela, eta Leire bere altzo-txakur bihurtua. Horixe bakarrik. Une egokia denean, bereak eta bost esan behar dizkiot Leireri.

—Ez dakit zertan dabilta, baina kontuz ibili June. Kezkatuta naukazu —iker ez du ekin, kezka nabari dago bere ahotsean.

—Lasai, Iker, ondo aterako da dena —June, aldiz, saiatu da baikor mintzatzen.

Horretan utzi dute elkarrizketa. June dendara sartu da.

Eguerdia da. June bizi den urbanizazioko tabernako terrazan Marcel eta Roland daude mahai batean eserita. Garagardoa bana dute aurrean. Olibak jaten ari dira. Leire eta Alex azaldu dira espaloian. Ikusi orduko Roland altxatu da.

—Bikotearen bila noa —esan dio lagunari—. Ea zerbait duten esateko. Ideia bat dut. Zu erne egon, eta itzultzeko keinua egiten dudanean deitu iezadazu telefonoz. Ados?

—Ez dakit zer duzun buruan, baina tira, deituko dizut. Segi.

Gazteengana bideratu da Roland, patxadaz, arduragabe itxura egiten.

—Kaixo bikote. Zer moduz? Hitz egin al duzue lagunekin? —galdetu die.

Ikerrek esan diena kontatu dio Alexek: San Lorenzo gauekoa, hurrengo egunekoa eta baita pilulena ere.

—Meategira sartu zen June —gehitu du Leirek.

—A bai?! Eta...? —Rolandek, jakinguratsu, baina axolagabe itxurari eutsiz..

—Saguzarrak besterik ez omen zituen ikusi. Orain gutxi egon gara berarekin. Beherago bizi da, etxe hartan. —etxerantz luzatu du besoa Leirek.

—Hara! Hor dator —Alexek, errepideari begira.

Bizikletan dator June, herritik, bizkor samar. Pasatzerakoa neskaren irudia buruan gordetzen saiatu da Roland. Orduan konturatu da nekazariarekin hizketan zeudela, pistan azaldutako neska dela. Gero Marceli begiratu eta keinu egin dio. Berehala telefonoa joka hasi zaio. Frantsesez hitz egiten egon da.

—Bai txiripa handia! —esan die gazteei—. Oraintxe deitu diote nire lagunari bikotea agertu dela esanez. Ondo omen daude. Guk uste bezala, aitonak xelegekeriak egiten zebilen, umekeriak hobeto. Ai ene! Bada, ahaztu ezazue kontu hau. Dena dela, mila esker zuen arduragatik.

Bikoteari bizkarra eman dio Rolandek. Zigarreta bat piztu du. Zupada luzea eman ondoren, gero hurbila antolatzen bideratu da lagunarenganantz,. Baikor doa, uste baitu bide zuzenean daudela iheslariak topatu ahal izateko. Baina erne ibili behar dute, isilka, eskandalua sortu gabe. Juneren etxe aldera begiratu du. Neskak esan die bakarrik dagoela etxean, berera datorrela bazkaltzera. Hala bada, arratsaldean zer edozer egin beharko dute.

Herritik bueltan dator June. Ernegatuta dator. Amaren mandatua ez da oraindik dendara iritsi eta arratsaldean itzuli behar du jasotzera. Oraingoan dendariaren etxera. Txarrenean bazkalondoan Leireren etxetik alde egiteko aitzakia duela, dator pentsatzen, ezer asmatzen ibili gabe. Horrela datorrela, parkera iristear ikusi duenak atentzioa eman dio: Alex eta Leire Jeep iluneko bikoteko batekin hizketan daude. Zer arraio...?

Susmo txarrek eraso diote.

Alexek datorren aldera begiratu du eta zerbait esan dio solaskideei. Begiratu diote. Leirek besoaz agurtu dio. Junek ez ikusiarena egitea pentsatu du, baina ideia aldatu, eta beheraxeago gelditu da. Leire eta Alex parketik irten eta bera dagoen aldera datoz. Hurbildu bitartean hari solteak lotzen aritu da June, lkerri goizean gertatua eta beste batzuk ere. Zer pentsatu ematen diote. Usain txarra hartzen die. Eta François eta aitona arriskuan baleude? Haiek... eta auskalo bera ere... Beldurtu egin da. Leire hurbildu zaio. Alex atzerago gelditu da. June saiatu da normal itxura egiten.

—Kaixo, June. Nondik zatoz? —galdetu dio Leirek, maleziatsu Juneren irudiko.

—Herritik. Nondik ba? —erantzun dio, lehor samar.

—Zure ama ez dago etxean, ezta?

Galderaren tonua ez zaio gustatu Juneri.

—Honezkero jakingo behar zenuen. Zergatik galdera?

—Ezergatik ez. Gure etxera zatozela bazkaltzera, esan dit amak.
—Bai, hala da —zoritxarrez esateko zorian egon da—. Aizu, kontua aldatuz, nor zen hizketan ari zineten tipoa? Lagun berri bat akaso? —galdetu dio, ironiaz.
—Bai zera! Zerbait galdetzera etorri zaigu eta... —urduri jarri dela iruditu zaio Juneri.
—Eta zer nahi zuen jakin?
Leirek Alexi begiratu dio eta aitzakiatan hasi da, erantzuna saihestuz.
—Ezer berezirik ez. Barka, June, Alex nire zain dago. Banoa. Gero arte.
Urrunduz doala, begira geratu zaio June, gaizki pentsatzen. Bere baitako sentazioak ez dira batere onak. Zerbait egin beharko du? Kezkatuta dago.

June ez da gazte eta atzerritarraren arteko elkarriketaren lekuko bakarra izan. Beste batzuek ere arretaz jarraitu dute, hauek urrutixeagotik begira. Igor eta Nadia izeneko atzerritarrak dira. Zuhaitz baten itzalean eserita daude, toki gorde samar batean, gizona egunkari bat irakurtzen eta emakumea aldizkari bat. Plantak egiten, noski, begiak josiak baitituzte solaskideengan.
—Jakin nahi nuke zer arraio dabiltza marseillarrak gazte horiekin. Eta ez da lehenengo aldia —dio Nadiak.
—Nik ere bai, jakina. Arrastoren bati usaina hartuta ote? —Igorrek.
—Zer esan nahi duzu, gazte horiek zerbait ikusi edo dakitela?
—Horrelako zerbait. Zer bestela? Dena dela, laster jakingo dugulakoan nago.
Irakurle-plantak egiten jarraitu dute. Gazteak eta marseillarra bereizi direnean, begiez jarraitu die. Frantsesa lagunarengana itzuli da. Elkartu, altxa, eta joan egin dira tabernatik.
—Eta orain zer? —Nadiak
—Zelatan jarraitu, orain arte bezala.
—Marseillarrak. Eta gazteak?
—Oraingoz behintzat kendu burutik gazteak. Aurrerago ikusiko dugu. Ez zaigu komeni ipurdia bistan jartzea. Tira, goazen hemendik.
Gerritik helduta, goxo-goxo, pasatu dira Leire eta Alexen aurretik. Pasatzerakoan, betaurreko ilunetan babestuta, begiratu sakona egin diete gazteei. Aurpegiak gorde dituzte gogoaren artxiboan.

Leirerekin egon eta gero etxera joan da June. Terrazara igo eta etzaulki baten etzanda egon da mendialdera begira, susmo eta pentsamenduekin borrokan. Alde batetik, ahaztu nahi ditu meategia eta meategikoak; bestetik, ordea, ezin du. Lehenbailehen alde egiten ez badute arriskuan daudela uste du. Arrisku bizian. Aitona mugitzeko moduan balego agian gauean

hoberena. Ez daki zer egin. Ohartaraztera joan eta bere burua arriskuan jarri? Pentsatze soilak bihotza estutu dio. Azkenean ez du ezer erabaki, arratsalderako utzi du erabakia, mandatua egin eta gerorako.

Bazkalorduan irten da etxetik Leirerenera joateko. Haren etxe aurrean topatu du laguna, Alexekin hizketan.

—Deituko dizut —esan dio Leirek mutilari, June hurbildu zaienean.

Ondotik pasatzerakoan zeharka begiratu dio Alexek. Eutsi egin dio begiradari June. Amorrua ikusi du mutilaren begietan. Ez da harritu. Mendekua hartu arte ez zaio pasako. Baina ez dio aukerarik emango.

Sartu dira etxera. Leireren ama zain zegoen, mahaia jarrita eta bazkaria prest. Aita ez dago, beranduago dator. Juneren gogoko bazkaria dago: arroza oilaskorekin. Jateko gogo handirik ez badu ere, gustura jan du. Gutxi andrearen irudiko.

—Jateko gogo gutxiarekin etorri zara, June —esan dio—. Eta berriketarako ere... Ez zaude ondo? Alarmak piztu dira Junerengan. Ekin dio erantzun sinesgarri bat asmatzeari. Leirek hartu dio aurea, ordea, maltzur hitz eginez.

—Seguru asko burua beste nonbait dauka —esan du—. Azkenaldi honetan gutxiago dabil kuadrillakoekin. Baita lker ere.

—Iker? Sendagilearen semea? —Irribarre esanguratsua azaldu da andrearen ezpainetan.

Leireren ziztadak minduta, erantzun ezegoki bati ozta-ozta eutsi ostean, lagunarentzat tabu den gaiaz baliatu da mendekua hartzeko.

—Nik ez dakit lkerren arrazoia zein izango den, Leire, baina nirea bai, noski. Hasia naiz datorren ikasturtea antolatzen —gezurra esan du—. Horrez gainera ingelesari ere ematen diot denbora pixka bat. Ulertzen duzu orain?.

Zirikada bete betean harrapatu du Leire. Ez du ezer esan, baina muturra okertu du eta begirada makurra egin dio Juneri. Bere amak, aldiz, ez du aukera alferrik galdu, eta kontu eske hasi zaio alabari.

—Ikusten? Zu egun guztia alferkerian egoten zara —esan dio—. Ez dakit noiz ikasiko duzun denbora aprobeztatzen. Eta baduzu non ikasi, gertu gainera; baina, ez, zu beti alferrei begira. Gero izaten dira kontuak.

—Oporrak igarota hasiko naiz. Bale? —Leirek, haserre.

—Beharko. Baina betikoa, ordurako besteak zu baino aurreratuago egongo dira.

Aitaren etorrerak amaiera eman dio egoera ezerosoari. Umore onean dator.

—Zer, beti bezala ika-mika? —galdetu die—. A ze bikotea! Gustuko duzue sesiotan ibili, alajaina! Tira, Elene, utzi erretolikak beste baterako, bakean bazkaltzeko.

Postrea jan eta gero, beste pixka batean mahaian egon da June. Gero mandatuarena esan eta altxatu da.

—Herrira joan beharra daukat, bestela ama... Mila esker guztiagatik. Dena zegoen oso ona.

—Pozten naiz. Etorri nahi duzunean. Badakizu non gauden. Baina hurrengoan jateko gogoa

handiagoa ekarri. Ondo izan eta asko ikasi —Leireren amak.

Kanpora atera denean gogoetekin bueltan hasi da berriro, kezkak eta beldurrekin, zalantzak eta nahiekin.

Herrira joan aurretik etxera joan da June. Hiru eta erdiak markatzen ditu egongelako erlojuak. Goiz da oraindik mandatua hartzera joateko. Haren deiaren zain egon gabe, amari deitzea pentsatu du. Pozik topatu du: biharamunean bidaliko dute etxera amona. Berri ona eman ondoren, mandatua egin ote duen galdetu dio. Gertatua esan dio June, laster doala bila, lauretan. Hori esan eta ideia bat bururatu zaio. Eta harritzekoa, erabakia hartu du zalantzarik egin gabe: meategira joango da bikotea arriskuaz jakinaren gainean jartzera. Berehala joan-etorria egiteko bidea prestatzen hasi da.

—Aizu, ama, gero bizikletan ibiltzera joango naiz, eta seguruenik estalduraz kanpo geratuko naiz. Gauean deituko dizut.

—Ez duzu deitu beharrik, ia bateria gabe nago-eta. Betikoa, goizean presaka ibili naiz, eta kargagailua etxean ahaztuta utzi dut. Ospitaleko telefono batetik deituko dizut arrastian. Kontuz ibili zaitezte.

—Bai, ama, beti bezala. Gaur, gainera, ez dut gauez ateratzeko asmorik. Iluntzean etxera etorri, dutxatu, ogitarteko bat jan eta lasai egoteko asmoa dut. Beraz, zeu ere lasai egon, eta ez deitu ilundu arte.

Amak ez du ezer sumatu. Pozik gelditu da June. Amari dagokionez lasai egin dezake meategirako joan-etorria. Lasai amarenarenari dagokionez, zeren berarenari dagokionez.... Kaka eginda dago. Baina, beldur eta guzti, zerbait egin behar duelakoan. Alex eta Leire datozkio burura. Ez daki zer dabilkien buruan, ezer zuzenik ez seguru asko, beraz ez zaio gaizki etorriko burua babestuta izatea. Ikerri deitu dio.

—Iker, zer egin behar duzu gaur arratsaldean? —galdetu dio.

—Osaba etorri da bisitan, eta lehengusuarekin pasako naiz arratsaldea. Lizarrara goaz. Gurekin etorri nahi baduzu...

—Ezin dut, etxean gelditzeko asmoa dut, baina ez dut nahi Leirek eta Alexek jakin dezaten. Lagunduko didazu zuk? —bila zebilen aitzakia eskura jarri dio Ikerrek.

—Nik lagundu? Nola?

—Behar izanez gero, gezurtxo bat esaten.

—Berriro...? Zu eta zure misterioak! Zertan zabilta, June? Kezkatuta naukazu, uste dut esan nizula.

—Eta nik zuri argituko nizula agindu. Tira, lagunduko didazu?

—Tira ba. Zer esan beharko nuke?

—Lizarrara zoazela, norbaitek galdetuz gero, gaur arratsaldean zurekin eta zure

lehengusuarekin egon naizela. Horixe besterik ez.

—Hori bakarrik bada... Baina ez dakit, kezkatuta naukazu, June.

—Lasai, Iker, ez dago motiborik. Ados, bada? —etsipenezko hasperen bat egin ondoren, baiezkoa eman dio Ikerrek.

Laurak aldera joan da herrira June. Itxaron behar izan du eta bostak inguru itzuli da etxera. Bizkor ibili beharra du. Bizikleta hartu aurretik, seigarren sena delakoari jaramonik eginez, inguruei begiratu bat ematea pentsatu du. Burua agerian jarri gabe eman die. Ez du ematen inor dagoenik bistan. Begiraldia bukatzeaz, ordea, etxetik gertu, zuhaitzen artean, jeep iluna ikusi du aparkatzen. Kezkatuta egon da begira, susmoz beteta, zalantzaz ere, mendialdera joan ala ez. Azkenean, adore apurak bildu, eta joatea erabaki du. Joan aurretik terrazara igo da, etxearen atzealdea nola dagoen ikustera. Inor ez bistara. Beraz, aldi honetan ere, pistaraino labore-lurrak eta mahastien artetik joatea pentsatu du. Bide motzena izateaz gain, seguruena era baita.

Garajera jaitsi, bizikleta hartu, eta pedalei indartsu emanda abiatu da.

June mendialdera joateko irten denean denean marseillarrak bere etxetik gertu daude zelatan. Jeep Grand Cherokee ilunaren barruan daude, toki ezkutu samar batean, zuhaitz batzuen babesean. Juneren atzetik joan dira herrira, urrutitik segika, eta modu berean itzuli. Neska etxera sartu denean noiz irtengo zain gelditu dira, ateratzen denean atzeman eta mihia astintzeko asmoz. Bikotea erreta dago jadanik, zerbait egin beharrean, eta sinetsita daude neskak informazio garrantzitsua eduki dezakeela. Baina denbora aurrera doa eta neska ez da etxetik irteten.

—Laster ordu erdi pasatuta neska etorri denetik eta ez da txaletean mugimendurik ikusten. Arraroa iruditzen zait —esan du Marcelek.

—Bai, hala da, gazte batzuk igerileku aldera pasatzen ikusi ditugu, eta neskaren etxean mugimendurik ez.. Ez zait gustatzen. Batere —esan du Rolandek, eta une batez pentsakor egon da. Gero erabakitasunez mintzatu—. Txaletara noa, ate joka, atea zabaltzen badit izenaren bat asmatu eta hor bizi den galdetuko diot. Gero ikusiko dugu zer egin.

Kanpora irten eta goraxeago dagoen txaletera joan da Roland. Behin eta berriz sakatu du txirrina. Erantzunik ez. Adi egon da. Ez du etxe barruan mugimendurik sumatu. Itzuli da autora. Kezkatuta dago.

—Ez dago inor —esan dio lagunari.

—Ez? Orduan, non arraio sartu da neska?

Rolandek zigarreta bat piztu du. Pentsakor egon da erretzen. Antsiatsu irensten du kea, eta amorruz bota.

—Susmo txarra dut, Marcel. —Leihotik bota du zigarreta—. Goazen txaletaren atzealdera.

—Atzealdera?

—Bai, atzealdera, atzealdetik irteterik ba ote dagoen ikustera. Baldin badago agian hortik joan da.

—Nora?

—Meategira. Nora bestela?

—Ziur al zaude?

—Ziur, ziur, ez. Baina bihozkada batek baietz esaten dit. Laster jakingo dugu.

Jeepa martxan jarri du, eta kale nagusira irten dira. Beheraxeago etxadiaren atzealdera ematen duen etxarte batetik sartu dira. Etxe ilararen atzean gelditu du autoa Rolandek.

—Ikusten? Labore-lurrak eta mahastien artean bide bat dago. Lepoa egingo nuke hortik joan dela. Tira, ba, goazen geu ere, ea bidean harrapatzen dugun.

—Hortik? —Marcelek, labore-lurren artetik doan landa-bideari begira.

—Ez, bide estua da eta ez dugu ezagutzen. Ez atzera ez aurrera gera gintezke. Nahiago dut arriskurik hartu gabe pista hartzera urbanizazioaren atzealdetik joan. Ez dugu denbora askorik galduko, pare bat edo hiru minutu, besterik ez.

Zelatutzen eta zelatatuak. Halaxe egon dira marseillarrak. Nadiak eta Igorrek ez dizkiote begiak gainetik kendu. Autokarabanan daude, urruti samar, prismatiko txiki batzuek lagunduta begiak jeepetik kendu gabe.

—Hara, bietako bat atera da autotik, eta neska sartu den etxerantz doa —dio Igorrek, halako batean, prismatikoak doitzen gertuagotik ikusteko—. Zirkulua estutzen ari da, Nadia.

—Hala ematen du. Hala ere... Egun argiz eta ageri-agerian joan?

—Ba, bai, zuzenean doa. Zirkulua estutzen bakarrik ez, gauzak bizkortzen ari direlako susmoa dut.

—Beraz prest egon beharko dugu festan parte hartzeko.

—Jakina. Eta inor gonbidatu gabe —Igorrek, barrezka.

Arreta handiz segitu dituzte gizonaren mugimenduak. Etxera hurbiltzen ikusi dute, txirrina behin eta berriz sakatzen, eta Jeepa itzultzen. Pixka bat geroago kale nagusira irten dira.

—Badoaz —esan du Igorrek, eta leiho ondotik baztertu da.

—Goazen atzetik —Nadiak.

—Ez, oraindik ez, itxaron pixka bat. Ezkerrera jo dute, eta hortik ez dira inora joango, labore-lurrak besterik ez daude alderdi horretan. Itzultzen ikusi arte itxaron egingo dugu.

Itxaronaldia luzatuz joan da eta Jeepa ez da kalean azaldu. Nahasita daude.

—Non arraio sartu dira?! —boz gora pentsatu du Nadiak.

—Auskalo. Begiratu bat ematera noa. Zu segi ezazu hemen, txaleta bistatik galdu gabe.

Minutu batzuk geroago itzuli da Igor. Bere buruarekin haserre dator. Ez du Jeeparen arrastorik

sumatu. Alde egin die.

—Kaka zaharra! Txaleten atzealdetik doan bidetik joan dira, kale nagusira irten gabe —esan du—. Eta txaletean?

—Mugimendurik ez.

—Orduan alferrik gaude hemen, Nadia, goazen buelta bat ematera.

Urbanizazioko kaleetan ibili eta gero, kanpinetik gertu aparkatu dute autokarabana. Kezkatuta daude, garrantzitsu den zerbait alde egiten ari zaielako sentsazioa dute, baina ez dakite zer egin. Bat batean Nadiaren begiek distira egin dute.

—Igor —esan dio—, hor datorren neska hori ez da...

—... marseillarrarekin hizketan ikusi genuen gazteetako bat, esan nahi duzu?

—Horixe bera.

Elkarri begiratu diote, asmo bera gogoan, antza. Nadiak ozenki azaldu du.

—Zerbait egin behar dugu, Igor, eta denbora galdu gabe gainera. Bestela musu-huts gelditzeko arriskua dugu. Neska horrek agian zerbait daki, bestela marseillarrak ez ziren bera eta bere lagunak atzetik ibiliko.

—Bai, arrazoi duzu, arriskuak hartzeko unea da. Neska horrekin hitz egin behar dugu. Baina hemen ez.

—Aurrera, bada.

Pistan gora doa June, mihia zintzilik, zati gogorrenetan sigi-sagaka. Iritsi da meategi aldera doan bidezidorrera. Hor atsedenaldi bat egin du. Gibela ahotik ateratzeko zorian dauka, bihotza bularrean danba-danba, arnasa estutua, nekeak eta beldurrak jarriak. Burua makurtuta egon da pixka batean. Arnasa zertxobait lasaituta, bizikleta ezkutatu, eta pista alde batean utzirik, ezpel, elorri eta zuhaixken artean doan bidexkatik jo du. Aldapak alde batetik, eta zuhertasunak bestetik, behartu dute xenda hartzera. Iritsi da mendilerroaren gainaldera, bidezidorra pistarekin bat egiten duen alderdira. Metro batzuk ibili da pistatik, eta gutxi erabilitako bidezidorra hartu du meategira ailegatzeko.

Isilgordean doa, poliki, kirioak dantzan, azeriak harrapaketatik nola. Bidea estua da, sasitsu eta sastrakatsu samarra, baina pista baino seguruagoa ezkutuan ibili ahal izateko. Meategiko zabalgunetik gertu gelditu egin da, belarriak tente jarrita. Lehentxeago, izan ere, motor baten zurrumurrua entzun du. Edo uste izan du, bederen, ez dago ziur. Orain, ordea, txitxarren kantak besterik ez ditu entzuten.

June meategi aldera doala, herrian, Leire Alexekin elkartzera doa. Pozik doa, biok bakarrik

egon behar baitute, beste lagunak ibaira bainatzera joanak. Irene Iruñean dago, zorionez, eta June eta Iker ez daki non dabilta. Seguru asko elkarrekin hor nonbait. Baina berari bost non eta zertan dabilta, berari inporta zaiona da Alexekin bakarrik egotea. Ilusioz beteta doa. Egia da Alexek oraindik ez duela eman espero duen eta desiratzen ari den pausoa, maite duela esan, baina unea gertu ikusten du. Oso gertu. Batek daki, gero, biok bakarrik... Zirrara egin dio bihotzak, sabelean kilima gozoa sentitu du, bihotz-taupadak azkartu.

Autokarabana baten ondotik pasatzerakoan barrutik deitu diote. Ate ondoan gelditu da. Zabalik dago, eta barruan emakume bat ikusi du. Zapi bat du buruan, eta betaurreko ilunak ditu. Keinu egin dio hurbil dadin. Pauso bat eman du eta, bat-batean, norbaitek bultza egin dio eta konturatu denerako autokarabana barruan dago. Esku batek ahoa estali dio. Atea ixten sentitu du, eta jarraian norbaitek belarri ondotik hitz egin dio. Gizonezkoa da, eta arrotza, ahots-tonuagatik.

—Lasai, zurekin hitz egin, besterik ez dugu nahi —esan dio—. Orain eskua kenduko dizut ahotik, baina oihu edo zerbait arraro egin, eta damutu egingo zara. Autokarabanan osteratxo bat egitera joango gara.

Emakumea bolantean jarrita abiatu dira. Urbanizazioa atzean utzita mendialderantz joan dira pistatik. Herria atzean utzita pistaren bazter batean gelditu dira. Emakumea ez da mugitu, galdeketa gizonaren eskuetan utzi du. Bisera buruan eta begiak betaurreko ilunen atzean gordeak ditu. Zuzenean joan da harira gizona, itzulingurutan ibili gabe.

—Zu eta mutil bat berriktan aritu zarete tipo arrotz batzuekin. Bi aldiz gutxienez. Zer nahi zuten? —galdetu dio.

Beldurak hartuta, Leireri eztarrian egin zaion korapiloak galarazi dio hitz egitea. Gizona haserretu egin zaio.

—Tira, ez dugu denbora alferrik galtzen ibiltzeko, esaguzu zertaz hitz egin duzuen tipo horiekin.

Leirek, kaka dariola, eztarria garbitu du. Garbitu eta gero hitz egin ahal izan du. Totelka hitz egin ere.

—Bi aldiz edo... etorri dira... guregana. Baina ez dakit nor dira... —esan die.

—Nor diren ez, zeri buruz hitz egin duzue nahi dugu jakin, ulertzen? Tira, jarri dantzaz mihia. Begiak malkotan, hitz bat gorde gabe, hitzik ahaztu gabe den-dena kontatu die.

—Zerbait dakitelako edo zerbaiten atzetik dabiltzalako seinale, Nadia —esan du gizonak, Leirek ulertu ez duen hizkuntza batean.

—Bai, baina non ibiliko dira? —emakumeak, hizkuntza berean.

—Ba al dakizu non dabilta? —Leireri hitz egin dio, hizkuntza aldatuta.

—Ez. Baina, esan dizuet, mendialdean ibili dira galduta dabilen bikote baten bila. Besterik ez dakit. Beno, bai, meategia aipatu zuten.

Neskari begiratu, eta lipar batean pentsakor egon da gizona. Gero bere hizkuntzan mintzatu.

—Meategi abandonatua... Mendialdera joan beharko dugu, Nadia, meategi horretara

—Eta neska? —Leireri begiratu dio Nadiak.

Gizona isilik egon da segundo batzuk.

—Hobe gurekin eramatea. Ilundu baino lehen utziko dugu aske —esan dio lagunari, eta gero Leireri, ulertzeko moduan—. Eta, jakina, aske utzi eta gero zuk ahoa itxita edukiko duzu. Bestela... Zeren, ez duzu nahiko zuri edo zeure inguruko bati ezer gertatzea, ezta? Ba, badakizu zer egin. Ez gaude txantxetarako, garbi izan.

Leire ez da erantzuteko gauza izan. Buruaz erantzun die.

—Ondo ba, neska zentzuduna zara. —Gizonak bere ondoan eseri da.

Emakumeak autokarabana martxan jarri du, eta mendialderantz abiatu dira. Aldapa hasten den puntutik gertu bide bazterrean gelditzeko esan dio lagunak.

—Hemendik aurrera mendiko motozikletan joango gara. Traste hau ez da marseillarren Jeepa. Horretaz gainera, mendiko motoek mugikortasun handiagoa emango digute. Zuhaitzen artean utziko dugu autokarabana.

—Eta neska?

—Hemen geratuko da gu itzuli arte. Eskuburdinekin lotuta eta ahoa estalita —esan dio lagunari, eta Leirerekin bukatu—. Ondo portatzen bazara etxean afalduko duzu.

Emakumeak begirada esanguratsua egin dio, zalantzazkoa edo. Gizonak jaso.

—Hori espero dut behintzat. Erne ibiltzen bagara ez dugu arazorik izan beharko. Ez dut uste behintzat. Morroi frantsesek ez dakite existitzen garen ere —beren hizkuntzan mintzatu da. Barra batean lotu dute Leire eta ahoa zinta itsasgarrirekin estali. Gero zerbait hartu dute kutxa batetik: bi pistola. Beldurak dardaraka jarri du Leire, begiak lausotu, ahoa lehortu. Ez daki zer arraio gertatzen ari den, baina garbi du ez dela txantxetakoa, ezta gutxiagorik ere.

Kaskoak ipini eta irten da bikotea. Autokarabanaren atzean daramatzaten motozikletak martxan jarritakoan ateratako zaratak eten ditu Leireren pentsamendu ilunak.

Gero isiltasuna. Isiltasun larria. Negarrez hasi da Leire.

June zuhaixken babesa uztera doa. Irten aurretik, begiratu bat eman dio meategi aurreko eremuari. Ez du ematen inguruan inor dabilenik. Ordua begiratu du. Laster zazpiak. Justu-justu ibili behar du etxera garaiz itzultzeko. Ez da larritu, ordea, berandututa ere ama ez dago etxean, eta azken batean lkerren laguntza ere badu. Hala eta guztiz ere, mugitu beharrean dago, hobe baitu ezordutan ez ibiltzea. Zabalguna irten da, eta lasterka sartu da meazulora. Sartu orduko mundua gainera erori zaio. Norbait bidera atera zaio eta haren kontra egin du talka. Berehala bi atzaparrek eutsi diote besondoetatik. Hiltzeko moduko ikara hartu du. Estu eta larri, zangoak dardarka, burua jaso, eta irribarre maltzur batekin egin du topo.

—Zer dabil neska pinpirin bat zulo ilun honetan? —galdetu dio beltzez jantzitako gizona, murrikaz.

—Zer..., zer..., zer nahi duzu? Ez...ez... niri... ezer egin... Arren! —hitzak pilatu zaizkio eztarrian eta listua irentsi behar izan du hitz egin ahal izateko.

—Zer nahi dudan... Zatoz kanpora eta jakingo duzu.

Beso batetik helduta, ia arrastaka, irten dira eguzkipera. Txistu egin du gizonak. Arkaitz baten atzetik jeep ilun ezaguna atera da. Bien parean gelditu eta beltzez jantzitako beste gizona atera da kanpora. Juneri begiratu dio, irribarre zabala ezpainetan. Zigarro bat piztu du, kea bota, eta hitz egin du.

—Bikain, Marcel, zuzen zenbiltzan, norbait zebilen bidezidorrean. Eta begira nor den. Tira ba, neska, esaguzu zertan zabiltza hemen.

June isilik dago, beldurrak akabatzen, erantzun sinesgarri bat ezin asmatu.

—Esateko zerbait —mehatxuzko begiratu egin dio—, bestela haserretu egingo naiz. Askatu mihia!

—Ezer ere ez... Bueno... bai. Lehengo egunean... zera... nire aitak erakutsi zidan meategia. Eta...ba... hori... Berriz ere ikustera etorri naiz —lortu du esatea, ez daki nola bururatua.

—Eta zergatik ez zara aitarekin etorri?

—Ez didalako barrura sartzen uzten.

—Horregatik... Bai neska bihurria! —txantxetan bezala hasi da, baina tonua aldatuta, haserre jarraitu du—. Tira, berriketak utzi eta esaguzu non dauden frantsesak, zaharra eta bere biloba. Eta ez esan ez dakizula.

June areago larritu da. Itomena sentitu du. Beldurrak atximur egin dio sabelean. Tripak nahasi. Bereak egin du.

—Nola dakizue nik...? —irten zaio, zizpuru bat bezala.

—Hori eta gehiago ere badakigu. Baina nola dakigun ez dizu axola. Beraz, erantzun behingoz! Marcelek atera dio une larritik. Momentuz behintzat. Jiratu eta pista aldera begira egon da.

—Ez duzu ezer aditu, Roland? —galdetu dio.

—Nik ez. Zer aditu?

—Ez dakit, oihartzun bat bezalakoa izan da, moto baten hotsa edo.

Erne egon dira pixka batean, belarriak tente. Rolandek hitz egin duen arte.

—Tira, Marcel, nor ibiliko da hemen bero honekin eta ordu honetan. Ea, neska, non dago bila gabiltzan monobolumena?

—Ba...ba...barruan —egia esan du.

Zigarretari zupada luzea eman, kea bota, eta harridura keinua egin du Rolandek. Jaka baztertu zaio apur bat eta gerrian daraman pistola agerian gelditu da. June ikusi du. Bihotza zoroki jarri zaio pilpiraka.

—Barruan? Gu barruan egon ginen eta ez genuen ezer ikusi. Non dago?

—Barru samar. Zuloa bihurgune bat egiten duen toki batean. Baina ez dakit oraindik hor egongo diren.

—Harrapa ezazu hori, Marcel —esan dio lagunari—, zaharrak autoa meategian sartu zuen.

.
Horrenak barrabilak! Egongo dira, bestela honezkero gure eskuetan egongo ziren, detektagailu bat jarri genuen monobolumenean. Tira, ba, goazen barrura zure laguntxoan bila.

Pauso batzuk baino ez dituzte eman meazulorantz. Abiatu orduko norbaitek garrasika hitz egin die bizkarretik.

—Besoak gora bikote! Gero har ezazue buelta. Poliki-poliki, lelokeriarik egin gabe, bestela hasi ahala bukatuko da festa. Ez nago bakarrik eta are gutxiago berriketan ibiltzeko gogoz..

Jira hartutakoan Junek gizon bat ikusi du zuhaixken artetik ateratzen. Azala zurixka dauka eta bisera ertzetatik xerlo horixkak ateratzen zaizkio. Besoak luzatuta dakar eta pistola batekin apuntatzen die marseillarrei. Irmo heltzen dio pistolari, tiro egiteko prest dagoelako seinale. Aurrez aurre gelditu dira lauak. Marseillarren aurpegian harridura dago islatua. Ez dute ulertzen, seguru asko, zer egiten duen mendian Europako Ekialdekoa izateko itxura duen batek. Baina garbi dute, beraiek bezala, bestea ere gaizkile profesionala dela, ez dagoela txiripaz bertan, eta are gutxiago txantxetan.

—Neska, bazter zaitez morroi horien ondotik —keinu egin dio buruaz.

—Zer nahi duzu? —galdetu dio Rolandek, lasai, azaletik behintzat.

—Zuek nahi duzuen berbera. Zer bestela? Bila zabiltzate gaztea urrearen balioa du.

—Nola dakizue...? —Rolandek ez du galdera bukatu.

—Familiarik onenean ere mihiluzeak daude. Ez al zenekien?

Isilaldi bat egin da. Isilaldi larria. Txitxarren kanten aditzen dira soilik, hauek ere apalagoak. Tentsioa nabaritzen da giro sargoritsuan. Ekaitza lehertu aurreko bezalakoa.

—Hori bada, zergatik ez dugu hitz egiten eta irabaziak banatu? Neurri batean kideak gara —proposatu dio Rolandek.

—Bai, hala da, baina ez lagunak. Inondik ere ez. Ala ahaztu duzue Parisekoa. Mokadu galanta geneukan eskuratzeaz eta zuek sudurra sartu eta akabu gure negozioa. Mendekua agindua genizuen. Hau izango da haren ordaina. Baina nahiko hitz egin dugu. Orain, ezer baino lehen, bota ezazue gainean daramazuen artilleria.

—Erabili burua, lagun, bestela hobe duzue zu eta zure balizko lagun edo lagunak Frantziatik urrun mantentzea.

—Zuen beldurrez akaso? Inozoa alaenak! Tira, nahiko eta sobera hitz egin dugu. Egizue esandakoa.

June zutik baina hankak lurrari itsatsita dago, begiak zabal-zabalik begira, ikarak hartuta. Orain bai dagoela belarriraino sartuta. Ez daki zer gertatu behar den, bi su artean harrapatuta dagoela bakarrik, kinka larrian. Bolborategi batean dagoelako sentrazioa du. Bikoteari begiratu dio, eta Marcelek pistola bi hatzekin hartzen ikusi du, eta poliki-poliki lurrera

botatzen. Rolandek gauza bera zihoala egitera ematen zuen, baina pistola ukitu ahala, tximista batek jota bezala, bere burua lurrera bota eta tiroka hasi da.

Eromena jarraian. Begi itxi-ireki batean sekulako zalaparta sortu da zabalgunean. Oihuek eta tiroek urratu dute mendiko bakea, txiki-txiki egin. Bizi-senak bultzaturik, Juneke ere bere burua lurrera bota du. Marcel ikusi du lurretik pistola hartzen. Zutitzera egin du baina oihu egin eta hankaz gora erori da. Balen txistua gertutik aditu du Juneke eta lurrari itsatsi da. Istant bat bakarrik egon da horrela. Berehala, berriz ere bizi-senak bultzatua edo, arrastaka abiatu da meazulorantz. Zulotik gertu dagoela, onik, tiroketa eta tiratzaileak ahaztuak, zutitu eta lasterka sartu da zulo ilunera.

Estropezuka, erori eta altxa, iluntasunak erabat irentsi arte ez dio korrika egiteari utzi. Arnasestuka gelditu da, bihotza zoro pilpiraka, bularretik atera nahian. Atzera begiratu du, sarbide aldera. Orban zuri bat besterik ez du ikusi. Dagoen tokian iluntasuna eta isiltasuna nagusi. Kanpoan ez daki. Makurtuta, eskuak izterretan bermatuak, belaunetik gertu, iluntasuna arakatzen aritu da. Ez du mugimendurik sumatu. Arnasa bere onera datorkiola, hasperen luzea egin, motxilatik linterna hartu, eta meazuloaren barrena joan da.

Kanpoan tiroketa amaitu da. Airean bolboraren usaina dago zabalduta. Mendian isiltasuna. Nadia begira dago harkaitz baten atzetik. Tinko eusten dio pistolari, eskuineko hatz erakuslea kantuan du, baina ez du tiro egiten. Lehen erruz egin du eta orain kargadorea ia balik gabe dauka. Bere burua madarikatzen du beste kargadore bat ekarri ez duelako. Ikusten duena mingarria da: Igor lurrean dago, luze-luze etzanda, zirkinik egin gabe, kamiseta argian orban eskarlata duela. Hilik dago, nonbait. Etsaiei dagokienez, bat lurrean datza, bizirik, minez iraulka, baina babes bila mugitzeko gauza ez. Honen laguna errenka joan da Jepeeraino motorraren atzean babestera. Burua motorraren gainetik ikusteko doiena aterata, pistola ezker-eskuinera mugitzen du, tiro egiteko prest. Nadiak ez du garbi zer egin. Marseillarrak ez daki non dagoen ezkutatuta, baina burua agerian jartzea ergelkeria galanta iruditzen zaio, haren tiramenean jartzea. Eta berak, tiro eginez gero, asmatzeko aukerak gutxi ditu. Eta ez dago balak alferrik gastatzeko moduan bizirik atera nahi badu. Malkoek begirada lausotu diote. Begirada gardendu bitarte laburrean autokarabana utzi gerokoa gogoratu du.

Maldan gora etorri dira Igor eta biak motozikletan. Ateratzen duten zalaparta medio, pistaren gainaldera iritsi baino lehentxeago, motoak ezkutatu eta oinez jarraitu dute. Ziur daude morroi marseillarrak meategian daudela, eta ez dute atentzioa eman nahi. Operazioa ondo atera ahal izateko, izan ere, funtsezkoa da bikotea ustekabeen harrapatzea. Pistaren gainaldetik, prismatiko batzuek lagunduta, sakonunea arakatzen egon da Igor. Jeepa ezkutatuta ikusi du eta baita June sasi eta zuhaixken artean bidezidorrean beheara doala ere. —Hor daude gure lagunak, Nadia, den-denak. —Prismatikoak luzatu dizkio.

—Eta neska? Zertara etorriko zen?

—Meategian ezkutatuta daudenengana. Ez zait beste ezer bururatzen. Laster jakingo dugu. .

—Uste dugun bezala bada, diru pila lortzeko atarian gaude, Igor.

—Dударик ez izan. Eta bide batez zorrak kitatu marseillatarrekin. Tira ba, mugi gaitzen, geu ere neskak erabili duen bidezidorretik joango gara.

Basakatuak balira bezala joan dira mendian behera. June zabalgunetik gertu gelditzen ikusi dute. Gauza bera egin dute eta zuhaixken artean ezkutatu dira. June abiatu denean Nadiak hitz egin du.

—Neska zabalgunera ateratzera doa, Igor. Gajoak ez daki zer du esperoan.

—Tira ba, Goazen geu ere. Behin behean, ezkutatu, egoki kokatu, eta zain geldituko gara.

Bidezidorraren amaieratik gertu beste batekin topatu dute. Hau ere zabalgunera doa, baina bestea baino meazulotik urrunxeago.

—Goazen hemendik, Nadia —esan dio Igorrek, ahapeka—, oker ez banago bide honek morroi frantsesak dauden bizkarrera eramango gaitu. Ustekabean harrapatuko ditugu.

Zuzen zegoen. Bidexkak bikotearen atzealdera eramandu du bikotea. Laster frantsesa meazulotik ateratzen ikusi dute, June atzematera. Igorrek di-da batean antolatu du ekintza.

—Nadia, nik egingo diot aurre bikoteari, zu ezkutatuta babestuko nazazu. Ustekabean harrapatuta ez dut uste arazoak izango ditugunik menderatzeko —harroxko samar mintzatu da, pistola gerritik hartzerakoan—. Eta, badakizu, behar izanez gero tiratu hiltzera.

—Ederki. Baina itxaron apur bat, hobeto babestera noa.

Metro batzuk mugitu da Nadia, harkaitz baten atzeraino. Ondoren keinu egin dio Igorri, ukabila itxita hatz lodia gorantz jarriarik. Lagunak, buruarekin baiezkoa egin, eta lau jauzitan zabalgunera irten da, oihuka.

Ekintza ez zaie pentsatu bezala atera, ordea. Igorren aurreikuspenak ez dira bete eta garesti ordaindu du gehiegizko konfiantza. Nadiak lagundu nahi izan dio, amorruez tiro egin die marseillarrei, jo ere bai, baina bere laguntza ez da nahikoa izan.

Begietako gandua deseginda, orain, liskarra baretuta, momentuz behintzat, erabaki bat hartzeko tenorea iritsi dela deliberatu du. Une batez mendeku hartzeko nahiak eraso egin dio eta zuhurtasunarekin borrokan egon da. Azkenean hau atera da garaile. Sartuta dagoen zereginean martiriek ez dute lekurik. Ezer egin ezean, bada, etorri bide beretik alde egitea erabaki du.

Hala bada, harkaitzaren babesa utzi eta bidezidorrera irten da. Gelditu eta adi egon da pixka batean. Bihotzaren taupadak eta lurrean zaurituta dagoen birao eta aienen oihartzunak besterik ez ditu entzun. Txitxarrak ere isilik. Abiatu da eta arazorik gabe iritsi da pistaren goialdera. Telefonoa hartu du. Estaldura gutxi dago. Numero bat markatu du. Ohi baino gehixeago kosta zaio konektatzea baina azkenean erantzun diote.

—Fiódor, Nadia naiz, estualdi batean nago —esan dio beste aldekoari, atarikoak gerorako utzirik—. Ekintza gaizki atera zaigu eta Igor hilik dago. Bakarrik nago, ia ez dauzkat balak, eta

marseillarrak zaurituak egon arren, bat behintzat babestuta eta tiroka jarraitzeko prest. Zer egingo dut?

Birao egin du beste aldekoak. Argibide gehiago eskatu dio. Nadiak hitz gutxitan azaldu dio gertatutakoa. Isilik gelditu da solaskidea.

—Kaka zaharra! Dena pikutara joan zaigu. Alde egin ezazu alderdi horretatik lehenbailehen —esan dio, isilaldia etenda.

—Gustura bid aliko nuke infernura marseillar zikin hori, baina zaila izango litzateke, kabroia ondo babestuta dago eta. Aizu, eta lgorrekin zer?

—Igorrekin... Bertan utzi. Zer bestela? Ezin dugu besterik egin? Hildakoek ez dute hitzik egiten. Tira, ba, alde egin ezazu hortik eta ez gelditu ehunka kilometro ibili arte.

Begiak malkotan korrika abiatu da Nadia motozikleta hartzera.

Kanpoan infernua piztu denean Juneek meategira sartzea lortu du. Zuloan barrena doa, linternaren argiak gidatuta. Ez daki François eta bere aitona barruan egongo ote diren. Baietz pentsatzen du. Meazuloa bitan zabaltzen den tokira iritsi denean oihuka deitu diote.

—François, June naiz, hor al zaudete?

Ezkerrera jo du eta bihurgunea hartu duenean linterna baten argi motelarekin egin du topo. Argiaren atzean François antzeman du. Atzeago monobolumena, ia ikusezin.

—Zer zabiltza hemen? —galdetu dio mutilak, harrituta.

—Arriskuan zeundetela esatera etorri naiz, baina iritsi naizenean sekulako ezustekoa hartu dut. Ai ene! Ez dakizue ondo... Ikaragarria da kanpoan gertatu dena. Sinestezina!! Ikaratuta nago. Ez dakit zer gertatu behar den —erantzun dio dio Juneek.

—Zatoz automobilera, eta kontatuko diguzu zer gertatu den.

—Nola dago zure aitona?

—Hobeto, askoz hobeto. Gaur gauean alde egiteko asmotan geunden.

Juneek kontatu die azken orduetako guztia. Marseillarrek horretarako eta gehiagorako gauza direla jakin arren, harrituta gelditu da aitona, ezin ulertu tiroketarena.

—Tipo bat azaldu eta tiroketa gertatu... Polizia ez bazen, nor ote? —ozen pentsatu du gizonak.

—Ez diet ulertu esan dutena, baina ez dut uste polizia zenik.

—Zer itxura zuen?

—Ilea horia eta azala zurixka zuen.

Pentsakor egon da zaharrak, eskua kokotsean, hatzekin egunetako bizarra laztantzen.

—Europa Ekialdeko izateko itxura. Ez dakit zer pentsatu. Frantzia ere, eta zoritxarrez, sartua ditugu Europa Ekialdeko mafiak. Baina ez dakit zer arraio ibil daitezkeen arazo honetan. Kezkagarria iruditzen zait.

—Ba tiroketa handia gertatu da hor kanpoan. Ez dakit nola bukatuko zen. Ez dakit nola lortu

dut alde egitea, kaka eginda nengoen eta. Senek lagunduta. Bestela...

—Horiek ere gure bila ibiliko ziren? —Françoisék, larrituta.

—Itxuraz bai —aitonak pentsakor gelditu da—. Kinka larrian gaude, zerbait egin beharrean. Kanpora joan beharko dugu zer topatzen dugun ikustera. Gero ikusiko dugu zer egin.

—Ni joango naiz —Françoisék.

—Zurekin noa —beldur eta guzti, bere burua eskaini du Junek.

Bideratu dira kanpoaldera. Sabelaldean zitzadak sentitzen ditu Junek, zangoetan ahuldura; hala ere, beldurrak airean, joan badoa. Irteera hurbilduz joan heinean tentsioa handiagotu zaio, eta tentsioaren eragina bere baitan. Irteerara iritsi baino lehen linternak itzali eta ilunantzean babestuta segitu dute aurrera, meazuloaren hormarekin bat eginik. Kirioak dantzaz hurbildu dira meazuloaren sarrerara. Eguzkitara irten aurretik begira egon dira. Gorpu bat ikusi dute zabalgunean. Elkarri begiratu diote, ikara begietan, zer egin elkarri galdezka. Hitzik gabe ados jarririk, zangoak ahul eta bihotza zoro, adorearen azken hondarrak bilduta atera dira argipera. Odoletan blai dagoen gorpua besterik ez dute ikusi. Besteen arrastorik ez. Françoisék Juneri begiratu dio. Honek sorbaldak jaso ditu.

—Besteek alde egingo zuten. Jeepa ez dago —esan du Junek, alde guztietara begira, edozein unetan azalduko direlako beldurrez.

—Tranpa bat ez baldin bada? —mutilak, berak ere landaretza zulatzen begiekin.

Baina, zorionez, aldi honetan susmo txarrak ez dira bete. Mendia baretasuna berreskuratu duela ematen du, ez dago bolbora usainik eta txitxar eta txorien kantak nagusi dira berriro. Isilaldi baten ondoren Junek hitz egin du.

—Ez du ematen. Goazen barrura zure aitonari estera.

Itzuli dira ezkutalekura. Ikusi dutena esan diote zaharrari. Entzun orduko hitz egin du, sendo eta erabakitasunez, zalantza egin gabe.

—Alde egin behar dugu, François, oraintxe bertan. Aukera aprobetxatu behar dugu. Tira, igo automobilera, eta Jainkoak lagun gaitzala!

—Eta June?

—Ez dakit arriskutsua izango den. Baina nahi badu etor dadila gurekin? —esan du aitonak.

—Zuekin joango naiz bizikleta utzi dudak tokiraino.

Sartu dira automobilera. Eztul egin du aitonak kontaktu-giltzari eragin dionean. Purrustada bota du eta martxan jarri da. Poliki, balantzaka, tarteka bazterrekin karrozerian urratuak egiten, joan dira meazuloan barrena aire zabalerantz. Tentsioa handia bada ere, itxuraz aitonaren burua ongi dago, eta baita argi ere, une larriari aurre egiteko. Kezkak beterik irten dira zabalgunera. Meazuloaren sarreran geldialdi bat egin dute. Begiratu bat egiteko doia. Dena dago gazteak utzi bezala: gizona hilda lurrean, besoak zabalik eta pistola esku ondoan, eta inguruan inoren arrastorik ez. .

—Dena libre. Aurrera! —esan du aitonak.

—Gidatzeko moduan zaude, aitona? —jakin nahi izan du bilobak.

—Munduaren amaierara joateko moduan. Eta gogo biziz hemendik alde egiteko. Pistaren gainaldera iritsi direnean eguzkia hodeiartzaren lerrotik gertu dago jadanik, odoletan jarria du hodeiertz, eta lasaitasuna dario arrastiari.

Lehenago, June meategi barruan dagoela, Rolandek Jeeparen kapotaren atzean dago babestuta. Zaurituta dago, bi tiro hartuta. Batek besaburuan urratu bat egin dio eta bestea belaunean jo. Odoletan dauka. Balak hezurren bat txikitu bide dio eta ziztadak sentitzen ditu hanka mugitzen duenean. Ziztada mingarriak, iltze bat sartu egingo baliote bezalakoak. Marmarka dabil, biraoak esaten, hortzak estutzen garrasiei bidea galarazteko. Hala ere, zauriez arduratu baino lehen bere buruaz arduratzen ari da, hau da, inguruak aztertzen ezer egin aurretik. Marcel luze dago lurrean, agi denez larri zaurituta; erasotzaileak, berriz, ez du zirkinik egiten. Hilik dago, nonbait. Begiradaz honen lagunaren bila aritu da, ziur baitago erasotzaileak bi izan direla. Bil dabilenak tiro zaparrada egin die, eta jakin nahi luke nondik. Ez du haren arrastorik sumatu, ordea. Non ote dago? Ez daki ezkutatuta edo alde eginda dagoen, beraz kontu handiz ibili behar du, burua gehiegi arriskatu gabe. Zangoari begiratu dio: odol-isuria eten beharko du. Egin aurretik, baina, egoera aztertu du.

Arimarik ez bistan, lurrekoak izan ezik. Isiltasuna handia, larria, hilerrikoa bezalakoa da. Aldika Mercelen aieneek urratzen dute. Lagundu beharko dio. Beste begiratu bat ematen dio inguruari. Autoaren atea zabaldu du. Aldameneko kutxatik zinta isolatzailea hartu du. Zintzaz baliaturik, min-ziztaden artean, tornikete modukoa egin du hankan. Laguna laguntzeko unea da. Babesa utzi aurretik azken begiratua ematen dio inguruari, eta inor ikusi ez duenez, jeeparen babesa utzi du. Hanka baten gainean, pistolari gogor eutsiz, iritsi da Mercelen ondora. Erasorik ez. Makurtu da. Larri dago laguna, tiro bat du sabelean eta beste bat soinean, biak bete-betean harrapatuta. Etsaiak jo dizkio, hilik gertatu aurretik.

—Roland, gaizki nago, sutan dauzkat erraiak —esan dio Marcelek, ahots mehe batez—. Emadazu lasaigarri bat, min handia dut. Eta atera nazazu hemendik, bestela pizti bat bezala hilko naiz.

—Emango dizut lasaigarri bat, Marcel, ez kezkatu, botika-kutxan denetarik dugu. Eta aterako zaitut hemendik. Baina lagundu behar didazu autora eramaten, ni ere zaurituta nago-eta. Tira, ba, ahalegintxo bat eta laster joango gara hemendik. Gero nagusiei deituko diet, laguntza eske. Ez zaio erraza gertatu Rolandi Marcel Jepeeraino eramatea. Ezta barrura sartu ere. Gizon puska da Marcel, eta nahi bai, baina ezin izan dio gehiegi lagundu. Berak, bestalde, zangoa ia paralizatua dauka, eta gero eta ziztada handiagoak ematen dizkio. Dena dela, senperrenak ikusita lortu du laguna jeeparen atzealdean sartu. Bi lasaigarri eman ondoren zaurietan hala-holako tapoiak jarri dizkio. Gero, inguruari azken begiratua eman, eta bolantean jarri da. Hanka duen bezala ez daki nola moldatuko den gidatzeko. Eskuinekoa da gainera. Mugikorra

hartu du laguntza eskatzeko. Ez dago estaldurarik. Aldamenean utzi eta martxan jarri du autoa. Hasiera hasieratik gidatze lana nekoso gertatu zaio, belauna mugitu orduko ziztadak ematen baitizkio, ipurdi gainean saltoka egiteko modukoak. Pistaren goialdera iritsi dira eta maldan behera bideratu, bailara aldera. Pendizetik doazela, telefonoari begiratu dio. Estaldura dago eta hartzeko keinua egin du. Hartzearekin batera hiltze batek belauna zulatzen sentitu du, aldi honetan belaunean alderik alde. Oihu egin du, instintiboki eskua hankara eraman. Kontrola galduta jeepa amildegirantz bideratu da sigi-saga. Frenatu nahi izan du, baina belaunak ziztada mingarria eman eta azeleragailua zapaldu du. Pistatik irten eta bere aurrean ezereza egiten ikusi du Rolandek.

Oihu egin du jeepa zilipurdika hasi denean.

Bien bitartean Nadia autokarabanara iritsi da. Ateari danbateko bat emanda sartu da. Kaskoa kendu, bazter batera bota, eta pistola hartu du gerritik. Zurbildu da Leire, eta txarrena pentsatzen hasi. Baina bere arindurako, emakumea pistolari kargadorea kendu, beste bat jarri, eta berriro jarri du gerrialdean. Sutan dago, begiak hezeak ditu, txinpartaka. Hurbildu, eta ezer esan gabe, barratik askatu, eta zinta isolatzailea kendu dio ahotik.

—Tira, goazen kanpora! —esan dio—. Motozikleta euskarrian ipintzen lagundu behar didazu. Baina kontuz, amorrua hustu beharrean nago, oihu bat edo mugimendu arraroren bat eta zureak egin du.

Esaneko lagundu dio Leirek. Pantera amorratu bat ematen du Nadiak, ederra baina arriskutsua. Zeregina bukatuta kopeta beltza jarrita begiratu dio Leireri,.

—Orain paseo bat emango duzu. Eta entzun adi esan behar dizudana. Zuk ez duzu ezer ikusi, ez autokarabana hau eta ezta autokarabanakook ere. Esaten dizut hau, zeren bihar seguru asko kontu pila ibiliko diren jendearen ahotan. Kontu larriak. Ulertu duzu?

Leirek eztarria garbitu du hitz egin ahal izateko. Gero totelka mintzatu da.

—Bai. Ez... ez... dut ezer ikusi. Nik ez dakit ezer.

—Oso ongi. Hor goian gertatu dena ez baita txantxetako izan. Nire laguna hilda dago. Eta nik hanka egin behar dut gauzak beltzak jarri baino lehen. Ez pentsa horregatik libre geratzen zarenik. Eta argi izan, zeren zure erruagatik niri ezer gertatzen bazait, zuk eta zure ingurukoek gorriak ikusiko dituzue. Argi?

Kaka eginda baiezkua egin du buruarekin Leirek. Bizpahiru aldiz egin ere. Emakumeak, keinu zehaztugabe bat egin, eta autokarabanara sartu da.

—Zure mugikorrarekin gelditzen naiz. Tira, zoaz kanpora.

Atea ixteko unean martxan jarri du autokarabana. Atzean hauts-laino bat utzita urrundu da. Urrundu bitartean lurrari itsatsita egon da Leire. Bistatik galdu duenean sakon hartu du arnasa. Infernuaren ataritik lurrera itzuli da. Amesgaizto batetik errealitatera. Iluntzen ari du.

Etxera iristerako gaua sartua izango da eta amaren erretolika entzun beharko du. Baina hori da gutxienekoa, ohituta dago eta laster ahaztuko du errieta. Inoiz ahaztuko ez duena da azken orduetan bizitakoa.

Bien bitartean, edozein momentuan ezusteko batekin topo egiteko beldurrez, iritsi dira pistaren gainaldera June eta bere lagunak. Bidegurutzean gelditu eta begira-begira geratu da Françoisen aitona. Zalantzak ditu, ez daki nondik jo.

—Oker ez banago eskuinetik etorri ginen, baina ez nago ziur —esan du.

—Bailarara iristeko pista metro batzuk atzerago dago —esan dio June, haranera jaisten den adarrari begira—. Beherago daukat bizikleta.

Pixka batean isilik egon dira. Françoisen aitona pentsakor. Gero bilobari begiratu eta hitz egin dio.

—Neskarekin joango gara bailara aldera? Gutxiago kostatuko zaio bide nagusira irtetea.

—Nahi duzuna, aitona.

—Bidea libre dugula pentsatzen dut. Ez dut uste morroi marseillar horiek gure zain egongo direnik. Bestela honezkero gainean edukiko genituen. Tira ba, gu ere mendian behera joango gara. Herriraino eramango gintuzke —esan dio Juneri—, baina zer gerta ere, agian hobeto nor bere aldetik joatea. Zer esaten duzu?

—Bai, hobe bakarrik joaten banaiz. Zuekin joango naiz bizikleta utzi dudana tokiraino.

Igo bezala poliki jaitsi dira bizikleta ezkutatuta dagoen tokiraino. June motxila hartu du kanpora ateratzeko.

—Iritsi da banantzeko ordua —esan dio Françoisen aitonak.

—Bai. Zuen atzetik joango naiz beheko pistaraino. Behin behean ezkerrera jo behar duzue eta hamar bat minututan herrian egongo zarete. Zorte on.

—Mila esker denagatik, June, ez dugu sekula ahaztuko egin duzuna. —hunkituta hitz egin du Françoisen.

Pixka batean isilik egon dira elkarri begira. June hautsi du isiltasuna.

—Mugikorraren zenbakia emango dizut. Bidali iezadazu Whatsapp bat, ondo iritsi zaretela jakin dezadan. Poztuko naiz.

Eman egin dio. Eskerrak eman diote elkarri berriro. Gero abiatu dira. Aldapan behera monobolumenaren atzetik joan da June, urrun samarretik, badaezpada. Lautadan atzean gelditu da. Gautu berria du eta motel samar joan behar izan du pistatik. Labore-lurren artetik joana, hamaikak joak dira etxeko garajearen sartu denean. Arindura handia sentitu du. Bidean ez du inorekin topo egin; eta, itxuraz behintzat, ezta Françoisen eta bere aitonak ere.

Egongelara sartu, begiak itxi, eta sofan amildu da. Porru eginda dago. Fisikoki eta psikikoki

.

ere. Eta oraindik kezkatuta. Lasaixeago baina kezkatuta. Ziur baitago meategian gertatutakoa ondorioak izango dituela. Ikerketak eta txutxu-mutxuak zabaldu herritarren artean. Eta kanpoan ere. Hildako bat meategian... Tiroka hilda. Ikaragarria! Eta bera... Alde batera geldituko da bera?

Ez daki. Inor ez daki zertan ibili den sartuta. Dena dela, ezin lasai egon, itxaron beharko du gauzak nondik bideratzen diren ikusi arte. Orduan jakingo du. Ordura arte ez da lasai egongo. Orain mugitu beharrean dago. Besaulkitik altxatu da eta mugikorra hartu du. Inork ez dio deitu, ezta mezurik edo Whatsapp bidali. Hobe. Pixka bat animatuta, pixka bat soilik, sukaldera joan da ogitarteko bat prestatzera.

Abuztuak 19, asteartea

Ustearen kontra nahiko ongi egin du lo June. Kosta egin zitzaion loakartzea baina gero lo seko egon da, eta garrantzitsuena, amesgaiztorik egin gabe. Mugikorraren doinu ezagunak ateratu du lozorrotik. Argia sartzen da pertsianaren zirrituetatik. Telefonoa hartu du mesanotxetik. Bederatzi eta erdiak azaltzen dira pantailan. Iker irakurri du beheago. Zalantza egin du, eta azkenean ez hartzea erabaki du. Geroxeago deituko dio, erabat esnatzen denean, neuronak suspertutakoan. Burua argi eduki behar du, hanka sartu nahi ez badu.

Telefonoa utzi eta gero sabaira begira egon da ohean, pentsakor, bezperakoa gogoan. Bukatu ote dira bere arazoak? Baietz pentsatu nahiko luke, baina ezin du, zalaparta sortuko baitu zabalguneko gorpuaren aurkikuntzak. Toki bakarti samarrean dago eta agian atzeratuko da. Baina lehenago edo geroago aurkituko dute. Hobe geroago. Dena dela, hurrengo egunetan kontuz ibili beharko du, ezpainak lotuta eta zentzumenak erne, zer gerta ere. Pixka bat geroago, jaiki eta gosaltzera jaitsi da sukaldara. Gosaldu bitartean Ikerri deitu dio.

—Lehen lo seko harrapatu nauzu eta telefonoa hartu dudanerako moztu egin duzu —gezurra esan dio—. Baina ez kezkatu, mesede handia egin didazu deitzen. Etxea txukunduko nuela agindu nion amari eta oraindik ez naiz hasi. Eta eguerdian dator. Bizkor ibili beharko dut. Zer nahi zenuen?

Isiltasuna. Ikerrek ez dio berehala erantzun. Larritu egin da June. Susmagarria iruditu zaio lagunaren isiltasuna. Baina ez du ezer esan, zain gelditu da, nondik jotzen duen.

—Ezer apartekorik ez —esan dio lagunak, azkenean, zurekin kezkatuta nengoen, horregatik deitu dizut. .

—Nirekin kezkatuta? Ez dakit zergatik.

—Atzo hain misteriotsu ibili zinen...

—Eta...?

—Oraintxe esango dizut. Gaur goizean, egunero bezala, aita egunkaria eroatera joan da eta foruzainak mendian gora eta behera dabiltzala esan diote.

—A, bai? Zer dela eta? —galdetu dio June, erne jarrita.

—Sute bat piztu omen da bart gauean mendialdean. Suhiltzaileekin bertara joan eta 4X4 aurkitu omen dute meategira doan pistatik amilduta. Autoa erreta zegoen eta barruan bi lagunak gorpuak topatu dituzte.

—Ez da izango! Ikaragarria, aizu! —oihu egin du June, harrituta, eta neurri batean arinduta ere, lepoa egingo bailuke autoa eta hildakoak ezagutzen dituela—. Hala ere, ez dut ulertzen zure kezka. Elkarrekin joan ginenetik ez naiz itzuli meategira —defentsiban bukatu du.

—Gehiago ere badago. Eta ez samurragoa. Gizon baten gorpua aurkitu omen dute meategiko zelaigunean. Ba badakizu nola naizen, buru bero samarra batzuetan, eta gu bertan ibiliak garenez... Tontakeria bat izango da, baina kezkatu naiz, zurekin batez ere.

—Eskertzekoa da zure ardura, Iker, baina ez pasatu, mesedez.

—Azken egunetan nola zaren ibilia ikusita...

Une batez zer esan ez dakiela egon da June. Laster, ordea, bere jarrera zuritzeko aitzakia bururatu zaio.

—Ba atzoko eskariaren arrazoia oraintxe argituko dizut: Planetarioa ikustera joan nintzen Iruñera, ni bakarrik, amari ezer esan gabe —esan dio—. Goizean elkarrekin joatea eta iluntzean ni busean itzultzea proposatu nion amari, baina berak ezetz, aita etorritakoan joango ginela hirurok. Horregatik deitu nizun, bazkalosteko busean joateko asmoa nuelako, amaren ezetza kontuan izan gabe.

—Eta hori bazen, zergatik ez zenidan egia esan?

—Arrazoi duzu, baina ez dakit, badakit-eta sekretua gordeko zenuela. Ez dakit Alexekin izandako tirabirek txotxolotu samarra ez ote naukate. Ez nuke ezetz esango.

—Horregatik bazen, bihartik aurrera lasaiago ibiliko gara, badoa-eta hemendik.

—Ez da izango?! Bada, pozten naiz. Ea ba bihartik aurrera lasaiago ibiltzen garen kuadrillan, kontu txarrik gabe. Leire eta Irene gajoak... —ironiatsu bukatu du.

Hortxe bukatu da elkarriketa. Bukatu eta gero pentsakor egon da June. Tiroketan parte hartutako frantsesak hilda badaude, eta ziur dago kiskalitakoak haiek direla, gauzak dezente aldatzen direla pentsatu du. Zaila iruditzen zaio, oso, foruzainek bera inplikatzeko ezer aurkitzea.

Hala ere, oraindik itxaron behar, hobe du kanpaiak jotzen ez hasi.

Ama etorri da Iruñetik. Berri onak dakartza: aita arratsaldean dator Bartzelonatik eta amona bihar ateratzen da ospitaletik. Berri onak eman eta gero hizpidea aldatu da.

—Zerbait gertatu da —jarraitu du—. Polizia foralekoak hara-hona dabiltza eta suhiltzaileen kamioi bat ere ikusi dut. Suteran bat, seguru asko.

Ikerrek kontatutakoa esan dio. Ikaratuta gelditu da ama.

—Hildako bat ere? Ai ene...! Eta zuek mendialde horretan ibiltzen zarete bizikletekin.

—Beherago, ama, beherago. Eta, gainera, hau ez da normala, batere.

—Zorionez! Baina mundua dabilen bezala, ez dakit zer pentsatu —esan du, eta esan eta gero inguruari begiratu bat ematen dio—. Etxea txukundu duzula ikusten dut. Zalantzak nituen. Atsegin dituzun misteriozko nobela horiekin ez nintzen harrituko ahaztua izatea. Ez dakit nola gustatzen zaizun hainbeste. Noizbait horrelako zerbait gertatzen bazaizu, hobe ez, ez zaizkizu hain gustukoak irudituko.

—Ez dut uste behin ere gertatuko zaidanik —esan du June, irribarre bat ezpainenetan.

—Egia esan nahiko lasai bizi gara hemen. Eskerrak! —Bere gelara joan da ama.

Buruari eragin dio June. Irribarre zabalagoa orain. Noizbait ezer geratu... Ama dagoen gelarantz begiratu du. Ez dakizu ondo...

Ordu berean sofán etzanda dago Leire telebistari begira, baina pantailakoari arretarik egin gabe. Erreta dago, bart berandu iritsi zen etxera, eta, uste bezala, ama sutan aurkitu zuen. Sekulako errieta egin zion, abisatu gabe berandu etortzeagatik. Alferrik izan zen mugikorra lapurtu ziotela esatea, horixe esan baitzion, ez zitzaion aitzakiarik hobea okurritu. Alferrik. Baretu beharrean areago haserretu zitzaion ama. Zigortuta dago, bada, gauean etxetik irten gabe. Hori ez da txarrena, ordea, Alexena baizik. Goizean deitu dio, haserre mintzatuz, oso haserre

—Aizu, nor zara zu ni babo bat bezala zain edukitzeko? —kargu hartu dio.

—Nire amak... —hasi da Leire, baina ez zaio ezer sinesgarri bururatu eta isildu egin da.

—Ez etorri aitzakia merkeekin niri, zertarako duzu telefonoa?

—Galdu egin nuen.

—Eta zure inguruan ez zebilen inor berea uzteko? Ez niri gezurrik esan gero! Ordu erdi zure zain... Horixe bakarrik behar nuen! Oraindik ez da jaio nirekin jolasean ibiliko den neska. Beraz, agur!

—Alex, mesedez, barka, hitz egingo dugu lasaiago. Oraintxe nahi baduzu —erreguka hasi zaio Leire.

—Ez dugu zertaz hitz egiterik. Agur eta kito! Bihar herrira noa, gainera, orkatila erabat sendatzeko errehabilitazioa hastera. Eta ez pentsa, bestela ere banuen gogorik, dagoeneko aspertuta nengoen kuadrillakoekin. A ze jende txepela! Agur!!

Alexek moztu egin du deia. Eginak zituen itxaropenak zapuztuta lur jota gelditu da Leire. Luze egin du negar. Begietako malkoak xukatzen harrapatu du amak. Pasatu zaio haserrea.

—Zurea mutur beltza, neska —esan dio—. Ez dut uste atzoko errieta horrenbesteko izan zenik. Lehengo aldia balitz... Baina, egia esan, zenbat eta helduago, orduan eta ganora gutxiago duzue egungo gazteek. Dena libre duzuela, uste duzue, mundua zuena dela. Eta, ez, hori ez da horrela.

—Ama, utz bakean, noiz ahaztuko zaizu erretolika hori? Hamaika aldiz entzun ditut jadanik.

—Negarrez hasi da Leire.

—Bale, bale, ez jarri horrela. —Malkoek ama samurtu dute—. Baina ez zara umemoko bat batzuetan ibiltzen zaren bezala ibiltzeko. Tira, zoaz lagunengana, ea lasaitzen zaren.

Leire altxatu da baina ez du kaleko bidea hartu. Gelara joan eta terrazara irten da negar egitera. Juneren terraza aldera begiratu du. Laguna etxeko lanak egiten ikusi du. Amorratuta gelara itzuli da. Berriz ere bera garaile, Alexekin bezala.

Gorrotagarria iruditu zaio.

Juneren aita ilunabarrean iritsi da Bartzelonatik. June eta amak harrera beroa egin diote etxera sartu denean. Maleta eta ordenagailua besaulki batean utzi eta estu besarkatu ditu biak.

—Berriz ere etxean —esan du—. Banuen gogo! Oporrak hastera noala iruditzen zait. Orain hiru aste hartu nituen bezain gogotsu hartu behar ditut azken hamar egunak.

—Nik ere bai —Juneren amak—. Ospitalean igarotako egunak ahaztu beharrean nago. June behintzat lasai ibili da. Batzuetan bakarrik etxean, baina bestela lasai.

Irribarre bortxatu batekin erantzun die Juneek. Ez dakizuen ongi..., esan du bere artean. Eta zertxobait estutu da. Kezka barruan sartuta baitu oraindik. Dena dela, eguna bake santuan hiltzera doa, eta herrian txutxu-mutxuak besterik ez daude. Seinale ona.

—Aizue, eta mendialdean gertatutakoa? —esan die aitak, Juneek gogoan duena igarri balu bezala—. Irratian ez zuten beste lelorik. Eta ez naiz harritzen.

Amak, Juneri aurre hartu, eta honek kontatutakoa azaldu dio. Aitak, ordea, berri zabalagoak ditu, eta osatu egin du emazteak esandakoa.

—Hain sinplea balitz... Antza denez, sute txiki bat piztu da mendialdean, handik datorren pistatik gertu. Suhiltzaile eta foruzainak hurbildu dira sua zegoen tokira eta ibilgailu bat ikusi dute amildegian. Sakan batean omen zegoen, harkaitzen artean. Toki harritsu baten zegoen eta sua, zorionez, erraz menderatu omen dute. Ondoren, ibilgailura hurbildu, eta bi gorpu topatu dituzte barruan, guztiz kiskaliak.

—Ai ene! Ez da izango? —Juneren amak aurpegira eramanez ditu eskuak, izututa.

—Baina hor ez da kontua bukatzen —senarrak jarraitu—, mendian gora joan den patruila batek gorpu bat antzeman du meategi abandonatuaren zabalgunean, tiroz josita. Atzerritarra bat, omen, itxuragatik Ekialdeko Europakoa.

—Atzerritarra... Zertan ibiliko zen hau bezalako herri batean? —emazteak, are ikaratua.

—Foruzaingoaren hipotesi nagusiaren arabera, mafien arteko kontu zikin bat egon daiteke hilketa eta istripuaren atzean. Hildakoa Europa ekialdeko mafiekin zerikusia duen tipo bat izan liteke.

—Jesus! Jesus!! —amak, izututa.

—Eta ibilgailuan topatutakoak? —galdetu du Juneek, apal.

—Erabat kiskalita omen daude. Beraz identifikatzen zailak. Autoa bai. Jepp Grande Cherokee bat omen da, luxuzkoa, ohikoa ez inguru hauetan. Itxuraz, meategian hilda aurkitutakoa bezala, hauek ere atzerritarrak dira. Azken egunetan bikote bat ibili omen da herrian, tipo berezi samarrak biak, eta horiek izan litezke. Baina oraindik gauza asko daude argitzeko, eta horretan dihardu poliziak.

—Hau da hau! Non eta hau bezalako herri txiki batean gertatu. Ea lehenbailehen argitzen den kontu hau, bestela ez dut lasai lo egingo —andreak.

—Hori da guztia, aita? —jakin nahi izan du Juneek.

—Gutxi iruditzen zaizu? Oraingoz bai. Zuk esan duzuna —emazteari begiratu dio—, ez dakit zer galduko zitzaien alderdi hauetan ibiltzeko. Auskalo.

—Galduta, seguru asko —Juneek.

—Auskalo. Hurrengo egunetan beste konturik ez da ibiliko herrian. Eta ez da harritzekoa. Al, oparitxo batzuk ekarri dizkizuet Bartzelonatik. Zuri, June, Estatu Batuetan boladan dagoen nobela beltza. Originala ekarri dizut, ingelesa praktikatzeko.

—Eskertzen dizut, aita, baina aurrerago irakurriko dut. Hurrengo boladan genero aldatzea erabaki dut. Zientzia-fikzioa irakurtzeko asmoa dut.

—Erromatikoak hobe —amak—, bestela ez harritu estralurtarrekin amets egiten baduzu. Edo estralurtarrekin, beste horiekin.

—Arrazoi duzu ama, gure artean dabiltzala edo, pentsatu. Baina nahiago ditut zientzia-fikziozkoak. Printzipe urdinak ez zaizkit gogokoak.

Une horretantxe mugikorrak hots atera du. Whatsapp bat sartu delako abisua. Pixka bat baztertu eta ireki egin du Juneek. Irakurri orduko irribarre zabala azaldu zaio aurpegian.

Toki segurura iritsi gara. Aitarekin hitz egin dut. Sekulako poza hartu. Orain eskuak libre ditu iruzurra eta iruzurgileak salatzeke. Mila esker berriro. Ez adiorik! François.

Pozak negar malkoz bete dizkio begiak.